Tout ce qui est de la pédagogie des langues dans le monde conclut à la nécessité de l'immersion, à la nécessité d'un exercice intensif pour mettre en œuvre le mécanisme de l'oralité fluide. Le Conseil constitutionnel n'a pas jugé juridiquement l'immersion. Bien au contraire, il l'a sanctionnée politiquement au nom de ce vieux nationalisme franco-français qui n'a jamais cessé hélas de sévir.

Point de vue de l'Office public de la langue bretonne

ROUÉ, Visant
Directeur du pôle Etude et développement
de l'Office public de la langue bretonne

L'Office public de la langue bretonne (OPLB) est l'outil public dont se sont dotés l'Etat, les collectivités régionales et départementales pour assurer la promotion et le développement de la langue dans le cadre du bilinguisme. L'établissement public intervient aussi bien sur le corpus que sur le statut de la langue. En ce sens, la loi votée le 8 avril 2021 a des conséquences importantes dans les domaines d'intervention de l'OPLB, chacun sachant que la loi promulguée le 21 mai a vu un certain nombre de ses dispositions censurées.

La loi relative à la protection et la promotion du patrimoine des langues dites régionales apporte plusieurs avancées pour la langue bretonne. Tout d'abord, concernant la connaissance de la langue, elle offre des perspectives très importantes. En effet, selon l'enquête sociolinguistique de 2018, il y a environ 210.000 locuteurs actifs de breton de plus de 15 ans auxquels il convient d'ajouter les élèves scolarisés en filière bilingue, soit au total environ 225.000 brittophones. Or, la connaissance de la langue parmi les jeunes générations est faible puisqu'elle n'est que de 1 % parmi les 15-24 ans. Par ailleurs, les données de l'enseignement nous indiquent que 3,4 % des élèves du 1^{er} degré sont scolarisés en filière bilingue.

Ce taux est à rapporter à l'offre bilingue : 9,6 % des établissements du 1^{er} degré sont dotés d'une filière bilingue. Ainsi, lorsque l'offre est proposée, elle concerne environ 35 % des effectifs d'une école. L'enjeu est que la Bretagne compte plus de

2400 établissements de 1^{er} degré. Or, malgré un rythme d'ouverture plus important dans le bilingue depuis la création de l'OPLB et la signature de la convention Etat-Région (63 nouveaux sites publics ont ouvert dans le 1^{er} degré ces 6 dernières années, soit autant que dans les 16 années précédentes), un grand nombre de jeunes Bretons et de jeunes Bretonnes n'ont aucune connaissance de la langue, faute d'offre. En effet, en dehors de l'offre bilingue, il existe certes un enseignement de la langue dans le 2nd degré mais il a été très fortement malmené depuis la réforme du collège en 2015 et la réforme du lycée de 2019. Le nombre de collégiens en option breton est passé suite à la réforme de 4844 à 3170 et le nombre d'élèves de terminale générale apprenant le breton en Langue Vivante n'est plus que de 18. Ainsi, l'objectif de généralisation de l'enseignement de la langue dans le 1^{er} et dans le 2nd degré, posé par l'article 7 de la loi promulguée, est très important pour, si ce n'est former des locuteurs complets, au moins diffuser une connaissance de la langue de façon beaucoup plus large. Il reste à déterminer les modalités de cette programmation car en Bretagne, pour ce qui concerne l'enseignement public, 94 % des lycées sont sans offre, tout comme 85 % des collèges. Dans le 1^{er} degré, seules 65 écoles du Finistère bénéficient d'un dispositif mettant des intervenants extérieurs à leur disposition pour des séances d'une heure par semaine. Ce déploiement est donc à programmer, à phaser et la nouvelle convention Etat-Région Bretagne devra être l'outil permettant ce déploiement.

La loi apporte également des éléments de sécurisation juridique très importants pour la bilinguisation de l'espace public. En Bretagne, comme ailleurs, l'espace public monolingue du début des années 80 s'est profondément modifié par le biais des lois de décentralisation notamment. Aujourd'hui, au-delà des panneaux d'entrée et sortie d'agglomération, le bilinguisme concerne les signalisations directionnelles départementales et communales mais aussi d'autres supports, comme les plaques de rues ou les panneaux de police. Prévue dans la convention Etat-Région 2015-2020, la signalisation des voies nationales est en cours de bilinguisation également. Or, si ces décisions n'étaient pas illégales, elles ne s'appuyaient sur aucun cadre juridique autre que le principe de libre administration des collectivités territoriales, qui a aussi ses limites, notamment lorsqu'on parle des routes dépendant de l'Etat bien évidemment. Il était grand temps d'apporter une reconnaissance juridique à ces pratiques largement développées sur le terrain.

Molac legeaz

SARRAILLET, Jakes

Bordeleko Akademiaren euskara ikuskaria

Euskaltzain urgazlea

Erran dezagun lehenik, hautsak hainbeste harrotu dituen 2021eko maiatzaren 23ko Molac legeak, bere edukiaz gain, alderdi sinboliko azkarra duela, dudarik gabe: Frantziako legebiltzarreko diputatuen % 76,5ek legearen alde bozkatu dute, hots, gehiengo handiz, eta azpimarragarria da, bide beretik, diputatuen bi herenak hor zirela (323 bozkatu dutenak, 247 alde), lege horri sona gehiago emanaz.

A) Ohartzen gara lurraldeetako hizkuntzen hezkuntz araudizko garapena jarraikia dela, nahiz aitzinatzearen prozesua oso luzea eta mantsoa den

Oso luzea, zeren *Deixonne* legea, lurraldeetako hizkuntzen irakaspen estentsiboa baimentzen zuena 1951n bozkaturik izan baitzen, 70 urte... Denbora tarte horretan, argia da, ukaezina da, hizkuntza hauen egoera soziolinguistikoa anitz kaxkartu dela eta hitzunen kopuruak eta ehunekoak amildu direla, batzuk ezarriz kasik itzuli ezineko egoera batean. Hau ez baldin bada arras euskararen kasua, hala ere familia transmisioa segurtatzen zuen gizarte tradizionalaren desagertzea, gazteen emigrazio azkarrak, herrialdearen turistifikazio masiboak, beste nonbaiteko jende oldeak eta eraketa politiko propio ezak egoera oso zail batean ezartzen dute. Oroitu bestalde, bi legeen artean (Molac-Deixonne), 50 bat lege proiektu bazterturik gelditu direla. Horrek ongi erakusten du Errepublikak axola guti duela Ondare Nazional izendatuak izan diren gure hizkuntzez. Molac legea V. Errepublika garaian bozkaturik izan den lehen legea da, lurraldeetako hizkuntzen defentsa eta irakaskuntza bultzatzen dituen.

Hala ere, dena ez da beltz eta geldirik. Hona ondotik zerrendaturik azken berrogei urteetan eman diren urratsak:

Publikoko lehen parekotasuneko gela elebiduna irekitzea 1982an Saran. (*Savary* zirkularra). Ordura arte, lehen maila publikoan euskara kurtsoak ematen ziren molde estentsiboan, erran nahi baita errient euskaldun batzuk eskolaz eskola ibiltzen zirela klase batzuetan, astean 3 oren euskara klase emateko. Irakasle hauek 20 bat izatera heldu ziren Iparralde guzian.

Molde berean, bigarren mailan, beste gai batzuetako irakasle euskaldun zenbait euskara klaseak ematen zituzten, kolegioan. Lizeoan berdin eta ikasleek parada zuten euskara ahozko azterketa bat pasatzeko baxoan, hautuzko gai gisan, puntu batzuk irabazteko.

1993an euskara Capes-a. Bretoiera eta okzitanieraren ondotik, bigarren mailako euskara irakasle izateko konkurtsoa sortu zuten (capes publikoan/cafép pribatuan) eta bide beretik lehen euskara postuak ere bai. Horrek alde batetik ofizialdu zuen euskararen irakaskuntza (irakasle gorputz berezi bat sortuz) eta ongi garatzen ari zen lehen mailako sare elebidunari segida eman zitzaion bigarren mailan; kolegioan lehenik eta lizeoan ondotik, molde naturalean. Euskara kurtsoez gain, irakasle hauek historia eta geografia ere euskaraz irakasten zituzten (eta dituzte oraino). Gaur egun, 75 bat euskara irakasle dira, bigarren mailako sare publikoan eta pribatuetan.

1994an Bayrou-ren zirkularra, parekotasun elebidun irakaskuntzaren lehen arauak finkatu zituen. Lurraldeetako hizkuntzen irakaskuntzan askotan gertatzen den bezala, arautzea praktikaren ondotik heldu zen baina hala ere, abantailak izan ziren egin-molde batzuk «legeztatzen» (Hezkuntza Nazionalaren arautegian idatziz) baitzituen eta ordutegi batzuk ere finkatzen.

2002an CRPE berezia. Hau izan zen, gure ustez, une azkar eta aurrerapauso oso esanguratsua, kasik iraultza bat. Izan ere, 60ko hamarkadatik, lehen mailan euskara edota euskaraz irakasten zuten publikoko irakasleak, irakasle «arruntak» ziren, euskarazko gaitasunak eta borondate ona zituztenak baina elebidun irakaskuntzan formakuntza berezirik jaso ez zutenak. Beharrak estaltzeko, lehenik Euskal Herrian bertan zirenak (ibilkariak) gero Frantzia barna barreiatuak ziren errient euskaldun nahiant guziak hartzen zituzten. Baina harrobia agortu zen eta beharrak gero eta handiagoak ziren. Une azkar eta aurrerapauso oso esanguratsua izan zela diogu zeren konkurtso berezi honen bidez euskarak bere lekua ofizialki hartzen baitzuen, hainbeste urtez, hainbeste belaunaldiz, haren kontra borrokatu zuen Errepublikaren instituzio sakratuan, eskolan. 2020ko eskola sartzean 161 postu ziren publikoan (389 irakasle elebidun denetara, pribatuarekin). Erran gabe doa hori ez dela erresistentziarik gabe gertatu.

2019an euskara agregazioa. 26 urtez, bigarren mailako euskara irakasleak egon dira, beste edozein diziplinatako irakasleek ukan dezaketen aurrerapen profesionaletik at; zertifikatuak bai, agregatuak ez! Irakasleen goi mailako esparrutik kanpo, euskara irakasleak izateagatik bakarrik. Bidegabekeria hau azkenik ezabatua izan da.

2021ean Molac legea. Legearen xehetasunetan sartu gabe, haren atal batek berebiziko garrantzia zuen, murgiltze sistemaren legeztatzea. Jakin behar da parekotasun elebidun sistemaren ahultasunaren aurrean (diglosia egoera gogor batean dagoen hizkuntza ez-latino batean gaitasun osoa lortzeko zailtasunak), bazirela hamar bat urte sail publikoan murgiltzea erabiltzen hasiak zirela ama eskolako gela batzuetan (denboraren % 75 edo % 100 euskaraz), Institutioak molde «esperimentalean» doi-doia onarturik. Eskaera sozial gero eta handiago horren aitzinean, Hezkuntza Nazionalaren uzkurtsunak eta irakasle sindikatu batzuen aurkakotasunak krisi bat eragin zuten, 2020ko eskola sartzean: hiriburuko eskola batean murgiltzea irekitzearen debekua. Tirabira gogor batzuen ondotik konpondu zen, baina argi gelditu zen ezin zela segitu, zerbait egin behar zela. Horregatik da, besteak beste, hain garrantzitsua Molac legea. Ahantzi gabe, bistan da, publikorako debeku hark arriskuan ezartzen zituela ikastola guzien eta eskola giristino anitzen murgiltze gelak.

Ikusi dugun bezala, bi lege hauen artean (Deixonne / Molac), lurraldeetako hizkuntzen irakaskuntza egituratzeko erabakiak hartuak izan dira. Hala ere, anitz gelditzen da egiteko, hala nola, besteak beste:

– Hezkuntza Nazionalaren datu bankuek ez dute oraino elebidun irakaskuntza ezagutzen (LVB edo LVC da euskara, beste edozein hizkuntza bezala).

– Brevet eta baxoko azterketetan, euskaraz ikasitako gai guziak ezin dira euskaraz pasatu.

– Bi diploma hauek ez dute elebidun irakaskuntza ezagutzen.

– Bigarren mailan, euskara ikuskaritza posturik ez da (75 irakasle izanik ere).

– Kolegio eta lizeo publikoetan parekotasun elebitasuna nekez hedatzen da.

B) Distortsio handia lurraldeetako errealtatearen eta diskurtso ofizialaren artean; Pariseko eliteek ez dute herria ezagutzen

Lurraldeetako hizkuntzen kontrako diskurtsoan, anitzetan entzuten da haien garapenak lanjerean ezar lezakeela frantses hizkuntza, baina egiazki galbidean dena

euskara da (besteak are gehiago), ez frantsesa, ezta Errepublika ere. Zenbakiak argi erakusten digute: Frantzia guzian 15 000 ikasle elebidun sailean alde batetik, eta 12 000 000 ikasle frantses hutsean ikasten dutenak, bestetik; % 0,12, beraz.

Uste dugu egiazko «eskizofrenia» instituzionala dela lurraldeetako hizkuntzei buruz, eta adibide ezinago argia da Konstituzio Kontseiluaren erabakia, bere eraginkortasuna frogatu duen murgiltze sistema edo keinu diakritikoak debekatuz. Hirugarren Errepublikaren garaiko pentsamoldeek zorigaitzez bizirik diraute, kontuan hartu gabe aro berri batean sartuak garela aspalditik eta gizartea errotik aldatua dela.

Jean Castex lehen ministroak eskaturik, Kergolet/Euzet diputatuen txostenak erraten du, besteak beste, elebidun sailean ari diren ikasleen frantses hizkuntzaren kompetentziak ebaluatu behar direla. Aspalditik egiten da! Eta mundu guziak badaki elebidun irakaskuntza ez balitz eraginkorra eta emankorra izan alor guzietan, aspaldidanik baztertua izanen zela. Baina alderantziz gertatzen da eta gure egunerokoan, behin eta berriz errepikatzen digute ikasle elebidunek, orokorrean, maila hobearekin ikasle elebarrak baino, hori gai guzietan, baita frantsesean ere!

Ez dezagun ahanztu euskara diglosia egoera oso latz batean aurkitzen dela, gure haurrek, nahi gabe ere, frantsesa ikasten dutela, eta berriz diogu, nonbait hizkuntza bat arriskutan baldin bada euskara da.

Konstituzio Kontseiluak gizartearen eboluzioaren kontra doazen erdeinuzko erabakiak hartu ditu, bere gotorlekutik. Euskal Herrian, gizarteak elebidun irakaskuntza nahi du eraginkorragoa delako, are gehiago murgiltzea. Eskaera sozial handia bada, ez dena gutitzen ari.

Hala ere, dena ez da beltz eta ilun, eta bereziki azpimarratu behar da bertako mundu politiko ia osoa euskararen alde jartzen dela. Gaur egun oso normala dirudiena ez zen batere hala orain dela ez hainbeste denbora. Euskararen sustengu bakarrak talde politiko abertzaleak ziren, estatu mailakoek kasu hoberenean isilik egoten ziren, adibidez prefet batek ikastola bat debekatzen zuenean. Euskal Herriko egoera politiko orokorra aldatu da eta azpimarratuko genuke arrazoiatarik bat dela Iparraldean indar abertzaleek ezagutu duten gorakada nabarmena.

2004an sortu zen Euskararen Erakunde Publikoa unanimitate horren fruitua da.

Perspektibak: «Etxea eraikitzen segitu»

Etorkizunerako urratsak lau ardatzen inguruan ikusten ditugu:

Mobilizatzen segitu: joan den ekaineko Baionako manifestaldiak argi erakutsi duen bezala, Euskal Herriko populazioa eta mugimendu herrikoiak izan dira eta izanen dira geroan ere aitzinamenduen gakoetako bat.

Anitzetan errepikatzen diguten bezala, euskararen gaia gai «politikoa eta delikatu» omen da. Horrek eramaten gaitu berriz ere aldarrikatzerara bertako klase politikoak bere gain hartu behar dituela ondoko hiru puntuak: **Lurraldeetako hizkuntzen karta** berretsi, **Konstituzioa** aldatu eta euskararen **Ofizialtasuna** lortu. Helburu potoloak dira, dudarik gabe, baina baitezpadakoak nahi badugu eskolaz haratago gure hizkuntzak bere lurraldean zor zaion lekua har dezan. Molac legea onartzea posible izan bada, zergatik ez helburu hauek? Izan ere, Euskararen Erakunde Publikoak egiten duen lan balios eta beharrezkoa lorpen eskasekoa geldituko da legearen babes handiagoa eskuratzen ez duen bitartean.

Euskal hezkuntza nazionalaren alde

BIDEGAIN, Eneko

Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Euskaltzain urgazlea

Molac legea aipatu zenean, gertakari “historiko” gisa aurkeztu zuten hainbatek. Frantziaren menpe dauden hizkuntza gutxituentzat sekulako aitzinamendua izan bide zen. Frantziako Asanblea Nazionalak legea aurrera atera izana baino harrigarriagoak ziren, ordea, onarpen hark eragin zituen garaipen ospakizunak. Ez zen denboran biziki urrun joate beharrik jakiteko Frantziako Legebiltzarrean hizkuntza gutxituen alde hartu izan diren erabaki bakarrak laster baliogabetzen dituela Frantziako Konstituzio Kontseiluak.

Bat-batean, murgiltze eredua salbatua zelakoan bozkariatzetik mehatxatua dela salatzeri igaro ziren. “Gerla deklarazio” bat dela salatu zuten. Hastapeneko euforia eta ondorengo alarma, biak ziren neurritz kanpokoak. Frantziaren jokoak aspaldikoa da eta ez da aldatzen: hizkuntza gutxituei ez die emanen salbatzeko eta osasun onean egoteko behar duten neurririk; baina ezta hiltzeko behar duten azken piku-rik ere. Frantziak ez ditu bere menpeko hizkuntzak hilen; hiltzen utziko ditu. Zainketa palatiboak emanen dizkie, nahi duenak sinesteko gisan zer bait egiten ari dela hizkuntza horien alde.

Hizkuntzak izaki biologikoak balira bezala

2022ko otsailaren 16an hil zen yagan hizkuntza mintzo zuen azken herritarra, Cristina Calderon, 93 urteko emaztea. Hizkuntza hori Txileko hegoaldeko muturrean mintzo zen. Txileko telebista kate bateko bideoan ageri da zer ohoreak egin zizkieten agintariak: kultura ondarearen galeraren penaren erakusle izan zen. Hiru minututik gorako erreportajea ez da entzuten yagan hizkuntzako hitzik. Artxi- boko irudietan, Cristina Calderoni egindako elkarrizketa batzuetako zatiak ageri

dira, baina yagan hizkuntzako azken hitzuna izateagatik goraipatu zuten emakume hori espainolez ari da. Yagan hizkuntza grabatuta badago ere, ez dute ikusleei hizkuntza hura entzunarazteko funtsik ere hartu.

Frantziako agintariek eta hedabideek nola jokatuko lukete okzitanierazko edo korsikerazko azken hitzuna hiltzen denean? Dudarik gabe, Txilekoen antzera: hitz-tun horrek ohore anitz izanen luke, galdu denaren atsekabea erakutsiko lukete. Minutu bat iraunen lukeen pena. Itxurakeria. Nehor gutiri inporta zaio yagan hizkuntza desagertzea; eta Frantziari bost axola litzaioke bere menpe dituen hizkuntzak hizkuntza galduen zerrendara pasatzea.

Izaki biologikoak ez dira hilezkorrak; Cristina Calderon bezala. Amatxi xahar bat hiltzen denean, itxurazko penak adierazten dira, esker mezuak zabaltzen dira, hark egindakoa omentzen da... Baina denek badakite ehun urtera hurbildu dena ez dela luzaz egonen mundu honetan. Nehork ez du pentsatzen “zer pena, beste ehun urtez ez bizi izana!”.

Frantziak izaki biologiko baten pare ikusten ditu euskara eta gainerako hizkuntzak. Traba egiten zion bitartean, lekua hartu nahi zion bitartean, harrapari arriskutsu baten gisan oldartu zitzaion euskarari. Harrapakina ahuldu ahala, taktikak aldatu ditu. Orain, euskarak ez dio trabarik egiten; are gutxiago bretoierak, okzitanierak eta beste hizkuntzek. Baina oraino ere izaki biologiko baten gisan ikusten ditu: denborak -adinak?- hilen dituen hizkuntza gisa.

Euskara hain goraki laudatu zuen Victor Hugok berak ere antzekoa uste zuen. *En Voyages* liburuaren bigarren tomoan, euskara aberri bat, “ia erlijio bat”, dela dio, eta euskaldunek aipu hori azpimarratu eta goraipatzen dute. Haatik, horren ondoko paragrafoak beste kutsurik du: “Hain segur, batasun baskongada hori ahulduko da eta desagertuko. Estatu handiek jakin behar dute txikiak irensten; historiaren eta naturaren legea da”.

Hots, Frantziak eta frantsesek, euskara maitatu ala hastiatu, hizkuntza hilkorra dela uste dute; ez dute indarririk eginen hori hala izan ez dadin. Oldarkorrenek hiltzen lagunduko dute, irekienek eskutik helduko diote, bakean hil dadin; azken hantsa ematen ari den amatxiri bezala.

Hizkuntza gutxituen arteko elkartasunetik ezinezko estrategietara

Hori horrela izanik, euskararen salbazioa ekarri duten neurriak ez dira Frantziako

botereguneetako aretoetatik etorriko. Hara begira igarotzen den denbora esperantza faltsuak elikatzen galtzen da. Azken finean, itzuli-mitzuli, 2021eko abenduko zirkular baten bidez itxi zen auzia: gisa horretan, murgiltze ereduarekin jarraitzeko aukera izanen dute orain arteko ikastetxeek, baina ez da anitzez gehiago egin ahal izanen.

Orain, beste aldi batzuetan egin izan den bezala, Frantziako Konstituzioaren al-daketari begira jarri dira Molac legearen alde egin zutenak. Euskal Herri kontinentalean ere entzun dira konstituzio hori aldatzeko eskaerak, baina ez beharbada beste zenbait herri gutxitutan bezainbat. Baina Korsikan baino gehiago.

Azalpen logikoa du horrek. Konstituzio Kontseiluan errekurtsioa jarri zutenean, Corsica Libera mugimendu politikoak garbi adierazi zuen hasieratik ez zuela itxaropen handirik Molac legearen baitan, eta, beraz, ez zela harritu auzia Konstituzio Kontseilura igortzearekin. Eta horrela idatzi zuen: “Sail honetan, beste hainbate-tan bezala, aterabidea ez daiteke gure baitatik baizik etor. Gure etorkizuna eraiki dezagun, gure herria eraiki dezagun. [...] Korsikeraren xedea ez da eskualde hizkuntza minoritario bat izatea, baizik eta herri aske eta independente bateko hizkuntza nazionala”.

Azken urteetan, Frantziaren menpeko hizkuntza gutxituen alde Frantziako Lege-biltzarrerara eta Gobernura begira egin diren mobilizazioak edo lege proiektuak as-kapen nazionalerako mugimendurik ez duten edo mugimendu biziki ahula duten herrietatik bultzatu dira. Frantziaren menpeko hizkuntza gutxituak Frantziaren ondare gisa aitortzeko eta laguntzeko ahalegin hori egiten dutenek adierazten du-tena da beren herria Frantziako eskualde gisa ikusten dutela, eta beren hizkuntza Frantziako eskualde hizkuntza gisa. Ez gehiago.

Frantzia jakobino eta jakobinotasunean trinko horren aitzinean, hizkuntza gu-txitu guztiek batuta indar bat izan dezaketelako ustearekin, zenbait mugimendu batera egitea pentsatu zuten. Batasun horrek indar harremana ez du anitz aldatu, ordea. Euskaldunak Parisera begira jarri ditu, korsikarrek bezain ongi dakitelarik handik ez dela deus onik etorriko.

Nahiz eta hizkuntza gutxituen arteko elkartasuna ezinbestekoa den, hizkuntza-ren defentsarako estrategiak eta ekintzak nekez diseinatu daitezke elkarrekin, herri bakoitzak Frantziarekin duen lotura ez baita bera eta hizkuntza bakoitzaren egoera ez baita berdina. Elkarrekin, hizkuntzari eta kulturari buruzko ikerketa, soziali-

zazio eta aldarrikapen anitz egin daitezke. Bakoitzaren esperientziak besteentzat ere aberasgarriak dira. Baina arlo politikora jauzi egitea labainkorragoa da: herri batentzat maila apalegiko erronkak direnak beste batentzat handiegiak izan litezke.

Molac legeak Euskal Herria Parisera begira jarri du, herriz ere. Baina euskararen beharrak ez ditu Parisek aseko; eta, are gehiago, Molac legean zegoen botika ez da egokiena euskararen gaitza epe luzean sendatzeko.

Aterabidea Euskal Herrian, ez Parisen

Pertsona ororen osasun mentala (eta fisikoa) norbere askatasunean dago. Norberak bere baitatik atera behar du indarra, ezin du beste baten menpe egon: ez ekonomikoki, ez emozionaliki, ez materialiki... Gauza bera da euskararentzat eta Euskal Herriarentzat: mehatxuak mehatxu eta zailtasunak zailtasun, herriaren indarrean aurkitu behar du aterabidea.

Euskara Euskal Herri kontinentalean ahula eta mehatxatua bada ere, egoera anitzez makurragoa zatekeen Euskal Herri penintsularrik ez balitz. Euskal Herriko biztanleen % 90 bizi da Pirinioetatik eta Bidasotik hegoaldera; beraz, kuantitatiboki, euskal komunitate handiago baten parte dira Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako euskaldunak, eta horrek indar bat ematen du. Frantziak euskara lo-belarrarekin anesthesiatu nahi izan duen bezala, Espainiak makilakadaz egin dio eraso, eta horrek erresistentzia piztu zuen; eta erresistentzia horrek Ipar Euskal Herrian ere izan zuen eragina. Euskararen garapenerako baitezpadakoak diren tresna anitz hedadura eta indar horri esker izan dira: kulturaren garapena, argitalpenak, akademia, euskara batua, irakaskuntza, hedabideak, euskalgintzaren antolaketa eta abar. Euskal Herri kontinentalean euskarak eta euskalgintzak duten indarra zazpi probintzietako Euskal Herriaren ikuspegiari eta elkartasunari zor zaio, eta horri bakarrik. Parisek ez du deus eman, eta eman dituen porroskak herriaren antolaketa eta indar horren ondorioz baizik ez ditu eman.

Baina gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan ageri diren joera batzuen arriskuaz ohartzeko ere balio du lotura horrek. Demagun Molac legea aurrera atera zela eta murgiltze eredia anitzez gehiago zabalduko zela eskola publikoetan, zenbat denbora behar izanen ote zen ikastolen eredia auzitan jartzeko Frantziaren menpeko Euskal Herrian ere?

Errealitateak erakutsi du D ereduan ikaste hutsarekin bakarrik ez dela herri bat euskalduntzen. Duela zenbait hamarkada pentsatu zen haurrak masiboki euskaraz eskolatuz, euskararen arazoa konponduko zela. Anitz lagundu du, bistan da. Baina D ereduan ikasi duten ikasle anitz maila zinez apalarekin heltzen dira unibertsitatera. Euskararekiko atxikimendua ere horren araberakoa izan ohi da.

Kulturaren transmisioaren garrantzia

Gero eta ahots gehiagok dio irakaskuntza ez dela nahikoa herri bat euskalduntzeko, eta lan mundua ere euskaldundu behar litzatekeela, gutxienez. Euskaraz –gogoiz kontra eta kostata– ikasi dutenek zer gogo izanen dute euskaraz bizitzeko edo euskaraz mintzatzeko indarra egiteko, beren inguruak erdaraz funtzionatzen duela ikusten badute?

Auzia, dena den, ikastolatik kanpoko mundu horretan nagusitzen den hizkuntzatik harago doa. Irakaskuntzak haur euskaldunak sortu eta herria euskaldundu nahi badu (hori ote da espainol edo frantses eskola publikoaren helburua?), ikasleei eman behar zaie konpetentzia ez da linguistikoa bakarrik. Ikasleei ez bazaizkie ematen euskara ikasteari zentzia ematen dioten giltzak, erdaldun elebidunak baik ez dira sortzen, Joxe Manuel Odriozolak dioen bezala.

Giltza horietako bat –nagusia– kulturaren transmisioa egitea da. Ikasleei irakatsi (erakutsi) behar zaie euskara ez dela errorik gabeko hizkuntza bat, ez dela *habitus*ik gabeko herri baten mintzaira bat. Euskara bere testuinguruan irakatsi eta erakutsi behar zaie: Euskal Herriko kultura, bere zentzu zabalean, azaldu behar zaie. Hasteiko, Euskal Herriko historia eta geografia. Baina baita ere Euskal Herriko antolaketak soziala, soziopolitikoak, ekonomikoak, sozioekonomikoak, Euskal Herriko egoera soziolinguistikokoaren oinarriak eta abar. Bistan da, adin bakoitzari dagokionaren arabera, baina eduki horiek eman behar dira. Bestela, euskaraz irakasten zaie zer den frantsesa edo espainola izatea (gehiago jakin behar dute Frantziako eta Espainiako literaturaz, historiaz eta geografiaz, Euskal Herrikoaz baino).

Eta gaia espezifikoki kulturara ekarrita, euskal kultura ezagutarazi behar zaie, beren adierazpide guztietan. Batetik, oinarritzko ezagutza bat ziurtatu behar zaie: ez da normala Euskal Herrian eta euskaraz ikasi duen unibertsitateko ikasle batek sekula entzun ez izana Txillardegiren izena edo ez jakitea Xabier Lete nor zen. Bestetik, euskal kulturaren kontsumitzaile eta sortzaile (edo, behintzat, eragile) izanen diren

belaunaldiak sortu behar ditu hezkuntzak. Nola gozatuko dute euskal kulturaz, euskal kulturarekin harremanik ez badute? Nola jarraituko dugu euskal kultura zaharberritzen, gazteak beste parametro kultural batzuen arabera mugitzen badira?

Hezkuntza sisteman euskal kultura bigarren mailara kondenatzeak erran nahi du kultura hegemonikoa (frantsesa edo espainola, edo ingelesezkoa frantsesez edo espainolez) bihurtzen dela jaun eta jabe, kultura hegemoniko horretatik baizik ez direla haziko, kultura hegemoniko horrek itoko duela euskal kultura.

Herri honek euskal hezkuntza nazional bat behar du: edukiz eta antolaketaz. Hori ez daiteke etor Frantziako hezkuntzatik (“Hezkuntza Nazionale” deitzen duena Frantziak berak, eta euskaldun anitzek horrela izendatzen duena). Baina nekez eraiki daiteke, halaber, zatiketa administratiboaren araberrako antolaketatik. Eta hezkuntza parametro nazionaletan antolatzeak erran nahi du, baita ere, “publikoa” hitza beste era batera ulertzea. Hezkuntza arautuaren sare nazionala indartu behar da (ikastolen kontra zabaltzen ari den kanpaina hezkuntza nazional horren aurka ari da), eta horretarako, Euskal Herria bera gehiago batu behar da.

Erronka itzela da. Hezkuntza ez daiteke egon arautuko erakundeen esku bakarrik. Kulturaren eragiletza horretan, sektore guztiek esku hartu behar lukete: unibertsitateek, hedabideek, argitalpen zerbitzuek, kultura programatzaileek, eragileek, aisialdi zentroek eta abar. Gainera, zorionez, ikuspegi nazionalarekin eta kulturaren transmisioan lanean ari diren lagun eta eragile franko badago Euskal Herrian. Horien ikusgarritasuna eta horien guztien arteko antolaketa eta koordinazioa falta dira, beharbada. Hezkuntza nazional bat eraikitzeko edo sendotzeko proiektuak bultzatzeak, aldiz, jende anitz oihartzun gutxi lortuz egiten ari diren lan handi horren zabalkundea.

Baina egiturari buruzko erabakiak eta elkarlanak ere pentsatu behar dira: adibidez, aterabide iraunkor bat eman behar zaie Bidasoatik iparraldera ikasten duten unibertsitatean eta lanbide heziketan euskaraz ikasten jarraitzeko dituzten traba administratiboak.

Auzi politikoa

Nahi ala ez, auzi politikoa da. Herria nola ulertzen den, nola antolatzen den, nola egituratzen den eta herri hori zein norabidetan jartzen den erabakigarria da euskaldun osoak (ez erdaldun elebidunak) sortzerako garaian. Parisek sor litzakeen (baina sortuko ez dituen) murgiltze ereduko gelen alde egitea ere hautu politiko bat egitea da, alegia, kontzientziaz frantsesak diren euskal hiztunak (haien euskara maila izanen dena izanen dela) sortzearen aldekoa.

Euskararen biziraupena euskal kulturaren biziraupenean eta herri kontzientzian oinarritzen bada, kultura horren transmisioa bermatzen ez duen hezkuntza eredu baten alde egitea hautu politiko bat da. Hots, euskara salbatzen ez duen eredu baten alde tematzea ere hautu politikoa da, Euskal Herriaren pixkanakako itzaltzea bultzatzen duelako.

Beraz, zer erran Molac legeari buruz? Erronka ez dagoela hor. Eta Eusko Jaur-laritzan aztertzen diren hezkuntza araudi berriari dagokionez, gauza bera: euskal hezkuntzaren aterabidea nazionala (eta politikoa) izanen da edo ez da konponduko.

Molac legea Eskualdeko Hizkuntzen Ondarea Babesteari eta sustatzeari Buruzko legea ote da?

DUFAU LAKABERATZ, Aines
Euskaltzain urgazlea

2021eko apirilaren 8an, Frantziako Legebiltzarrak Molac legea onartu zuen, ofizialki *Hizkuntza gutituen ondarearen babesaz eta haien sustapenari buruzko legea* deitua.¹ Haatik, Konstituzio Kontseiluak 4. artikulua zentsuratu zuen, murgiltze eredia Hezkuntza Kodean sarrarazteko bidea moztuz.

Alta, murgiltze ereduaren ezagutza ofizialik gabe zer balio zukeen Frantziako hizkuntza gutituei buruzko bigarren lege horrek? Oroit gara lehen legea ere, Deixonne izenekoa, 1951n bozkatua (70 urte lehenago, beraz) hasierako helburuetarik urrun gelditu zela: doi-doia hizkuntza gutituen aipamena ahalbidetzen zuen eskoletan, nahi zuten ikasleentzat, eta batxilergoko hautazko gaietarik zen, baina ahozkoa bakarrik, eta punturik eman gabe, Danielle Albizu irakasle eta Ikas elkarteburu zenak eman lekukotasunaren arabera.²

Konstituzio Kontseiluaren erabakiaren kontrako protesta gisa, elkarretaratze handiak egin ziren 2021eko maiatzaren 29an, hunkiak ziren eskualdeetan, bereziki Ipar Euskal Herrian (9.000 bat lagun Baionan) eta Bretainian, *Pour que vivent nos langues* batasunak antolatuturik.³

2021eko ekainaren 30ean, Euskararen Erakunde Publikoko zuzendaritzako hautetsi ordezkari bat hartu zuten Parisen frantses gobernuako lehen ministroak izendatu Euzet/Kerlogot legebiltzar-misiodunek. Horiek hartu zituzten bestalde

1 LOI n° 2021-641 du 21 mai 2021 relative à la protection patrimoniale des langues régionales et à leur promotion. <https://www.legifrance.gouv.fr/dossierlegislatif/JORFDO-LE000041575354/>

2 <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/publicaciones/ikas-kultur-elkarte-baten-adibi-dea-ikas-association-culturelle-basque/art-21136/>

3 www.pourqueviventnoslangues.com

Eskolim sareko sei federazioen ordezkariak, erran nahi baitu murgiltze eredua erabiltzen duten Euskal Herriko Seaska, Bretainiako Diwan, Korsikako Scola Corsa, Okzitaniako Calendreta, Kataluniako La Bressola eta Alsaziako ABCM Zweisprachigkeit.

Azkenean, bazterren jabaltzeko edo, Frantziako Hezkuntza Ministerioak eskualdeetako hizkuntzei eta kulturei buruzko zirkularra zabaldu zuen 2021eko abenduaren 14an.⁴

Zirkular horrek murgiltze eredua irakaskuntza *metodo* gisa aipatzen du, erabil daitekeen *estrategia* gisa, pareko sistemaren ondoan (sail elebidunetako oren kopuru bera frantsesez eta hizkuntza gutituan); **ez du, ordea, murgiltze sistema eredu gisa aipatzen.**

Aitzinamendua ahula izanik ere, perspektiba berria ekartzen du horrek: ikastetxe orotan (publikoetan ere, beraz), euskarazko irakaskuntza indar daiteke, helburua delarik sail elebidunetako ikasleek eta haien familiek nahi izanez geroz, hizkuntza gaitasun maila bera lortzea frantsesez eta hizkuntza gutituan. Helburu hori zirkularrean ageri da.

Baina posible ote da ikasleek hizkuntza hein bera kausi dezaten frantsesez eta hizkuntza gutituan? Bestela errana, helburuen araberrakoak ote dira irakaskuntzak eskaintzen dituen baliabideak?

2021eko abenduaren 14ko zirkularraren arabera, sail elebiduneko gaitasun helburuak hauek dira hizkuntza gutituei dagokienez: A2+ maila 3. zikloaren bukaeran (lehen hezkuntzaren bukaeran), B1+ maila kolegioaren bukaeran (DBHren bukaeran) eta B2+ maila lizeoaren amaieran (batxilergora heltzean).

Bestalde, gaur egun hizkuntza eta kultura gutituei buruzko curriculumak eskas da: orainokoan falta dira urratsez urrats ikasleek ezagutu behar dituzten obren corpusak.

Are gehiago, lehian daude hizkuntza gutituak hedadura handiko hizkuntzekin (ingelesa, gaztelania...). Eta lehia horrek ez du barkatzen; hedadura handiko hizkuntzen nagusikoa indartzen du ttipien kaltetan.

Ondorioak ageri dira batxilergoko gai nagusia (*berezitasuna*, astean sei orenez

⁴Langues et cultures régionales. Cadre applicable et promotion de leur enseignement. <https://www.education.gouv.fr/bo/21/Hebdo47/MENE2136384C.htm>

lantzen dena) hautatzeko unean. Hizkuntza saileko *berezitasuna* hartu nahi duten ikasleek hautuan dituzte hizkuntza nagusiak (ingeleza, gaztelania, etab.) eta *eskualdeetakoak*, hala nola euskara.

Orotara, 2021-2022 ikasturtean, Iparraldeko hiru lizeotan baizik ez da euskara *berezitasun* gisa landu batxilergoan:

- Seaskaren Bernat Etxepare lizeoan: 15 ikaslek euskara hautatu dute, ingeleza 8k, gaztelania nehork.

- Uztaritzeko San Josep lizeoan: 8 ikaslek euskara hautatu dute, ingeleza 11k, eta gaztelania nehork.

- Donibane Lohizuneko Maurice Ravel lizeo publikoan: 15 ikaslek euskara hautatu dute, ingeleza 16k, eta gaztelania 4k.

Orotara Iparralde osoan 38 ikasle dira euskararen hautua egin duten ikasleak. Garaziko lizeo bakarrean (euskarazko lehen liburu inprimatuaren idazlearen herrialdean) ez du ikasle bakar batek euskara berezitasun gisa hartu; 24k, aldiz, ingeleza hautatu dute eta beste 4k gaztelania.

2021eko abenduaren 14ko zirkularrak dio Hezkuntza Ministerioak *eskualdeetako* hizkuntzen irakaskuntzaren sustatzea duela helburu, eta hizkuntzen planaren bitartez, hizkuntza aniztasuna sustatu nahi duela, atzerriko hizkuntza bizietan, eskualdeetako hizkuntza bizietan eta antzinako hizkuntzetan bermatuz. Halaber, frantses gazteek hizkuntzak hobeki menderatzea du helburu.

Errealitatean, ez ditu zuzentzen 2017ko erreformak kolegioetan eta 2019koak lizeoetan eragin makurrak.

Alabaina, sail elebidunik ez da gehiago lizeoetan, ikastetxe publiko zein pribatuetan.

Horretaz arranguratua da Europako Hizkuntzen Aniztasunaren Sustatzeko Sarea (npld.eu).⁵ Bere aldetik, Euskararen Erakunde Publikoak proposamen bat helarazi zion ministerioari 2021ean, Frantziak plantan ezarri nazioarteko sailen eta europar sailen ereduetan bermatuz. Baina arraposturik ez da izan, eta geroztik murgiltze sistemaren aurkako erasoak gertatu da.

5 Ikus <https://www.npld.eu/our-publications/>

Kolegio publikoetako sail *elebidunen* errealitatea zer den jakiteko, balio du 2021eko maiatzaren 28ko *Ipar Euskal Herriko Hitza* kazetan Euskara Geroan elkar-teko bi kidek (Laida Etxemendi eta Aitziber Zugarramurdi, biak kolegioetako irakasleak) eman elkarriketaren irakurtzea.⁶ Kolegioetan egiazko sail elebidunik (non oren kopuru bera den euskarazko eta frantsesezko irakaskuntzan) ez da orai-nokoan, salbuespenak salbuespen. Euskararen lantzeko oren kopurua ttipituz joan da 2015eko erreformaz geroztik, eta kolegioetan ere euskarak pairatzen du hizkuntza nagusien lehia.

Alta, argi da Seaskatik hara, eskola publikoetan eta pribatuetan ere haurren eus-kalduntzeko bidea lortu behar dela.⁷

Gainera, Hezkuntza Ministerioak 2021eko abenduaren 14an plazaratu zirkula-rrak gibelerara egiten du azterketen sailean. Horrek bultza bide ditu ikasleak eta haien irakasleak azterketetako gaiak frantsesez lantzera.

Solasez aitzina eta egintzaz gibelerara.

Funtsean, berez testu ahula izanik ere (ez da lege heinekoa), zirkularrak oroitaraz-ten du konstituzioaren 2. artikuluaaren arabera **frantsesa dela frantses errepubli-karen hizkuntza**. Horregatik, burasoen eta erakunde publikoekilako komunikazio hizkuntza frantsesa izan behar da.

Ororen buru, zirkular horrek Hezkuntza Ministerioaren helburua garbi uzten du: ***Eskualdeko hizkuntza bizi baten aztertzearik frantses hizkuntzarekin loturak egitera eramaten ditu ikasleak eta horrela frantsesaren hobeki menderatzen laguntzen du.***

Hizkuntzen aniztasunaren alde mintzo da 2021eko abenduaren 14ko zirkula-rra: testu horren arabera, Frantzia kontinentalean dozena bat hizkuntza hunkiak dira (euskara, bretoiera, katalana, korsikera, Britainiako galoa, okzitaniera, Alsa-ziako hizkuntzak, Moselako hizkuntzak, franko-proventzera, mendebaldeko flan-driera, Pikardiako mintzaira), itsasoz haraindiko lurraldeetako hizkuntzez gain.

Baina hizkuntza aniztasunaz 2022ko martxoaren 15ean Pauen antolatu zuen biltza-rean, Frantziak bere kezka nagusia erakutsi zuen: frantsesaren eragina ttipituz doa ingelesaren nagusigoarengatik.⁸

6 Ikus <https://iparraldekohitza.eus/2021/05/28/nahi-badugu-euskara-transmititu-behar-da-murgiltze-eredua/>

7 Ikus 2021eko maiatzaren 30ean Berria kazetak Iparraldeko euskarazko irakaskuntzaz egin artikulua.

8 <https://presidence-francaise.consilium.europa.eu/fr/actualites/conference-sur-la-diver->

Frantsesaren alde erabili argudioek ez dute balio bere ardurapeko hizkuntza gutituen tratamenduan. Funtsean, Frantziak ez du orainokoan berretsia Europako hizkuntza gutituen gutuna (Eurokarta).

1970eko hamarkadatik herri mugimenduen lan jarraikiari esker oraino bizirik daude Frantziako hizkuntza gutitu zenbait. Euskara horietarik da.

Mugarri gisa dugu Euskara Geroan sail elebidunetako irakasleen elkarteak eta Biga Bai buraso elkarteak 2017an eman prentsaurrekoa 2015eko kolegio erreformaren ondorio kaltegarriez ohartarazteko.

Bi urte lehenago, 2015ean, hiru sareetako irakasle eta buraso elkarteek, Ikasek, Iker zentroak, Iparraldeko unibertsitarioek eta Konfederazioak hezkuntza ministroari idatzi zioten salatzeko lurralde osoan euskal irakaskuntzaren eskaintza falta izateaz gain, funtsezko ahuleziak pairatzen zirela oraino bost alor hauetan:

-Ikasleek baxoraino eta zikloka erdietsi behar dituzten konpetentziak, jakitateak eta kultura helburuak.

-Helburu horietara heltzeko programak (curriculumak), sail orokorrean eta lanbide heziketan.

-Ziklo bakoitzaren bukaerako ebaluazio eta zertifikazio moldeak.

-Helburuen eta edukien araberako pedagogia tresnak.

-Irakasleen oinarrizko formakuntza eta formakuntza jarraikia.

Hezkuntza Ministerioari galdegiten zitzaion bost alorretan ari diren herri hizkuntzetako administrazio arduradunak eta eragileak (unibertsitate ordezkariak, sare bakoitzeko irakasle, buraso ordezkariak eta sindikatu ordezkariak) lehenbailehen bil zitzaion gibelatuak ziren sailen aitzinarazteko, normaltasunera heltzeko helburuarekin.

Frantziako gobernuari galdegiten zitzaion herri hizkuntzen irakaskuntza segurtatuko zuen lege bat lehenbailehen presta, bozkaraz eta aplikaraz zezan.

Galde horrekin batean Hezkuntza Ministerioari helarazi zitzaizkion funtsezko bi dokumentu, jendarte zibilak eta hautetsiek beharrezkotzat jo zuten hizkuntza politikaz:

-Hautetsien kontseiluarena: Contrat Pays Basque - Volet 2015-2016 – Commission Langue basque. 25 novembre 2014.

-Garapen kontseiluaren Atelier Langue basque - Note de travail – Mars avril 2014.

Baina, geroztik, salbuespenak salbuespen (irakasle titularren formakuntza 2016an eta euskal irakaskuntzari buruzko unibertsitate diplomaren sortzea 2019an) ageri da euskal irakaskuntzaren garapenaren murrizteko politika eramaten dela, kolegioaren erreformaren kariatara 2015ean, bide beretik 2019an lizeoaren erreformaren kariatara, eta ondotik murgiltze sistema legez kanpo ezarri nahian. Azkenean, lehen urteetako irakaskuntza osoki euskarazkoa izatea onartu da 2022an eskola publiko zenbaitetan ere. *Allegro ma non troppo*: euskaraz formatu irakasle batzuk frantsesez irakastera behartuak dira.

Frantziako hezkuntza saileko politika bortitzari buru ari izan behar den bitartean, indar anitz xahutzen da. Testuinguru horretan, euskara nola biziberri jendartean, eta bereziki alor sozioekonomikoan?

Adibide gisa, helduen euskalduntzeko sustapen ekintzak baliosak dira, eta ohargarria da 2021eko udazkenean Euskal Elkargoan egin zuen komunikazio kanpaina, baina gero baliabide faltaz, AEK-k ez zituen ikasle guziak hartu ahal izan. Alta, helduen euskalduntzea jokagai nagusietarik da:

-Haurren eskolatzean da hizkuntza politika oinarritzen gehienbat. Jende helduen parte bat buraso ere baita, familia transmisioa eskolakoarekin uztartuz eraginkorra izan daiteke.

-Formakuntza jarraikia dela medio, euskara laneko hizkuntza bihur daiteke.

-Iparraldean sortu jendea gutiengoan gara, eta urtero desoreka hori handituz doa, saldo handian heldu baitira gure herrian bizitzera Frantziako beste eskualdeetako jendeak, frantsesaren nagusigoa indartuz euskararen kaltetan.⁹ Kanpotik heldu jendeari berehala euskaraz eta euskal kulturaz jabetzeko bidea ematea premia handiko neurria da.

Klima aldaketaren kasuan bezala, badakigu bioaniztasunaren aldeko neurriak hartu behar direla; gisa berean hizkuntza eta kultura aniztasunaren alde.

⁹ <https://www.insee.fr/fr/statistiques/2011101?geo=EPCI-200067106>

Adibide gisa interesgarri da ikustea 1994ko urrian lau batasunek (Konfederazioa sortu baino lehen) –AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Pizkundea eta Seaska– plaza-ratu zuten *Deiadar: Euskararen agiria. Berehalako 40 neurri eta gomendioak*. Haietarik zenbat dira gauzatu?

Mugarri handia dugu Euskararen Erakunde Publikoaren sortzea 2014an. Hizkuntza politikaren diseinua egin zuen hiztun osoen sortzeko xedea lehenetsiz. Ondikoz, Euskaren Erakunde Publikoak ez du orainokoan eraman behar duen politikaren araberrako ahalik ukan: ez legez, ezta diruz ere (urteko aurrekontua 4 miliotan mugatua du).

Mugarri ere 2011/2012 urteetan, Garapen kontseiluak eta Hautetsien kontseiluak iradoki zuten Estatuarekin euskararen normalizatzeko esperientazio protokolo bat (*régime dérogatoire*) negoziatu behar zela, euskarari “koofizialtasun” estatua emanez.¹⁰

Kari horretara, Garapen kontseiluak eta Hautetsien kontseiluak (Ipar) Euskal Herri mailako erakundeen beharra azpimarratu zuten (*Lurralde elkargo berezia*), herrialdeko desfioei buru egiteko, eta bereziki hizkuntza sailean. 2017tik gisa horretako elkargoa bada Iparraldean, baina koofizialtasuna aipatzen ote da hartan?

1996tik bost urtez egiten diren inkesta soziolinguistikoek euskararen egoera kezagarria erakusten dute beti, halaber kale neurketek,¹¹ UNESCOk dioena baieztatuz: euskara itzaltzeko arriskuan da Iparraldean. Bestetik, orainokoan inkestek erakusten dute euskararen aldeko tirria, zorionez.

Iparraldean ez da gehiago euskararen eremu trinkorik, uharte(txo)ak baizik. Ura goiti ari da, eta arduradunek segitzen dute laudatzen eramaten ari diren *politika boluntarista*.

10 (Ipar) Euskal Herriko Garapen kontseiluaren lan txosten baten arabera (Note de travail – Lan txostena, Mars-avril 2014 – 2014ko martxoa-apirila – Atelier 7, Langue basque Réunion n°3).

11 Ikus <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketak-euskal-herria-2021-2/>

Kronika

UBEDA, Garbiñe
Kazetaria

Molac legea, Frantziako Kontseilu Konstituzionalak oztopatutako ahalegina baino gehiago, zedarri bat izan da eskualdeetako hizkuntzen aldeko mugimenduan. Urratu duen bidea -2020ko abenduan Senatutik osorik pasa ostean, gehiengo zabal batek onartu zuen Asanblea Nazionalean-, “miragarri” ez ezik, “une historiko” gisa ere deskribatu zuen **Paul Molac**-ek berak, eta 60 diputatuk jarritako helegitearen ondorioz eten den arren, gaiaren gaineko iritzi publiko orokorra “erabat irauli” dela frogatzen du, “hizkuntzak isilarazi nahi dituen politikarik ez delako jada ulertzen, ezta frantses elebakar diren eskualdeetan ere”.

Frantziako Legebiltzarrak *Molac* legearen bi artikuluko jo zituen konstituzioaren aurkako. Hain zuzen, laugarrena, edo hezkuntzako murgiltze ereduari buruzkoa, eta bederatzigarrena, estatu zibileko dokumentuetan “ñ” eta gisako ikur diakritikoen erabilera arautzen duena. Azken horrek aise ilustratu du estatuaren zentzugabezeria iritzi publikoaren aurrean, Paul Molac diputatu bretoiaren ustez: «“Klima al daketa, emigrazioa... egundoko arazo latzak ditugu eskuartean, eta zuek markatxo bat debekatzeko borrokan tematuta?” galdetzen diete harrituta herritarrek».

Murgiltze eredua gelditzea, berriz, “Jean-Michel Blanquer Hezkuntza ministroaren tema” izan zela nabarmendu zuen, “hain zuen, gizon bakar baten borondatea, tekno-elitearen laguntzaz aurrera eramane zena”. Izan ere, eskualde hizkuntzen babeserako legea konstituzioaren aurkako jotzeko manerek eta prozesuak berak, irregulartasunez josia izanik, “estatuaren totalitarismoa” jarri du agerian Molacaren esanetan, eta halaber, “XXI. mendea XIX.etik ateratze gabe gidatu nahia”, Frantziako Iraultzaren ondorio baita “fanatismoa euskaraz mintzo da eta askatasunaren hizkuntza frantsesa da” dioen sineskeria. Beste horrenbeste esan liteke “eskualdeetako hizkuntza-eskubideak aipatu eta jarraian separatismoa ahotan hartzeaz ere”. Azken finean, “ikuspegi politiko hutsez, oinarri juridikorik gabe” bota zen atzera legea, mintegian zientifikoki frogatu zenez.

Ideologia jakobinoa eta paradoxak

Zentzugabekeriak hizpide hartuta, Kontseilu Konstituzionala eragindako paradoxa-egoerak aletu zituen **Eneritz Zabaleta** Zuzenbidean doktoreak. Besteak beste, Ipar Euskal Herrian gertatzen den egoera bitxia aipatu zuen: “Batetik, euskaraz ikasi ahal izateko aukera eskola guztietara hedatu behar da, eta era berean, murgiltze sistemak eskaintzen duen aukera ezbaian jarri da”. Bigarren paradoxa bat ere bada, hari beretik: “Legean sartu delako, hainbeste urtean martxan izan den sistema pedagogikoa ukatua izan da, baina bestalde, urtero txostenak egin beharko zaizkio Legebiltzarrari, Seaskaren edota murgiltze eredia eskaintzen duten sareen eta ikasgelen egoera zertan den azaltzeko”.

Hirugarren paradoxa bederatzigarren artikulua atzera bota izanagatik dator: “Frantsesa inposatuagatik ere, itzulpenak egin ahal izatearen printzipioan oinarrituz garatu eta legeztatu da seinaleztatzeko elebiduna azken 30 urteotan, eta orain, Kontseilu Konstituzionalaren erabakiz justuki, ezin dira zeinu diakronikoak erabili”.

Frantsesarenak ez diren ikurrak debekatzeko interpretazio “oso hertsia” egin dela esplikatzen duen Zabaletak, “nahi izanez gero, jurisprudentziarekin bat datorren bidea ere hauta zitekeelako”. Alegia, “ñ”-a eta enparauak, Robert hiztegiaren ageri direlako edota estatuak berak izendapen ofizialetan erabili izan dituelako, “frantsean sartu direla eta dagoeneko frantsesak direla azaldu zitekeen, erran nahi baita, nazionalizatu zitezkeela nolabait, konponbide praktikoa hori batzuek sobera gus-tuko izango ez zuten arren”.

Murgiltze ereduaren aurkako epaiak, “arrazoitu ez den arrazoinamendua” eman izana nabarmendu zuen. Epailleek analisi juridikoak, politikoak, sozialak eta bestelakoak idazten dituzte epaietan, hau da, “mota askotako hamaika argumentu baliatzen dituzte, haien erabakiak justifikatzeko”, baina kasu honetan arrunt bestela jokatu da. Bi gauza besterik ez dira esaten, Zabaletak dioenez. Alegia, “murgiltze pedagogikoan komunikazio hizkuntza ez dela frantsesa, batetik, eta bestetik, erakusten den hizkuntza ere ez dela frantsesa”. Murgiltze eredia konstituzioaren aurkako jotzeko arrazoinamendua, hain zuzen, bi puntu horietan datza, baina horrek “ez du zehazten non den arazoa”, eta beraz, “ez dago jakiterik juridikoki nondik jo litekeen egoera gainditu ahal izateko”.

Paradoxaren paradoxa

Jean Castex Frantziako lehen ministroak aferari aurre egiteko bi parlamentariri agindutako txostena ere hizpide hartu zuen Zabaletak. Lehen zatian epaiaren eta pedagogien interpretazioa egiten dela dio. Baikor izanik, murgiltze eredua “konstituzioan bermez” sartu ahal izango omen litzateke txostenaren arabera, eta ondorio horretara iristeko errealtate gordinari heltzen omen zaio, esanez murgiltze ereduaren diren haurrak ez direla beti euskaraz ari, hortaz, “nola justifikatu hizkuntza inposatzen zaienik, ikasgelan nahiz jolas garaian frantsesez ari badira?”.

Txostenaren bigarren zatiak murgiltze eredua legean sartzeak dakartzan eragozpenez dihardu, eta “hala eginez gero, epaileen interpretazioaren esku” geratuko litzatekeela ondorioztatzen da. Interpretazioa ekiditeko ahaleginean asma litekeen zeharbide oro, bestalde, “izan zirkularrak, hitzarmenak edo dena delakoak, legezkotasunaren kontrolpetik pasa beharko lukete azkenerako”. Hortaz, txostenean ez dago aterabiderik Zabaletaren aburuz, eta “konstituzioa aldatu ezean ziurgabetasuna baino ez dago”.

Ondorio berera iritsi ziren bai Paul Molac diputatua bera, bai eta gainerako parte-hartzaileak ere, Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak antolatutako mintegian. Halaxe mintzatu zen **Mathieu Bergé** Akitania Berria eskualdeko kontseilaria, bere burua elebitasunaren militante jo ostean: “Errepublika ez da Frantzia. Errepublika kontratu sozial bat da, elkarrekin dugun proiektu komun bat, eta hizkuntzek muinean egon behar dute”. Haren ustez, kontratu sozialarekin ez da artean erabat asmatu, “ideologia jakobinoaren hondarrek hor jarraitzen dutelako, ideologia bakar gisa”. Alabaina, Max Brisson senatarien arabera, “egia da, indar politikoak gizartean ez bezala borrokan ari direla maila gorenean, baina jakobinoek ez dute beti irabaziko, separatismoa aipatuta tentsioa eta histeria eragiten duten arren”. Senatariak “aitzinatzen ari gareneko ustea” azaldu zuen, gogora ekarriz, hautetsiak mintzatu direla jada: “Blanquerrek ulertu ez duena da atzera egitea ez dela posible izanen”.

Eta hala ere, aitzina

Halaxe da. Konstituzioaren aurkako jo ostean eta ziurgabetasun osoan gelditu izanagatik ere, irailean bi gela berri zabaldu dira sare publikoan eta beste lau sare pribatuan, Ipar Euskal Herrian. Behin-behinean, “afera zirkular baten bidez”

konpondu nahi dela aipatu zuen Euskal Erakunde Publikoko lehendakari **Antton Curutcharry**: “Aski kontent atera gara bilkuretatik, baina parean diren funtzionarioak ez dira gero erabakiak hartuko dituztenak. Orogen buru, oinarritzko galdera etorriko da beti, alegia, zer egingo dugun konstituzioarekin”.

“Funtzionario horiek arazoa zinez politikoa dela konprenitu dute” gehitu zuen **Peio Jorajuriak**, “eta zentzu horretan, erantzunak ere politikoa izan behar duela”. Seaskako lehendakariak gizartean gertatu den aldaketari eskaini zion arretarik handiena: “*Molac legea* defendatzera joan gara, jakinik ez zigula deus berririk ekarriko Seaskakooi. Baina borrokatu gara, hemen, Hiriburuko eskolaren inguruan nahiz Parisen, mobilizazio guztietan, elkarrekin; hautetsiak, herritarrek, sare publikoko eta pribatuetoako eskolak eta Seaska, den-denak batera”.

Ildo horretatik beretik urrunago jo zuten Paul Molac-en azken hitzek: “Gutxiengoak elkartuz gehiengoa gara eta zaila egingo zaie horri kontra egitea”. Berea “itxaropen mezua” dela gehitu zuen eta esaldi biribil batez akuilatu zituen denak prozesuari berriz ere martxa ematera: “Legea egin nahia denbora galtzea dela esan izan didate askok, baina aurrera eramaten ez diren borrokek, horiexek dira benetan galtzen direnak”.

Etsitzetik urrun, **Jean-Réné Etchegaray** Euskal Hirigune Elkargoko lehendakaria ere aurrera jo beharraz mintzatu zen. Frantzia Turkiarekin parekatu eta biak ala biak Europan hizkuntzen karta sinatu ez duten herrialde bakarrak direla nabarmendu ondoren, paradigma aldaketa aldarrikatu zuen, “frantses instituzioak esklerosiak jota daudelako”. “Denbora galtzeari utzi” eta azkar batean egin beharreko urrats bat proposatu zuen, aitzina egiten lagunduko duelakoan: “Lehendakaritzarako hauteskundeak badatoz, aldarrika dezagun gaia, bultza ditzagun hautagaiak posizioa hartzera, afera honen aurrean zer postura duten argi eta garbi erratera”.

Agiriak

Euskaltzaindia. Batzar-agiriak

Osoko bilkura

Donostian, Tabakalerako Kutxa Kultur aretoan

2021eko urtarilaren 29an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Gonzalez de Viñaspre, Roberto,
diruzaina,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun,
zegozkion gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia
Arkotxa, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”,
Beñat Oihartzabal, Andoni Sagarna eta
Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek ahala Miren Azkarateri; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Donostian, Tabakaleran, Kutxa Kultur aretoan egin da, 2021eko urtarilaren 29an, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urtarileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2020-12-18) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman du P. Zabaleta euskaltzainak ohar bat bidali duela. A. Urrutiak bestelako oharrik egin nahi den galdetu du. Inork ez du oharrik egin.

Segidan, P. Zabaletak bidalitako oharra onartzen den ala ez jakiteko, bozketa egin da eta emaitza ondoko hau izan da: aldeko botoak 2, ezezekoak 16 eta zuri 5. Ondorioz, 2020ko abenduaren 18ko Osoko bilkurako bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduen oharrak (XXV). Aurkeztu.

Aztergai honi dagokionez, M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak azaldu ditu A. Iñigo eta X. Videgain euskaltzainek aurkeztutako iruzkinak, bai eta Batzorde Ahaldunduak emaniko erantzun arrazoituak ere.

Aurkezpenaren ondoren, otsailaren 15a arteko aldia ireki da oharrak egiteko.

3. Euskalkien sailkapen berria. Argibideak.

Gai honen harira, X. Videgain eta B. Oihartzabal euskaltzainek 2020ko abenduaren 18ko Osoko bilkuran zenbait iritzi azaldu zituzten, idatziz, 2020ko azaroaren 27ko Osoko bilkuran esandakoak hizpide hartuta. Gaia 2021eko urtarrileko Osoko bilkuran aztertzea erabaki zen.

A. Urrutia euskaltzainburuak azaldu du Euskaltzaindia ahalegindu dela *Euskalkien sailkapen berria* liburua argitaratu duen erakundearekin, UPV-EHUrekin, alegia, Euskaltzaindiaren jabetza intelektualaren eskubideak jagon eta babesten. Eta horretarako, UPV-EHUrekin idatzizko adostasuna lortu du. Izan ere, argi dago EHHA obra nagusia lan kolektiboa dela legez eta horretako datuak ezin direla erabili Euskaltzaindiaren berariazko baimen idatzirik gabe, aipamen-eskubideez landa.

Zuzendaritzak gai honi buruz, 2021eko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, proposatu du Osoko bilkuraren agirian adierazpen bat jasorik uztea, afera hau trenkatzeko xedeaz. Testua E. Osa idazkariordeak irakurri du. Hauxe da adierazpena:

“1. EHHA egitasmoa lan kolektiboa da eta Euskaltzaindiari dagokio horren jabetza oso eta bakarra. Urte luzeetan bilduriko datu-basea eta argitalpenak berari dagozkio eta jabetza duenaren idatzizko baimenik gabe ezin daitezke eurok erabili, aipamen-eskubidea izan ezik.

2. Euskaltzaindiak berariaz eskertzen du EHHA egitasmoan partaide izan diren eta diren guztien lana: zuzendari, arduradun eta teknikari guztiena.

3. Euskaltzaindiak aurrerantzean ere lanari ekingo dio dialektologiaren arloan eta, arlo horretan zein bestelakoetan bideratu beharreko lanak gauzatzerakoan, euskaltzain oso guztiei galdetuko zaie iritzia eta nork bere ekarpenak egin ahal izango ditu, orain artean bezala, aurki izango diren XXI. Barne-jardunaldietan”.

P. Zabaleta euskaltzainak eskaera bikoitza egin du: batetik, EHUrekin izenpeturiko hitzarmenaren kopia izatea eta, gaiari buruz txosten juridikorik egin bada, horren kopia ere bai, eta, bestetik, bilera-agirian eskari horiek egin dituela jasorik gelditzea. Beraren iritziz, dokumentu horiek ez dira isilpekoak eta euskaltzainek esku artean izateko eskubidea dute. A. Urrutiak erantzun dio euskaltzainek irakurtzeko eskubidea dutela, baina ezin dela kopia idatzirik atera, isilpekoak direlako hain zuzen, Barne erregelen 27. artikuluaaren arabera.

S. Aleman euskaltzainak hitza hartu du eta 2020ko urtarrilaren 23an eta ondoren, eginiko urratsak azaldu ditu. Hartara, adierazi du Zuzendaritzaren adierazpenak barruratzen dituela X. Videgainek abenduaren 18an eginiko eskariak. M. Azkarate euskaltzainak aditzera eman du EHUren Argitalpen zerbitzuaren buruak ez daukala Euskaltzaindiaren copyrighta urratu izanaren usterik. A. Urrutiak erantzun dio, azaroko Osoko bilkuran azaldu zen moduan, kontua dela Euskaltzaindiaren jabetzapeko lan kolektibo baten funtsezko datuak erabili direla Euskaltzaindiaren baimenik gabe.

A. Urrutiak X. Videgaini galdetu dio ea abenduaren 18ko Osoko bilkuran eginko eskariei eusten dien eta botoetara eraman nahi dituen. X. Videgainek erantzun dio ez duela eskatzen botoetara eraman dadin. Horrela, euskaltzainburuak Zuzendaritzaren proposamena onartzen den galdetu du.

P. Zabaletak, Arautegia aipatuz, adierazi du axola handikotzat jotzen ez diren auziak hurrengo batzarrerako laga daitezkeela eta hala egitea eskatu du. A. Urrutia euskaltzainburuak gaia axola handikoa dela erantzun dio eta, Arautegiak aitortzen

dizkion eskumenak erabiliz, eskatu du gaia trenkatzea eta erabakia hartzea. Horrela, Zuzendaritzak eginiko proposamena bozkatu da. Emaidza honako hau izan da: alde 17 boto, kontra 2 eta 4 zuri.

B. Oihartzabalek, 2020ko abenduaren 18ko eta 2021eko urtarrilaren 29ko osoko bilkuretara hurreratzetik izan ez duenez, bere horretan utzi dira 2020ko azaroaren 27ko Osoko bilkuraren bilera-agiriaren harira azaldu zituen iritziak.

4. Esku artekoak.

4.1. M. L. Oñederra euskaltzainak Noticias Taldeak ematen duen Ortzadar Saria jaso du. Golar do horren bidez, Noticias Taldeak "urteetan euskal literatura eta kulturaren alde eginiko lan eskerga" aitortu nahi izan dio.

Zorionak jaso ditu Osoko bilkuraren izenean.

4.2. P. Rekalde euskaltzainak eginiko eskaria, sarrera-hitzaldia atzeratzea eskatuz. 2020ko azaroaren 27an eginiko Osoko bilkuran, Euskaltzaindiaren 2021eko egutegia onartu zen. Egutegi horretan, P. Rekalde euskaltzainaren sarrera-hitzaldia egiteko Ageriko bilkura 2021eko maiatzaren 29an egitea erabaki zen. COVID-19ak eragindako izurritearen bilakaera kontuan hartuz, P. Rekaldek 2021eko urtarrilaren 6an gutuna igorri zuen Zuzendaritzara eta sarrera-hitzaldia urtebetez atzera dadin eskatu zuen. Zuzendaritzak, 2021eko urtarrilaren 13an eginiko bilkuran, eskaria aintzat hartzea eta Osoko bilkurari aditzera ematea erabaki zuen.

Ondorioz, 2022ko egutegian P. Rekalde euskaltzainaren sarrera-hitzaldia egiteko Ageriko bilkura jasoko da.

4.3. XXI. Barne jardunaldiak. A. Urrutiak azaldu du, XXI. Barne jardunaldiak aitzinatzen joateko, Zuzendaritzak euskaltzainei ekarpenak eskatu nahi dizkiela ondoko gaiei buruz:

Batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuen 2021-2024 aldirako lehentasunak, egitekoak eta gidalerroak, eta Euskaltzaindiaren Arautegian eta Barne erregeletan proposatzen diren aldaketak.

Fase honetan, proposamenak egin ahal izango dira otsailaren 19a arte. Proposamenak jaso ondoren, Zuzendaritzak aztertuko ditu batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuen arduradunekin, barne jardunaldien aurretik.

4.4. Akademien arteko adierazpena. 2020ko abenduaren 18ko bilkuran erabaki zen euskaltzainei bilera horretan banaturiko idatziari oharrak egiteko epea irekitzea (urtarrilaren 21 arte). P. Rekalde euskaltzainak iruzkin ortografiko txiki batzuk egin dizkio eta Zuzendaritzak onetsi ditu. Zuzendaritza gainerako Akademiekin adierazpen bateratua kudeatzen eta ontzen saiatuko da, eta emaitzaren berri eman-go dio Osoko bilkurari.

4.5. Hurrengo bilkurak. Otsailaren 26an, ostiralean, 10:00etan, egingo da Osoko bilkura Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, izurriteari aurre egiteko herri-erakundeek hartzen dituzten erabakiek aukera ematen duten neurrian.

Azken ordukoak.

P. Zabaleta euskaltzainak eskatu du 2020ko kontuen itxierari eta 2021eko aurrekontuei buruzko informazioa. A. Urrutiak aditzera eman du 2020ko kontuen txostena egiten ari direla eta 2021eko herri-erakunde batzuetako aurrekontuak onartu gabe daudela. Beraz, eskaria jaso eta gaiari buruzko informazioa emango da Osoko bilkuran, aurreko urteetan egin den bezala.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:15 direnean. Ondoren, 2019. urtearen hondarrean eta 2020an zehar hil diren euskaltzain emeritu, ohorezko eta urgazleak omentzeko asmoz antolatu den Ageriko bilkurara hurreratu dira euskaltzainak.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, Tabakalerako Kutxa Kultura egoitzan

2021eko urtarilaren 29an

Batzar-agiria

Donostian, Tabakalerako Kutxaren Kultura egoitzan, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, 2019. urtearen bukaeran eta 2020an zehar hil ziren Juan Antonio Letamendia, Jean-Baptiste Etxarren eta Angel Ibisate euskaltzain urgazleen, Pierre Andiazabal ohorezko euskaltzainaren eta Joan Mari Torrealдай euskaltzain emerituaren hilberri txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos euskaltzainburordea, Adolfo Arejita idazkaria, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Miren Azkarate, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Paskual Rekalde, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren, Miriam Urkia, Xarles Videgain eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Xipri Arbelbide eta Paulo Agirrebaltzategi.

Euskaltzain urgazleak: Koldo Artola, Elena Martínez de Madina, Jose Antonio Mujika, Elixabete Perez Gaztelu, Patri Urkizu eta Luis Mari Zaldúa.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi arduraduna eta Ibon Usarralde egitasmoen bateragilea.

Ander Aizpurua Kutxa Fundazioaren zuzendari nagusia, Nekane Arzallus Donostiako lehen alkateorde eta Hirigintza Jasangarriko zinegotzi eskuordetua eta Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendaria.

Euskaltzaindiko langileak: Manu Gañan eta Maixa Goikoetxea.

Gaur omenduriko euskaltzainen hainbat senide eta lagun.

Tabakalerako ekitaldia Joxan Goikoetxea musikariak eta Klara Mendizabal abesla-

riak girotu dute. Ekitaldia, Goikoetxeak berak moldatutako Xabier Leteren hitzak dituen *Nafarroako azken erreginak Donapaleun* abestiarekin hasi da.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak etorririkoak agurtu eta ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ditu. Gauzak horrela, gogorazi du ohikoa dela Euskaltzaindiak, urteko lehenbiziko Osoko bilkuraren ondoren, aurreko urtean hil diren euskaltzainak omentzeko ekitaldia egitea. Ondoren, Ander Aizpurua Kutxa Fundazioaren zuzendari nagusiak, Nekane Arzallus Donostiako lehen alkateorde eta Hirigintza Jasangarriko zinegotzi eskuordetuak eta Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariak hitza hartu dute. Guztiek azpimarratu dute joandako euskaltzainek, zeinek bere eremuan, eginiko ekarpena eta euskara biziberritzeko eginiko ahalegina.

Erakundeetako ordezkarien hitzak entzun ostean, J. Goikoetxea musikariak eta K. Mendizabal abeslariak Goikoetxeak moldatutako eta Xabier Leteren hitzak dituen *Jardin bat zuretzat* pieza interpretatu dute.

Ondoren, Jose Antonio Mujika euskaltzain urgazleak irakurri du Juan Antonio Letamendia (Donostia, Gipuzkoa, 1940 – Hondarribia, Gipuzkoa, 2019) euskaltzain urgazlearen hilberri-txostena. Mujikak Letamendiaren ibilbide osoa berrikusi du, baina bere profila labur zehaztu du hitzaldiaren hasieran: “Gaztetan euskaldunduta, emaitza bikainak eskaini zituen euskalgintzan: idazle hasieran; irakasle gero, metodogile trebe; itzultzaile eta ikertzaile ere izan zen neurri batean; eta euskarazko komikigintzan ere ale bikainak eskaini zituen”. Adibide gisa aipatu zituen, besteak beste, euskara ikasteko berak ezarri zuen *Jalgi Hadi* metodoa, *Bakarka* saila –lehen hiru liburuak Letamendiak egin zituen–, edo Euskaltzaindian eginiko lan eskerga, batez ere, Dialektologia batzordean.

Ondoren, Jean-Baptiste Dirassar ohorezko euskaltzainak idatzitako testua irakurri du J.-B. Coyos buruordeak. Bertan, Jean-Baptiste Etxarren (Donazaharre, Nafarroa Beherea 1928-2020) euskaltzain urgazlearen izena eta izana gogoratu ditu Coyosek irakurri duen hilberri-txostenean: “Euskal ondarea maite zuen, idazle fina zen, euskaraz ala frantsesez berdin trebe, gazteleraz ere bai (...) “Euskal Herria zuen maite, eta bereziki Nafarroa. Mugaren bi aldetan txoko gehienak ezagutzen zituen”. Dirassarrek gogoratu du Nafarroako historia jorratu zuela batez ere Etxarrenek: “Ikerketa sakonak akuilatu zituen lehengo bizimoldeez, lehengo lanez eta gainera-tikoez. Nafar guztien arteko elkartasunaren sustatzaile porrokatua izan zen”. *Herria*

astekarian publikatu zuen artikulua ugari, “biziki interesgarriak”, eta zenbait liburu argitaratu, tartean, *Luzaiden gaindi* (Elkarlanean, 2002-2009).

Elena Martínez de Madina euskaltzain urgazleak Angel Ibisate (Gasteiz, Araba 1932-2020) euskaltzain urgazlearen bizitzako pasadizoak irakurri ditu Tabakaleran. Esan du “gasteiztar petoa” zela, eta “trebetasun eta adimen handiko gizona”. Arabako AEKren sortzaileetarikoa izan zen Ibisate, eta urte askotan Gasteizko Elizbarrutiaren Seminarioko bibliotekari. Orduan hasi zen haren ikerketa-lana, “artxibategiko inkunableen ezagutza izugarria zuela”. “Zehatza eta zorrotza zen datuen bilketa-lana egiterakoan”, adierazi du Martínez de Madinak, eta idatzi zituen artikuluen zorrotzasuna nabarmendu du. Eta artikulua bitxi bat aipatu du: *Fórmula del Juramento en Álava en el siglo XVI (El testimonio de Fray Juan de Victoria)*. Idazlan horretan, Araban erabiltzen zuten zin egiteko euskarazko esamoldea agertu zuen Ibisatek: “Bai, ziertu (Vay čiertu)”. Gainera, eta euskaltzain urgazleak esan duenez, “iturrien ezagutza handiari esker, beste autore batzuen lanak datu berriez hornitu zituen Ibisatek”. Hori bai, hilobira eraman zuen sekretu bat: inori ez zion inoiz esan zergatik ekin zion euskara ikasteari: “Nire sekretua izango da, betiko”, esan zuen hil aurretik eginiko elkarriketa batean.

Xipri Arbelbide ohorezko euskaltzainari egokitu zaio Pierre Andiazabalen (Urruña, Lapurdi, 1923 – Kanbo, Lapurdi, 2020) apaiz eta itzultzailearen biografia aletzea. Arbelbidek adierazi du garrantzi handia izan zuela meza euskaraz ematearen aldeko mugimenduan: “euskarazko liturgiaren aita izan zen”. Horrela, 3.000 orrialdetik gora itzuli zituen, *Othoizlari* aldizkarian publikatu zirela gehienak. “Pierri zor diogu, besteak beste, eliza guztietan dozena mila aletan zabaldua dagoen *Igandetan Elizan* liburuxka, mezako otoitz eta kantuekin hornitua”. *Lapurdi Irratian* ere ibili zela gogoratu du Arbelbidek, baita *Herria* aldizkarian ere. Eta Txillardegiren gidaritzapean egin ziren Euskal Idazkaritzako batzar bat bera ez omen zuen galdu. Gogoratu behar da 1964an Idazkaritza horretan landu zirela beranduago Arantzazuko biltzarrak hartuko zituen erabakiak.

Eta, azkenik, Paulo Agirrebaltzategi ohorezko euskaltzainak Joan Mari Torrealдай (Forua, Bizkaia, 1942 – Usurbil, Gipuzkoa, 2020) euskaltzain emerituaren ibilbidea izan du gogoan. Gauza guztien gaineratik, Torrealдай “euskal kulturaren gidaria eta behatzailea” izan dela esan du Agirrebaltzategik. “Kazetaria, idazlea, irakaslea, ikertzailea, kultur sustatzailea (...) Zenbait aldizkariren zuzendari (*Gure Izarra*, *Anaitasuna*, *Jakin*) eta kudeatzaile (*Euskaldunon Egunkaria*, *Jakin*) izan zela gogoratu du.

Produktzio izugarria utzi zuen, langile aparta zenez: “Liburuak eta artikulak zabal eta ugari: 24 liburu, 47 lankidetza, 517 artikulua, 3 itzulpen-lan, 2 edizio-lan... 13.614 orrialde denetara”, zehaztu du bere hitzaldian ohorezko euskaltzainak. Torrealdaik Euskaltzaindian egin zuen lana ere ez du ahaztu Agirrebaltzategik. Argitalpen-batzordeko kide eta Azkue liburutegiko bibliotekari akademiko izan zela gogoratu du, baita Euskaltzaindiaren historia idatzi zuela ere, Imanol Muruarekin batera...”.

Mintzaldiarekin amaitzeko, hitza hartu du A. Urrutia euskaltzainburuak. Zendutako euskaltzainek euskara eta euskal kulturarekiko erakutsi zuten “konpromiso irmoa” azpimarratu du Urrutiak, eta goraiatu du euskara eta euskal kultura sustatzeko guztiek egin zuten ahalegin “izugarria”, eginiko ekarpen azpimarragarria.

Ekitaldiari 13:00etan amaiera eman zaio J. Goikoetxeak eta K. Mendizabalek interpretatutako Pedro Mari Otañoren *Donostiyako ziudadia* kantuari eta A. Urrutia euskaltzainburuaren esker oneko berbeekin.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Egoitzan, 2021eko otsailaren 26an

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Roberto González de Viñaspre, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Beñat Oihartzabal, Andoni Sagarna, Patxi Salaberrri, Ana Toledo eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala (iritsi bitartean) Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek

ahala Miren Azkarateri; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi Salaberrrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Bilbon, Egoitzan egin da, 2021eko otsailaren 26an, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, otsaileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2021-01-29) bileragiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman du X. Videgain eta P. Zabaleta euskaltzainek ohar bana bidali dutela. A. Urrutiak bestelako oharrik egin nahi den galdetu du. Inork ez du oharrik egin.

Segidan, X. Videgainek bidalitako oharra aztertu da. 3. orrialdearen 2. paragrafoa honela gera dadin eskatu du: “... botoetara eraman nahi dituen. X. Videgainek erantzun dio ez duela eskatzen botoetara eraman dadin”. Eginiko zuzenketak onartu da.

P. Zabaletak 2. orrialdearen azken paragrafoaren bigarren esaldia zuzentzeko eskatu du. Izan ere, bere ustez, ez du zuzen jasotzen berak esandakoa. Gaiari buruz adostasunik ez denez egon, gaia botoetara eraman da. Emaita hau izan da: bilera-agiria bere horretan lagatzearen alde 17 boto, zuzenketaren alde 5.

Ondorioz, 2021eko urtarrilaren 29ko Osoko bilkurako bilera-agiria onetsi da.

2. Exonomastika: *Munduko artelanak: arkitektura. Araugaia aurkeztu.*

A. Mujika batzordeko idazkariak egin du aurkezpena. Exonomastika batzordeak Antzinateko artelanak landu zituen 2018an eta 2019an, eta horren emaitza izan zen 191. araua (*Historiaurreko eta Antzinaroko artelanen izenak*). 2020an artelanen izenak arloka lantzen hasi zen: batetik, arkitektura eta, bestetik, eskultura eta pintura. Horren lehen emaitza da gaur aurkeztu den araugaia.

Munduko arkitekturako artelanak euskaraz izendatzeko irizpideak luze-zabal zehaztu dira araugaiaren lehen zatian: artelanen izendapenaren atalak, eraikin erlijiosoen kasu bereziak, artelanaren izendapena noiz den egokitzea eta noiz jatorrizko forman erabiltzea, atal generikorik gabeko erabilera eta erdal artikulurik gabeko erabilera-kasuak. *Parisko Notre-Dame* izenaren erabilera, hala tradiziokoa nola gaur egungoa, xeheki aztertu da, eta araugaiaren eranskinean ezarri da.

Araugaiaren bigarren atalean, irizpideen erabileraren erakusgarri, arkitekturaren arloko munduko artelan nagusien zerrenda landu da. Izen generikoak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* falta direnean edo batzordean bi iritzi agertu direnean, horretaz ohartarazi du batzordeak, Osoko bilkurak erabaki dezan. Bi kasu hauek dira: *alkazar* eta *kolomadi*.

Azkenik, *Midiko kanala* edo *Canal du Midi* izendapenen artean hobespena egin behar den ala biak ontzat eman behar diren galdera plazaratu dio batzordeak Osoko bilkurari.

Aurkezpenaren ondoren, apirilaren 6a arteko aldia ireki da oharrak egiteko.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XXV). Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

Urtarrileko bileran aurkeztutako zerrendari hiru ohar egin dizkio P. Rekalde euskaltzainak: *bere izan* zuzentzeko eskatu du, baina lehendik zuzendua zegoela adierazi du batzordeko idazkariak; bestetik, *eskutik joan* ('ahuldua izan' adieran) eta *kailu* ('urdearen azal gogorra' adierakoa) sartzeko eskatu du, Baztanen eta inguruetan ezagunak direlako. Baina idazkariak urtarrileko argudioak berretsi ditu, hau da, erabilera-daturik eza, eta Osoko bilkurak erabakitzeko proposamena egin du.

Orain arteko irizpideak kontuan hartuta, oraingo ez jasotzea erabaki da. Nolanahi ere, Batzorde Ahaldunduko idazkariak adierazi du hurrengo aztergaiak lantzen hasten direnerako erabilera-daturik buruzko irizpideak berrikusten ari dela Euskaltzaindiaren Hiztegiko lantaldea.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XXVI). Aurkeztu.

Aztergai honi dagokionez, M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak azaldu ditu M. Azkarate, A. Iñigo, X. Videgain eta P. Zabaleta euskaltzainek aurkeztutako iruzkinak, bai eta Batzorde Ahaldunduak emaniko erantzun arrazoituak ere.

5. Aurkezpenaren ondoren, apirilaren 6a arteko aldia ireki da oharra egiteko.

Euskaltzaindiaren lurralde-ordezkariek izendatzea, Barne-erregelen 38., 39. eta 66. artikuluen arabera.

A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman duenez, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Barne-erregelen 38., 39. eta 66. artikuluetan jasorikoa kontuan hartuz, 2021eko otsailaren 16an eginiko batzarrean erabakitakoari jarraikiz, ondoko euskaltzain hauek proposatzen ditu Euskaltzaindiaren lurralde-ordezkaritzak izateko:

Araba: Roberto González de Viñaspre.

Gipuzkoa: Miriam Urkia.

Ipar Euskal Herria: Jean-Baptiste "Battittu" Coyos.

Nafarroa: Sagrario Aleman.

Horrela, bestelako proposamenik dagoen galdetu du, ez da egin. P. Zabaleta euskaltzainak “Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaritza egoitza bihurtzen joateko proposamena” erretiratzea erabaki du. Izan ere, gaia XXI. Barne-jardunaldietan eztabaidatuko da.

Ondorioz, lurralde-ordezkariak izendatzeko bozketa egin da Osoko bilkuran. Emaita: 20 boto aurkeztutako proposamenaren alde eta 2 abstentzio. Beraz, onetsi dira Euskaltzaindiaren lurralde-ordezkari izateko Zuzendaritzak aurkeztu dituenak.

6. Esku artekoak.

6.1. XXI. Barne-jardunaldiak. XXI. Barne-jardunaldiak aitzinatzen joateko, Zuzendaritzak euskaltzainei ekarpenak eskatu zizkien 2021eko urtarrilaren 29an eginiko Osoko bilkuran. Irekitako aldian, M. Azkarate, M. L. Oñederra, X. Videgain eta P. Zabaleta euskaltzainek ekarpenak aurkeztu dituzte.

Horren ondoren, izurritearen zabalkundea galerazteko hartutako neurriak kontuan hartuz, orain arteko moldean Barne-jardunaldiak burutzerik ez dagoenez, XXI. Barne-jardunaldiak burutzeko kronograma aurkeztu da. Horrela, martxoko Osoko bilkuran aurreko plangintzaldiak emanikoa eta 2021-2024 aldirako irizpideak, gidalerroak eta lehentasunak aurkeztuko dira. Apirileko, maiatzeko eta ekaineko Osoko bilkuretan zati esanguratsua eskainiko zaie Barne-jardunaldiei, batzordeetako, lantaldeetako, egitasmoetako eta zerbitzuetako aldirako plan nagusiak aurkeztuz, bai eta Arautegian eta Barne-erregelatan egin beharreko eguneratzeak eta aldaketak eztabaidatuz ere.

6.2. Akademien arteko adierazpena. Aurreko Osoko bilkuran aditzera eman zen bezala, P. Rekalde euskaltzainak ortografiaren aldetik iruzkin txiki batzuk aurkeztu zituen. Horiek barruratu ondoren, adierazpen bateratua zabaldu da.

6.3. Euskaltzaindia Euskal Herriko Garapen Kontseiluko Zuzendaritza Kontseiluko kide. Euskaltzaindia Euskal Herriko Garapen Kontseiluko Zuzendaritza Kontseiluko kide izendatu berri da. Jean-Baptiste “Battittu” Coyos buruordeak azaldu duenez, sasoi batean Euskaltzaindia kidea zen, baina 2018an erakunde hau berritu zenean, Euskaltzaindiak ez zuen, emaniko epean, jarraitzeko borondaterik erakutsi eta kanpoan geratu zen. Ordutik hona eginiko kudeaketaren ondorioz, egoera hori bideratzea lortu da.

6.4. R. M. Azkue Sariak 2020. Epaimahaiko kideen berri. Zuzendaritzak 2021eko urtarrilaren 27an epaimahaiko kideak izendatu zituen. Hona hemen:

A maila: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria eta Manuel Lopez Gaseni.

B maila: Yolanda Arrieta, Amaia Jauregizar eta Patxi Zubizarreta.

6.5. Eusko Ikaskuntza – Laboral Kutxa Sariaren 2021eko edizioaren hauta-gaitza. Martxoaren 28an amaituko da proposamenak aurkezteko epea. Norbaitek Euskaltzaindiaren izenean hautagairen bat aurkeztu nahi izanez gero, albait arinen idazkariordeari jakitera ematea iradoki da.

6.6. Hurrengo bilkura. Martxoaren 26an, XXI. Barne-jardunaldiak hasiko dira Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

Azken ordukoak.

P. Zabaletak aurreko Osoko bilkuran aditzera emandakoaren bidetik, 2020ko kontu-ikuskaritzaren emaitzak eta 2021eko aurrekontuak Osoko bilkuran noiz aurkeztuko diren galdetu du. Erantzun zaio, kontu-ikuskaritza amaitu gabe dagoela eta 2021eko aurrekontuak, berriz, herri-erakunde batzuek onartu gabe dituztela. Beraz, biak prest egon daitezenean aurkeztuko dira, aurrekoetan egin izan den bezala.

S. Aleman Jagon sailburuak Euskaltzaindiak Nafarroako lehendakariari bidali dion gutunaren berri eman du. Gutun horretan kezka bikoitza ageri da: alde bate-tik, Iruñeko haur eskoletako euskarazko eskaintza urria eta, bestetik, murgiltze ere-duko euskarazko eskaintza indartu beharra. Ekimena Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak garatu eta Zuzendaritzak gauzatu du.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:00etan.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

XXI. BARNE-JARDUNALDIAK

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean

2021eko martxoaren 26an.

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kintana, Xabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Salaberri, Patxi
Toledo, Ana
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Jose Irazu
“Bernardo Atxaga”, Jabier Kaltzakorta,
Andoni Sagarna eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k
ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakor-
tak ahala Andres Urrutiari; Andoni
Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Mikel
Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Donostian, Luis Villasante
Euskararen Ikergunean egin da, 2021eko
martxoaren 26an, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain
guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda
eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela
egiaztatu ondoren, XXI. Barne-jardunal-
diei hasiera eman zaie.

XXI. Barne-jardunaldiei hasiera eman
aurretik, otsaileko Osoko bilkuran azal-
dutakoa gogorarazi da. Izan ere, izurritea-
ren zabalkundea galerazteko hartutako
neurriak kontuan izanik, orain arteko
moldean Barne-jardunaldiak egiterik
ez dagoenez, XXI. Barne-jardunaldiak
burutzeko kronograma aurkeztu zen. Ho-
rrela, gaur, aurreko plangintzaldiak ema-
nikoa eta 2021-2024 aldirako irizpideak,
gidalerroak eta lehentasunak aurkeztu
dira. Apirileko, maiatzeko eta ekaineko
Osoko bilkuretan ere zati esanguratsua
eskainiko zaie Barne-jardunaldiei, batzor-
deen, lantaldeen, egitasmoen eta zer-
bitzuen aldirako asmoak aurkeztuz, bai
eta organigraman, Arautegian eta Bar-
ne-erregietan egin beharreko eguneratzeak
eta aldaketak eztabaidatuz ere.

1. 2017-2020 aldiko plangintzaldia-ren emaitza.

2017-2020 aldiko plangintzaldiaren emaitza aurkezteko, euskaltzainburuak hitza E. Osa idazkariordeari eman dio.

Idazkariordeak, aldiko emaitza paratzeko, azpimarratu du 2017ko XX. Barne-jardunaldietan aurkeztutako txostenak, oroitidazkiak eta batzordeek, lantaldeek, egitasmoeak eta zerbitzuek aurkeztutako errendapenak kontuan hartu direla. Argitu duenez, txostenaren helburua ez da atalez atal balantze zehatz-zehatza egitea, eginkoak, lorpenak eta gabeziak labur-labur aipatzea baizik.

Aurkeztu den txostenak hiru atal ditu. Batetik, 2017ko XX. Barne-jardunaldietan azaldutako 6 ardatzetan (lurraldetasuna, zerbitzua eta gizarteratzea, erreferentzialtasuna, ikusgarritasuna, zientifikotasuna eta akademikotasuna) begiz jotako asmoak eta emaitzen alderaketa. Bestetik, batzordeek, lantaldeek, egitasmoeak eta zerbitzuek 2017an aurreikusitakoaren eta egindakoaren arteko konparaketa. Azkenik, aldiak emanikoaren laburpen moduko bat egin da, eta lorpen eta gabezia esanguratsuenak aipatu dira.

Aurkezpenaren ondoren, euskaltzainburuak hitza eman die euskaltzainei, banan-banan. Igaro berri den plangintzaldian, oro har, aipatu da lan handia egin dela eta Euskaltzaindiak ikusgarritasuna eta erreferentzialtasuna irabazi dituela, besteak beste, mendeurrenaren harira eginiko lanari eta eremu digitalean eginiko apustuari eta bestelakoei esker. Gabeziak edota eztabaidatu beharrekoak ere aipatu dira: argitalpenen arloa, *Euskera* agerkariaren kalitate-adierazleak eta indexazioa, funtzionamendua (euskaltzainen ekarpenen eta inplikazioaren nondik norakoa, osoko bilkurak eta abar). P. Zabaletak, aurrekoek gain, besteak beste, hizpide izan ditu hizkuntza-eskubideak jagoteko Akademiaren zeregina, Mendeurreneko batzorde suntsikorraren jarduna, literaturaren arloan dagoen hutsunea, Akademiaren egitekoak eta abar. Era berean, aurkeztutako txostenean, Lege-ekonomia batzordeari dagokionez, 2017an jarritako helburuak ez direla bete aipatu denez, azpimarratu du gaiari buruzko proposamena paratu duela eta euskaltzainei igorri diela 2020 urtearen bukaeran.

Euskaltzainek txostenari buruz adierazitako iritzien ondoren, iruzkinak edota oharra egiteko aldia zabaldu da apirilaren 19a arte. Idazkariordeak aipatu du euskaltzainei fitxa bat igorriko zaiela ekarpenak jaso eta kudeatu ahal izateko eta, eskatu da egin nahi diren ekarpenak formatu horren arabera egitea.

2. 2021-2024 aldirako lerro eta irizpide nagusiak.

Zuzendaritzak paratu duen bigarren txostenaren helburu nagusia plangintzaldi berrirako ardatzak zehaztea da. Gerora, ardatzok kontuan harturik, horien garapena batzordeek, lantaldeek, egitasmoek eta zerbitzuek 2021-2024 aldirako aurkeztu dituzten fitxetan etorri behar delako. Horrela, lau ardatz eta helburu estrategiko eta horiek bideratzeko bi lanabes aurkeztu dira, ondoko hauek, hain zuzen: zerbitzu bokazioa indartu eta proiektatzea, hizkuntza baliabideak digitalizatu eta tresnak garatzea, ezagutza transferitzea, nazioartekotzea, kudeaketa bikaintasunarekin lotzea eta Akademia modernizatzea.

Ardatzak eta lanabesak garatzeko egitekoak aipatzeaz batera, Iker eta Jagon sailetako arbolak, bai eta ardatz bakoitzeko eskema bana ere aurkeztu da. Eskema horien helburuak ondokoak dira: batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen arteko estekadurak erraztea eta koordinazioa areagotzea; plan estrategikoa egituratzeko eta zehazteko lagungarri suertatzea, eta Akademiaren funtzionamendua hobetzea eta bizkortzea.

Aurkezpenaren ondoren, euskaltzainburuak hitza eman die euskaltzainei, banan-banan. Aurkeztutako plan estrategikoaren ardatzei buruz, garrantzi handiko kontuak aipatzen direla eta Akademiak, azken hamarkadan, egindako plan estrategikoen norabidean, beste urrats garrantzitsu bat dela azpimarratu da. Era berean nabarmendu dira, besteak beste: funtzionamendua bizkortzea eta Akademia modernizatzea; digitalizazioa areagotzearen garrantzia, eta horien artean, **Azkue e-Biblioteca eta Artxiboari** doakionez; “*ad intra*” Akademiaren altzoan egiten den ekoizpen zientifikoa bizkortzea eta, “*ad extra*”, ikusgarritasuna lantzea, bereziki, nazioartean; kudeaketa bikaintasunarekin lotzea; genero-diskriminazioari aurre egiteko konpromisoa eta abar. P. Zabaletak, aurreko zenbait puntu aipatzeaz batera, aditzera eman du araugintzari buruzko aipamenik ez dela ageri eta euskalgintzarekiko lankidetzaren hutsunea nabaritzen dituela.

Euskaltzainek txostenari buruz adierazitako iritzien ondoren, iruzkinak edota oharra egiteko aldia zabaldu da apirilaren 19a arte. Eskatu da egin nahi diren ekarpenak aurkeztu den formatuaren arabera egitea.

Esku artekoak.

Hurrengo Osoko bilkura Bilbon, Egoitzan, apirilaren 30ean, egingo da. Bertan, gaur aurkeztutako txostenei egin zaizkien ekarpenak, 2021-2024 aldiari dagokionez, Iker saileko batzordeen, lantaldeen eta egitasmoen fitxak aztertuko dira.

Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:00etan.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Egoitzan, 2021eko apirilaren 30ean.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier,
Oihartzabal, Beñat
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Sagrario Aleman, Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Ana Toledo eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Sagrario Alemanek ahala Andres Iñigori; Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala (iritsi bitartean) An-

dres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

1. Ageriko bilkurako (2020-01-31) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da iritsi. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, inork ez du egin. Ondorioz, 2020ko urtarrilaren 31ko Ageriko bilkurako bilera-agiria onetsi da.

2. Osoko bilkurako (2021-02-26) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da iritsi. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, inork ez du egin. Ondorioz, 2021eko otsailaren 26ko Osoko bilkurako bilera-agiria onetsi da.

3. XXI. Barne-jardunaldiak (2021-03-26). Bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da iritsi. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, inork ez du egin. Ondorioz, 2021eko martxoaren 26ko XXI. Barne-jardunaldietako bilera-agiria onetsi da.

4. XI. Barne-jardunaldiak. 2017-2020 aldiko plangintzaren emaitza. Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman duenez, iruzkinak-eta egiteko irekitako al-dian, P. Zabaleta euskaltzainak oharrak egin ditu. A. Urrutia euskaltzainburuak bestelako oharrak egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondoren, hitza eman dio P. Zabaletari.

P. Zabaletak azaldu duenez, balantzeari eginiko emendakinak ez du helburu edo zentzu gehiegi, balantzearen inguruabarrean askotariko iritziak egon daitezkeelako. Nolanahi ere, Euskaltzaindiaren bigarren mendeurrena gogoan dela, Akademiak helburuetan, xedeetan, jokatzeko eta funtzionatzeko moldeetan aldaketa sakonak behar dituela azpimarratu du. Horrela, inkesta bat egiteko proposamena egin du, euskaldungoari galdetzeko zein iritzi daukan Euskaltzaindiak egindakoaz eta egin beharrekoaz.

A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman duenez, Zuzendaritzak ez du une honetan halako inkesta baten beharrik ikusten. Era berean, gogorarazi du Donostian, Kursaal, 2011ko martxoaren 25ean eginiko XVII. Barne-jardunaldiak prestatzeko, Siadecok eginiko inkesta bat hartu zela oinarritzat. Harrezkero, Euskaltzaindiak al-daketa eta ekarpen esanguratsuak egin ditu (batzorde eta lantaldeen, egitasmoen, komunikazioaren, argitalpenen eta abarrekoen bidez). M. Azkaratek aipatu du plangintzaldian zehar inkesta bat egin daitekeela, egin aurretik zehazturik inkesta horren helburuak eta nondik norakoak.

A. Urrutiak P. Zabaletari galdetu dio ea proposamenari eusten dion eta gaia bo-toetara eraman nahi duen. Honek, aditzera eman du proposamenari eusten diola. A. Urrutiak Zuzendaritzak aurkeztutako **“2017-2020 aldiko plangintzaren emaitza”** onartzea eskatu du. Horrela, bozketa egin da Zuzendaritzak aurkeztutako txostena ala P. Zabaletak aurkeztutako proposamena onartzen den erabakitzeko. Emaitza hau izan da: Zuzendaritzak aurkeztutako txostena onartzearen alde, 17 boto; P. Zabaletak aurkeztutako proposamenaren alde, 2 boto eta 2 boto zuri.

5. XXI. Barne-jardunaldiak. 2021-2024 aldirako lerro eta irizpide nagusiak. Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman duenez, iruzkinak-eta egiteko irekitako al-dian, P. Zabaletak osoko zuzenketa aurkeztu du. Ekarpenari Arautegi berria

erantsi dio. Horri dagokionez, gogorarazi da Arautegia eta Barne-erregelak maiatzetik aurrera aztertuko direla, otsaileko Osoko bilkuran aurkeztu zen kronogramaren arabera. A. Urrutia euskaltzainburuak aurkeztutako emendakina azal dezan hitza eman dio P. Zabaletari. Zabaletak osoko zuzenketaren helburuak, jarraibideak eta horiek gauzatzeko bitartekoak azaldu ditu.

A. Urrutiak Zuzendaritzak prestaturiko “XXI. Barne-jardunaldiak. 2021-2024 aldirako lerro eta irizpide nagusiak” txostena onar dadin eskatu du. Horrela, bozketa egin da Zuzendaritzak aurkeztutako txostenaren eta P. Zabaletak aurkeztutako osoko zuzenketaren artean. Emaizta hauxe izan da: Zuzendaritzak aurkeztutako txostena onartzearen alde, 17 boto; P. Zabaletak aurkeztutako osoko zuzenketaren alde, berriaz, 2 boto, eta 2 boto zuri.

6. XXI. Barne-jardunaldiak. IKER saileko 2021-2024 aldirako planak aurkeztu.

Otsaileko Osoko bilkuran azaldutako kronograma kontuan hartuz, gaurko Osoko bilkuran, IKER saileko batzordeen, lantaldeen eta egitasmoen 2021-2024 aldirako planak eta batzordeen eta lantaldeen osaera aurkeztu dira. Halaber, otsailaren 19a bitartean irekitako aldian, X. Videgainek aurkeztutako Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) eta P. Zabaletak aurkeztutako *Liztorra* egitasmoak ere aurkeztu dira. Amaitzeko, gaurkoan planak aurkeztuko direnez eta iruzkinak-eta egiteko maiatzaren 17a arteko aldia irekiko denez, oharrak egiteko fitxa banatuko da.

Azalpenak ematen hasi aurretik, A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman du IKER saileko batzordeen, lantaldeen eta egitasmoen 2021-2024 aldirako planak eta batzordeen eta lantaldeen osaera batzordeen, lantaldeen eta egitasmoen arduradunekin adostu dituela Zuzendaritzak. Era berean, aditzera eman duenez, Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa (EHHE) egitasmoa dela eta, aurrerago aztertuko da zer egin egitasmoarekin. Beraz, oraingoz fitxarik ez da aurkeztuko. Nolanahi ere, EHHE egitasmoak ondutako argitalpenaren bertsio elektronikoa maiatzean aurkeztuko du Euskaltzaindiak.

Ondoren, aurkezpenak egin dira:

M. Urkia euskaltzainak hauexek aurkeztu ditu: Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak lantaldea; Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak egitasmoa; Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldun-

dua; Zientzia eta Teknika Hiztegia biltzeko egitasmoa; Orotariko Euskal Hiztegia egitasmoa.

M. Azkaratek Gramatika batzordearen 2021-2024 aldirako plana aurkeztu du.

A. Arejitak Euskararen Herri Hizkeren Atlasa / Ahozko Euskararen Thesaurus eta, X. Videgainek, Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoen 2021-2024 aldirako planak aurkeztu dituzte.

R. González de Viñasprek hauexek aurkeztu ditu: Onomastika batzordea; Exonomastika batzordea; Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa; Gasteizko Toponimia egitasmoa.

Literaturaren arloan, E. Osak Euskal Literaturaren Antologia egitasmoa eta P. Zabaletak *Liztorra* egitasmoa aurkeztu dituzte.

M. L. Oñederrak Ahoskera batzordearen 2021-2024 aldirako plana aurkeztu du.

A. Urrutiak Morfosintaxiaren estandarizazioa batzorde ahaldunduaren 2021-2024 aldirako plana aurkeztu du.

Aurkezpenen ondoren, euskaltzainek galderak egiteko eta zenbait argibide emateko abagunea izan dute. Ondoren, oharrak, iruzkinak edo dena delakoak egiteko, maiatzaren 17a arteko aldia ireki da. Oharrak egiteko fitxa azaldu da.

7. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldunduaren oharrak (XXVI). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

Aztergaia maiatzeko Osoko bilkurarako laga da.

8. Esku artekoak.

8.1. Lexikoaren Behatokiak 98.000.000 testu-hitz. M. Urkia Iker sailburuak aditzera eman duenez, Lexikoaren Behatokia 98.000.000 testu-hitz izatera iritsi da. Horrela, eguneraturiko bertsioa jadanik sarean dago.

8.2. Espainiako Sari Nazionalak. Zuzendaritzak epaimahaikoak proposatu ditu. Hona hemen:

PREMIO NACIONAL DE LAS LETRAS ESPAÑOLAS	Aleman Astitz, Sagrario Arejita Oñarte-Etxebarria, Adolfo
PREMIO NACIONAL DE LITERATURA (POESÍA)	López Gaseni, Jose Manuel Katixa Agirre Miguélez
PREMIO NACIONAL DE LITERATURA (POESÍA JOVEN "MIGUEL HERNÁNDEZ")	Zabala Artetxe, Juan Luis Jauregizar Ormaetxea, Amaia
PREMIO NACIONAL DE LITERATURA (LITERATURA INFANTIL Y JUVENIL)	Zubizarreta Dorronsoro, Patxi Goenaga Mendiola, Aizpea
PREMIO NACIONAL DE LITERATURA (NARRATIVA)	Azkarate Villar, Miren González de Viñaspre Gonzalo, Roberto
PREMIO NACIONAL DE LITERATURA (ENSAYO)	Billelabeitia Bengoa, Miren Gartzia Trujillo, Sebastián
PREMIO NACIONAL DE LITERATURA (LITERATURA DRAMÁTICA)	Fernández Iglesias, Arantzazu Rekalde Irigoien, Paskual
PREMIO NACIONAL A LA MEJOR TRADUCCIÓN	Etxebarria Iturrate, Arantza Giménez Bech, Jorge
PREMIO NACIONAL A LA OBRA DE UN TRADUCTOR	Etxebarria Iturrate, Arantza Giménez Bech, Jorge
PREMIO NACIONAL DE PERIODISMO CULTURAL	Ubeda Goikoetxea, Garbiñe Mendizabal Elordi, Iñaki

8.3. Hurrengo bilkura. Maiatzaren 28an, Iruñean, Nafarroako Parlamentuan izanen da. Nolanahi ere, izurritearen hedatzea saihesteko hartutako neurriek (tar-tean, Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak hartutakoek) ezinezko egin baleza-te, Zuzendaritzak aztertu eta beste toki batean antolatuko du Osoko bilkura.

8.4. Frantziako Asanblea Nazionalak Eskualdeko Hizkuntzen Ondarea Babes-teari eta Sustatzeari buruz onarturiko legea (kopia karpetan) eta aurkezturiko helegitea. Zuzendaritzak Jean-Louis Davanti testu labur bat presta dezan eskatu dio, hori ardatz hartuta Sustapen batzordeko buruarekin eta euskaltzainen ekarpe-nekin adierazpena onetsi da:

"EUSKALTZAINDIARENTZAT AURRERAPAUSSA DA FRANTZIAKO ASANBLEA NAZIONALAK ONARTU BERRI DUEN HIZKUNTZA GUTXITUEN ALDEKO LEGEA"

Era berean, kezkaz ikusten ditu Frantziako gobernuak prozesuan erakutsi duen jarraera hertsia eta, ildo beretik, Eskualdeko Hizkuntzen Ondarea Babesteari eta Sustatzeari buruzko Legearen kontra Frantziako Asanblea Nazionaleko hiruretan hogei diputatuk, Frantziako Kontseilu Konstituzionalean, aurkeztutako helegitea.

Eskualdeko Hizkuntzen Ondarea Babesteari eta Sustatzeari buruzko Legea 2021eko apirilaren 8an onartu du Frantziako Asanblea Nazionalek, Senatuak 2020ko abenduan onartu ondotik. Lege horrek eraberritu du orain dela hiruretan hogeita hamar urtetik hona indarrean egon den bidea.

Euskaltzaindiaren aburuz, onartutako legea urrats garrantzitsua da, besteak beste, hizkuntza gutxiagotuak biziberritzeko asmoz, hezkuntzan murgiltze eredua legeztatzen duelako; gizarte-ekimeneko eskola eta ikastolen finantzaketa sendotzen duelako; hizkuntza elebiduna eskaintzen ez duten udalerriek irakaskuntza elebidunaren finantzaketan parte hartu beharko dutelako; ele bietako seinaleztapen publikoa arautzen duelako; edo hizkuntza gutxiagotuen grafia partez aintzat hartzen duelako.

Izan ere, Euskaltzaindiak uste du Frantziak zor historikoa duela hiztunen elkarte gutxietekin, luzaroan baztertuak izan baitira, euskara, bretoiera, katalana, okzitaniera, korsikera eta bestelako hizkuntzak baliatzen dituzten herritarrak, Frantziako Errepublikak aitortutako pertsona guztien eskubideen berdintasuna urratuz. Ondorioz, Frantziako Legebiltzarrak onartutako legea urrats garrantzitsua da, baina ez da nahikoa hizkuntza gutxiagotuak normalizatzeko egin beharreko ahaleginean. Horrela, Euskaltzaindiak Frantziako agintariei dei egiten die hizkuntza gutxiagotuak babesteko eta biziberritzeko asmoz, nazioartean indarrean dauden arauak eta emaniko gomendioak bete edota berrets ditzaten, tartean, 1992ko Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna eta, 2013ko irailaren 11n, Europako Parlamentuak onetsitako Desagertzeko arriskuan dauden Europako hizkuntzei eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena.

Inguruabar horretan, Euskaltzaindiak kezkaz ikusten du Frantziako Asanblea Nazionaleko hiruretan hogei diputatuk, onartu berri den legearen irismena murrizteko asmoz, Frantziako Kontseilu Konstituzionalean aurkeztutako helegitea, kolokan jar eta muga baitezake, besteak beste, hizkuntza gutxiagotuak biziberritzeko ezinbestekoa den murgiltze eredua, Ipar Euskal Herrian, Okzitanian, Korsikan, Britainian eta abarretan. Ondorioz, Euskaltzaindiak bat egiten du hizkuntza gutxiagotuen, kulturen eta aniztasunaren alde lanean ari diren guztiekin, bereziki elkarte eta erakundeen ahaleginarekin, garrantzitsua baita elkartzea, indarrak batzea eta ahaleginak bizkortzea, hizkuntza gutxiagotuak aitzinatu, biziberritu eta normalizatu ahal izan daitezen".

Paul Molac Frantziako Asanblea Nazionaleko diputatu eta legearen bultzatzaileari eskerrak emanez eta, Euskaltzaindiak Euskal Konfederazioarekin batera, urrian, antolatu nahi duen jardunaldira gonbidatuz gutuna igortzea erabaki da Osoko bilkuran.

8.5. Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko Urteko biltzar nagusia. Apirilaren 8an egin zen. Biler horretan, 2020ko oroitzua, 2020ko urteko kontuak eta bulego berria onartu ziren. Bulegoa, A. Urrutia buruak, J. B. Coyos buruordeak eta J. L. Davant bigarren buruordeak eta idazkariak osatuko dute.

9. Azken ordukoak.

Henrike Knörr Borràs euskaltzaina hil zela gaur hamahiru urte betetzen direnez gero, Akademiaren izenean alargunari gutun bat igortzea erabaki da Osoko bilkuran.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:30ean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko bilkura

Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, 2021eko maiatzaren 28an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kintana, Xabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Salaberri, Patxi
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba, zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Roberto González de Viñaspre, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Jabier Kaltzakorta, Andoni Sagarna, Ana Toledo eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urru-

tiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Iruñean, Nafarroako Parlamentuan egin da, 2021eko maiatzaren 28an, ostiralean, 10:00etan.

Bilkuraren aurretik Unai Uhalde Nafarroako Parlamentuko lehendakariak Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideei harrera egin die, bere bulegoan. Ondoren, Uhalde lehendakariak Parlamentuaren osoko bilkuren aretoan hitza hartu eta euskaltzainak agurtu ditu. Egin duen mintzaldi laburrean, hizpide izan ditu euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, nafarren hizkuntza ere baden euskara normalizatzea eta Nafarroako Parlamentuaren eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak lantzea.

Hasierako hitzen ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, maiatzeko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2021-04-30) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, P. Zabaleta euskaltzainaren iruzkina jaso da. A. Urrutiak ahoz bestelako oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da egin.

P. Zabaletak 8.4. aztergaiaren azken paragrafoa aldatzea eskatu du. Adostasunik egon ez denez, bozketa egin da aurkeztutako bilera-agiria bere horretan lagatzearen eta P. Zabaletak aurkeztutako iruzkinaren artean.

Emaitza haxe izan da: bilera agiria bere horretan lagatzearen alde, 16 boto; P. Zabaletak aurkeztutako zuzenketaren alde, 2 boto, eta 3 boto zuri. Ondorioz, 2021eko apirilaren 30eko bilera-agiria onetsi da. P. Salaberrik aditzera eman du ez zela bileran egon eta ez daukala bilera-agiriaren edukari buruzko irizpiderik, eta horretxegatik, boto zuria eman du.

2. XXI. Barne-jardunaldiak. IKER saileko 2021-2024 aldirako planak aurkeztu. Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

Apirilean iruzkinak egiteko irekitako aldian, M. Azkarate, P. Rekalde eta M. L. Oñederra euskaltzainek oharrak aurkeztu dituzte. P. Rekalderen oharrak linguistikoak direnez, guztiak onartu dira.

Ondoren, Iker saileko planak onetsi ala ez erabaki da aurkeztutako organigramaren arabera. Hiztegigintza alorrean, I.1 eta I.2 atalen aipamena eginez, M. L. Oñederrak aurkezturiko iruzkinean, Euskaltzaindiaren Hiztegian ahoskera (transkripzio eta audioak) txertatzeko moduan bilaketa aktibatzea iradoki du. M. Urkia Iker sailburuak plangintzaldian zehar kontuan hartuko dela aditzera eman du, betiere, horrek begiz jotako eta lehentasunezkoak diren Euskaltzaindiaren Hiztegiko lanak galgaten ez dituen neurrian. Ondorioz, Hiztegigintzako atal guztietako aldirako plangintzak eta batzordeen eta lantaldeen osaerak onetsi dira.

Segidan, Gramatika atalaren aldirako plana eta Gramatika batzordearen osaera onartu dira.

Dialektologiaren alorrean, M. Azkaratek, zailtasunak zailtasun, Zuzendaritzak aurkeztutako "EHHA/Ahozko Euskararen Thesaurus" eta X. Videgainek aurkeztutako "Euskararen Herri Hizkeren Atlas" egitasmoak uztartzeko ahalegina egin dadin iradoki du. A. Urrutiak azaldu duenez, Zuzendaritzak ez du ikusten bateratzeko aukerarik. Izan ere, Zuzendaritzak ez du ikusten bideragarritasunik Videgainek

aurkezturiko egitasmoan, ez barne-antolakuntzaren aldetik, ez eta diru baliabideen eta eduki akademikoaren aldetik ere. Zuzendaritzak uste du beste pauso bat eman behar dela eta EHHaren datuen ustiatzea lehenetsi behar dela. Horrek ez du kentzen X. Videgaini monografiaren bat edo egin dezan eskaintzeko aukera. Hortaz, Zuzendaritzak ahaleginak egingo ditu, Videgainek onartuz gero, monografiaren bidea adosten eta gauzatzen. Horrela, euskaltzainburuak X. Videgaini galdetu dio ea bere proposamenari eusten dion. X. Videgainek hitza hartu eta M. Azkarateri eskerrak eman dizkio bi egitasmoak uztartzeko eginiko proposamen eta ahaleginagatik. Era berean, txostena aurkeztu duela eta proposamenari heltzen diola aditzera eman du.

Horrela, bi bozketa egin dira. Alde batetik, "EHHA/Ahozko Euskararen Thesaurus" onartzeko ala ezesteko. Emaita haxe izan da: 16 boto alde, 2 kontra eta 3 boto zuri. Beste aldetik, X. Videgainek aurkeztutako "Euskararen Herri Hizkeren Atlas" egitasmoa onartzeko ala ezesteko. Emaita haxe izan da: 2 boto alde, 15 boto kontra eta 4 boto zuri. A. Urrutiak azaldu duenez, bozketako emaitzak gorabehera, Zuzendaritza prest dago hitz egiten jarraitzeko eta Zuzendaritzak proposatutakoaren bidetik adostasunaren bidea jorratzeko.

Onomastika ataleko 2021-2024 aldirako plangintzak onetsi dira.

Literaturaren arloan, "Euskal Literaturaren Antologia" egitasmoa onetsi da. P. Zabaletak aurkeztutako "Liztorra" egitasmoa dela eta, A. Urrutiak aditzera eman duenez, Zuzendaritzak ez du ikusten bideragarritasunik aurkezturiko egitasmoan, ez barne antolakuntzaren aldetik, ez eta diru baliabideen eta eduki akademikoaren aldetik ere. Aitzitik, Zuzendaritzak engaiamendua har dezake literaturan ari diren euskaltzain osoekin kontsultak eginez, euskal literaturaren sorkuntzaren inguruko gunea eratu eta bestelako ekimena sortzeko epe ertainean. P. Zabaletari proposamenari eutsi nahi dion galdetuta, horrek eutsi egiten diola aditzera eman du. Ondorioz, proposamena onartzen den ala ezesten den jakiteko bozketa egin da. Emaita haxe izan da: aurkeztutakoaren alde 3 boto, kontra 16 boto eta 2 boto zuri.

Iker sailarekin amaitzeko, Fonetika eta Fonologia atalaren aldirako planak eta batzordearen osaerak onartu dira, bai eta Morfosintaxiaren atalean, morfosintaxiaren estandarizazioari buruzko aldiko plana eta egitasmoa garatzeko batzorde ahaldunduaren osaera ere.

3. XXI. Barne-jardunaldiak. Jagon saila, Egiturazko batzordeak eta egitasmoak (Zuzendaritzari atxikiak) eta zerbitzuak. 2021-2024 aldirako planak. Aurkeztu.

Jagon saileko Hizkuntza Kalitatearen Behatokia batzordearen, Euskalkien lantaldearen, Sustapen batzordearen eta Joanes Etxeberri egitasmoaren aldirako planak aurkeztu dituzte P. Rekaldek, P. Uribarrenek, S. Alemanek eta E. Osak, hurrenez hurren.

Egiturazko batzordeak eta egitasmoak (Zuzendaritzari atxikiak), berriz, A. Urrutia azaldu ditu: Argitalpen batzordea, *Euskera* agerkariaren Idazketa kontseilua eta Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea; eta M. Urkiak, Informazio eta Komunikazioaren teknologiak batzordea.

Zerbitzuen ataleko planak honako hauek aurkeztu dituzte: J. Zabaleta kudeatzaileak (Egoitza, Ikerguneak eta ordezkariak, Kudeaketa ekonomikoa), E. Osak (Idazkaritza eta kudeaketa akademikoa, eta Zerbitzu teknikoak), P. Rekaldek (HIZBEA eta Jagonet) eta J. B. Coyosek (Euskara Eskuz Esku).

Aurkezpenen ondoren, galderak egiteko txanda ireki da. Orobat, euskaltzainek adierazi dute zaila dela berehalakoan galdera zehatzak egitea eta dokumentazioa aztertzeko denbora behar dutela. M. Azkaratek EBE batzorde suntsikor izatetik egiturazko batzorde izatera igarotzeko arrazoiez galdetu du. Horri dagokionez, aipatu da hala egitea komeni dela batzorde suntsikorrak eginiko lana eta aldian-aldian *Euskara Batuaren Eskuliburuan* (EBE) egin behar izaten diren eguneratzeak kontuan hartuz (une honetan, EBEren laugarren argitaraldia ari da prestatzen Euskaltzaindia). M. Urkiak, bestetik, esan du Euskalkien lantaldeak jorratutako hitz-zerrendak *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n jasotzeko ahaleginak indartu behar direla. Era berean, HIZBEA dela eta, esan du garrantzitsua dela erabiltzen diren irizpideak banatzea, jakitea eta denon artean bideratzea. P. Zabaletak, Onomastikaren eremua aipatuz, Euskal Herritik haragoko lankidetzarako aukerez galdetu du. Azken horri gagozkiola, Onomastika zerbitzura kanpotik datozen kontsulten berri eman du P. Rekaldek. Era berean, besteak beste, Frantziako eta Espainiako IGN erakundeekin izaniko lankidetzara ere aipatu du.

Aurkezpenaren ondoren, iruzkinak edota oharra egiteko aldia ireki da, ekainaren 14a arte, hain zuzen.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde ahaldunduaren oharra (XXVI). Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

Gaia trenkatzeko denbora nahikorik ez dagoenez gero, aztergaia datorren Osoko bilkurarako laga da.

5. Esku artekoak:

5.1. Gorka Aulestia ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. 88 urte zituela, maiatzaren 10ean hil zen Gorka Aulestia ohorezko euskaltzaina. Ondarroan jaio zen, 1932ko abenduaren 11n. Euskal Ikasketetan doktorea (Nevadako Unibertsitatea), Deustuko Unibertsitateko irakasle izatetik erretiroa hartuta zegoen. Euskaltzain urgazle izendatua 1996ko martxoaren 29an, eta ohorezko 2010eko urtarrilaren 29an. Euskaltzaindian, Literatura Ikerketa batzordean egin zuen lan, batez ere, 1991tik aurrera. G. Aulestiaren familiari doluminak adieraztea erabaki da Osoko bilkuran.

5.2. Euskararen Hiztegi Historiko-Etimologikoa sarean. 2019an paperean argitaratu zen hiztegia linean jarri du Euskaltzaindiak maiatzaren 21ean, beraz, Euskaltzaindiaren webgunearen bidez eduki guztiak kontsulta daitezke. Online bertsioaren helburu nagusiak hauek dira: EHHeren egitura eta filosofiari eustea; hiztegiaren eduki osoa eskaintzea; kontsulta bideak erraztea; eta bilaketa erraza eta laguntzak eskaintzea.

5.3. Euskera, 2019,2-2. kalean. Mendeurrenako “Ahoskera jardunaldia” eta Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren aurkezpen jardunaldia jasotzen ditu. Honenbestez, lau argitalpen kaleratu dira Mendeurrenarekin lotutako gaiekin:

Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria (1964-2018). Bilduma: Jagon 19. Argitarazlea: Jean-Baptiste Coyos.

Hizkuntza gutxiagotuak jagon. Euskaraz bizi. Bilduma: Jagon 21. Argitarazlea: Sagrario Aleman - Jean-Baptiste Coyos.

Euskal Onomastika aplikatua XXI. mendean. Bilduma: Iker 39. Argitarazlea: Roberto González de Viñaspre.

Euskera 2019,2-2 (GAI BEREZIA: Euskaltzaindiaren mendeurrena):

- Ahoskera jardunaldia: Argitarazlea: Miren Lourdes Oñederra

- *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren aurkezpen jardunaldia: Argitarazleak: Joseba Andoni Lakarra - Julen Manterola.*

5.4. Baionako manifestaziora hurreratzeko Zuzendaritzaren deia. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak bihar, Baionan, 16:00etan, Lauga gelatik abiatuko den manifestaziora hurreratzeko deia egin du. J. B. Coyos Ipar Euskal Herriko ordezkariak xehetasunak eman ditu.

5.5. Hurrengo bilkura. Ekainaren 25ean, Baionan, Herriko Etxean egingo da Osoko bilkura 10:00etatik aurrera. Horrela, XXI. Barne-jardunaldiak direla eta, ekaineko Osoko bilkuran:

- Jagon Saileko, Egiturazko batzorde eta egitasmoetako (Zuzendaritzari atxikiak) eta zerbitzuetako planei eginiko oharrak aztertu eta erabakiko dira.
- Era berean, ekaineko Osoko bilkuran, Arautegiari eginiko iruzkinak aztertu eta erabakiko dira eta Barne-erregelari eginiko oharrak aurkeztuko dira, uztailean aztertu eta erabaki daitezten. 2021eko martxoaren 1ean Arautegiari eginiko iruzkinak euskaltzainei banatu zitzaizkien. Norbaitek berriz bidaltzea nahi izanez gero, idazkariordeari mezua bidali eta igorriko zaizkio.

6. Azken ordukoak.

6.1. Nafarroako Gobernuak Karlos III.aren Gurutzea eman dio Patxi Salaberri euskaltzainari. Hizkuntzalaritzaren arloan egin duen ikerketa-lan zabalagatik eman dio gurutzea Nafarroako Gobernuak. Osoko bilkuraren izenean, zorionak eman zaizkio P. Salaberriri.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:30ean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
Idazkaria

Osoko bilkura

Baionan, Herriko Etxean, 2021eko ekainaren 25an

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun, zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Sagra-
rio Aleman, Jagon sailburua; Aurelia
Arkotxa; Jean-Louis Davant; Jose Irazu
“Bernardo Atxaga”; Beñat Oihartzabal;
Andoni Sagarna, Patxi Salaberri eta Mi-
kel Zalbide.

Ahalak: Sagra-rio Alemanek ahala An-
dres Iñigori; Aurelia Arkotxak ahala
Miriam Urkiari; Jose Irazu “Bernardo
Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Ando-
ni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi

Salaberri ahala Andres Urrutiari; Mikel
Zalbidek ahala Andres Urrutiari

Batzarra Baionan, Herriko Etxean, egin
da, 2021eko ekainaren 25ean, ostiralean,
10:00etan.

Bilkuraren aurretik, Xabier Parrilla
Etxart Baionako Herriko Etxeko zine-
gotziak eta Herriko Etxean hizkuntza
politikaz arduratzen denak euskaltzainak
agurtu ditu eta harrera egin die.

Hasierako hitzen ondoren, A. Urrutia
euskaltzainburuak euskaltzain guztiak
agurtu eta etorririkoen zerrenda eta aha-
lak irakurri ditu. Quoruma badela egiaz-
tatu ondoren, ekaineko Osoko bilkurari
hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2021-05-28) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, X. Videgain eta P. Zabaleta euskaltzainen iruzkinak jaso dira. A. Urrutiak ahoz bestelako oharrak egin nahi den galdetuta, ez da egin.

X. Videgainek batzar-agiriaren hainbat idatz-zatiren gaineko bost ohar egin ditu. Bestetik, P. Zabaletak, 3. orrialdean, literaturaren arloan ageri den “eduki akademikoaren” ezabatzea eskatu du. Adostasunik egon ez denez, bozketa egin da aurkeztutako bilera-agiria bere horretan onartzen den erabakitzeko

Emaitza hauxe izan da: bilera agiria bere horretan lagatzearen alde, 15 boto; kontra, 3 boto, eta 3 boto zuri. Ondorioz, 2021eko maiatzaren 28ko bilera-agiria onetsi da.

2. XXI. Barne-jardunaldiak. Jagon saila, Egiturazko batzordeak eta egitasmoak (Zuzendaritzari atxikiak) eta zerbitzuak. 2021-2024 aldirako planak. Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

Maiatzean iruzkinak egiteko irekitako aldian, M. Azkarate eta P. Zabaleta euskaltzainek oharrak aurkeztu dituzte. Aztergaia bideratzeko, 2021eko maiatzaren 28ko Osoko bilkuran aurkeztutako organigrama erabili da.

Horrela, Jagon Sailean, P. Zabaletak proposatu du Hizkuntzaren Kalitatearen Behatokia (HIZBEA) batzordea eta horrekin lotutako zerbitzuak bertan behera uztea. Adostasunik egon ez denez, bozketa egin da. Emaitza hauxe izan da: HIZBEA mantentzearen alde 18 boto, 2 kontra eta 1 zuri.

Euskalkien lantaldeak, Sustapen batzordeak eta Joanes Etxeberri egitasmoak (*Euskararen Historia Soziala*) aldirako aurkezturiko plangintzek oharrak jaso ez dutenez, dauden-daudenean onetsi dira.

Zuzendaritzari atxikitako egiturazko batzordeei eta egitasmoei dagokienez, P. Zabaletak proposatu du Argitalpen Batzordeak eta *Euskera* agerkariaren Idazketa batzordeak bat egitea. M. Azkaratek hitza hartu eta aditzera eman du bere garaian nahita egin zela bereizketa hori, besteak beste, *Euskera* agerkariak aldizkari zientifikoaren eremuan onarpena eta aitortza eskuratzeko. A. Urrutiak P. Zabaletari galdetu dio bere proposamenari eusten dion. P. Zabaletak eusten diola erantzun du. Ondorioz, bi batzordeei eusten ote zaien erabakitzeko bozketa egin da. Emaitza hauxe izan da: dauden moduan uztearen alde 19 boto eta 2 kontra.

Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE) batzordea egiturazko batzordeetatik atera eta Iker edo Jagon Sailean koka dadin proposatu du M. Azkaratek. P. Zabaletak, aldiz, EBE batzordea desagitea proposatu du. A. Urrutiak azaldu duenez, EBE batzordeak badauka lotura batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzu guztiekin; horrexegatik dago Egiturazko batzorde eta egitasmoen artean. Adostasunik egon ez denez, EBE batzordea dagoen atalean mantentzen den erabakitzeko bozketa egin da. Emaita haxe izan da: alde 16 boto, 3 kontra eta 2 zuri.

Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea dela eta, aldirako aurkeztutako plangintza onartzen den jakiteko bozketa egin da. Emaita haxe izan da: alde 18 boto, 2 kontra eta 1 zuri. Era berean, P. Zabaletak aurkeztutako Euskarazko Euskarritegia egitasmoa onartzen den jakiteko eginiko bozketaren emaitza haxe izan da: 2 alde, 13 kontra eta 6 zuri.

Informazio eta Komunikazioaren Teknologia batzordea dela eta, P. Zabaletak esan du gai teknikoa dela eta beste era batera bidera daitekeela eta, orobat, desegin dadila eskatu du. A. Urrutiak gogorarazi du 2021-2024 aldirako proposatutako eta Osoko bilkurak onetsitako Plan Estrategikoaren ardatzen artean, digitalizazioa indartzea jaso dela, beraz, ez dela arrazoizkoa batzordea desagitea, are gutxiago etorkizun hurbilean halako apustu estrategiko sendoa egin nahi denean. P. Zabaletak bere proposamenari eusten diola aditzera eman duenez, batzordeari heltzen zaion jakiteko bozketa egin da. Emaita haxe izan da: mantentzearen alde 18 boto, 2 kontra eta 1 zuri.

Zerbitzuen atalean, zerbitzu orokorrekin, hizkuntzaren kalitatearekin eta zerbitzu teknikoekiko lotura duten aldiko plangintzek iruzkinik jaso ez dutenez, guztiak onetsi dira.

Maiatzeko Osoko bilkuran aurkeztutako organigrama aztertu ondoren, P. Zabaletak egin dituen beste hiru proposamen aztertu dira: Lege eta Ekonomia batzordea mantentzea, Corpus batzordea mantentzea eta Hizkuntza Eskubideen batzordea eratzea. Lehenbizikoari dagokionez, bozketaren emaitza haxe izan da: mantentzearen alde 2 boto, kontra 14 eta 5 zuri. Bigarrenari dagokionez, emaitza haxe izan da: mantentzearen alde 3 boto, kontra 14 eta 4 zuri. Azken proposamenari dagokionez, emaitza haxe izan da: sortzearen alde 2 boto, kontra 17 eta 2 zuri.

Horrenbestez, Iker eta Jagon sailtako, egiturazko batzorde eta egitasmoetako eta zerbitzuetako 2021-2024 aldiko planak aztertze eta onesteko/ezesteko prozesua amaitutzat eman da.

3. XXI. Barne-jardunaldiak. Euskaltzaindiaren Arautegiari aurkeztutako ohar- rrak aztertu eta erabakiak hartu.

M. Azkaratek, P. Zabaletak eta Zuzendaritzak oharra aurkeztu dituzte. M. Azkaratek Arautegia orraztea eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arabera egokitzea proposatu du. Zuzendaritzak adierazi du M. Azkaratek iradokitakoarekin bat egiten duela, Arautegiaren euskarazko edukiari eustearekin eta HIZBEAren eskutik kalitatezko hizkuntza-orraketa egitearekin eta, gerora, Osoko bilkurari horren berri ematea proposatu du. P. Zabaletak indarrean dagoen Arautegiari osoko zuzenketa aurkeztu dio.

M. Azkaratek aditzera eman du Arautegia berritzen hasteak denbora luzea eskatuko lukeela eta ez duela merezi. Era berean, aditzera eman duenez, P. Zabaletaren zenbait proposamen Barne-erregelatan txerta daitezke, horretarako Arautegia ukitzen ibili gabe. A. Urrutiak adierazi du 1976ko Estatutuak gaztelaniaz onetsi eta argitara eman zirela Estatuko Aldizkari Ofizialean, beraz, euskarazko bertsioa jatorrizkoaren itzulpena besterik ez da, gabeziak dituen eta, ondorioz, aparteko arazorik gabe egunera daitekeena. Ondorioz, Zuzendaritzak egokitzen jo du M. Azkarateren proposamena eta, bidenabar, ez du beharrezko ikusten Arautegia aldatzea. Izan ere, plan estrategikoan onartu direnak bideratzeko, nahikoa izan daiteke Barne-erregelatan aldaketak egitea.

Bestalde, P. Zabaletak eginiko osoko zuzenketaren zenbait atal Barne-erregelatan txertatzeko eginiko proposamena dela eta, gogora ekarri da otsaileko Osoko bilkuran onarturiko prozedura. Arautegia osorik berritzeko erabakia hartuko balitz, Barne-erregelen buruzko puntua geroratu eta Barne-erregelak berritzeko prozesua ireki beharko litzateke. Beraz, orain ardatz berri batzuen arabera Arautegia berri nahi den erabaki behar da eta erabakitako prozeduratik kanpo geratzen da orain Arautegiko zenbait atal Barne-erregelatan sartzeko saiakera, eztabaida hasierako puntura eramatea ekarriko lukeelako.

Horrela, P. Zabaletak aurkeztutako Osoko zuzenketaren edo M. Azkaratek eta Zuzendaritzak eginiko proposamenen artean erabakitzeko bozketa egin da. Emaitza hauxe izan da: lehenengo aukeraren alde 2 boto eta bigarren aukeraren alde 19

boto. P. Zabaletak Zuzendaritzak aurkeztutako proposamenaren kontra daudenen botoak kontatzeko eskatu du; kontra jasotako botoak 2 izan dira.

4. XXI. Barne-jardunaldiak. Euskaltzaindiaren Barne-erregelak. Aurkeztu.

M. Azkaratek eta Zuzendaritzak Barne-erregelei eginiko oharrak eta iruzkinak azaldu ditu E. Osa idazkariordeak. M. Azkaratek eginiko oharrak 2013ko bertsioa eta xedapenen hurrenkera kontuan hartuta egin dira; beraz, Idazkaritzak, edukia aldatu gabe, 2017ko bertsiora eta xedapenen hurrenkerara egokitu ditu. Aurkeztu den dokumentuak hiru zutabe ditu. Alde batetik, indarrean dagoen testua. Beste alde batetik, aldaketaren arrazoia, halakorik aditzera eman denean. Eta azkenik, proposatutako testu berria. Gainera, dokumentuaren bukaeran, ukitutako artikuluen zenbakiak jaso dira taula batean.

Aurkezpeneen ondoren, gaurko Osoko bilkuran aurkeztu diren xedapenei oharrrak egiteko aldia ireki da uztailaren 16a arte. Horretarako, Idazkaritzak hiru dokumentu igorriko dizkie euskaltzainei datorren astelehenean. Alde batetik, gaur aurkeztutako iruzkinak, euskarri digitalean. Beste aldetik, 2017ko Barne-erregelak. Azkenik, iruzkinak egin ahal izateko fitxa.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde ahaldunduen oharrak (XXVI). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

X. Videgainek, P. Zabaletak eta A. Urrutiak egindako oharrak aztertu eta erabakiak hartu dira. *aho* sarrerako 1. adierako definizioa aldatzeko eskatu zuen P. Zabaletak, baina ez da beharrik ikusi eta bere horretan utzi da. *aho(-)artatzaile* formari *Ipar* marka jartzea onartu da, eta P. Zabaletak eskatu zuen *hortzlari* (*horzlari*) forma, ia erabilerarik ez daukana, ez da oraingoz jasoko. *bullying* forma zerrendatik erretiratzeko onartu da, jatorrian duen adiera eta euskaraz hartu duena ez datozelako bat, eta aski izan daitezkeelako *eskola(-)jazarpen* eta *eskolako jazarpen* arautuak eta gardeenak. P. Zabaletak *guraso* sarreraren *gurasobakar* gehitzeko egindako eskaera onartu da, eta horrekin batera erabiliagoa den *guraso bakarreko* azpisarrerara ere ontzat eman da. *jabari* sarrerako definizioa moldatu egin da datu berrien argitan, eta hala geratu da: ‘Gauza gorpuzdun bat edukitzeko titulartasunak ematen duen ahala’. *subrogatu* eta *subrogazio* sarreretako definizioak aldatzeko eskatu du P. Zabaletak, baina

eztabaidaren ondoren, bere proposamena erretiratu du. Beraz, lantaldeak proposatu duena bere horretan onartu da. Azkenik, *emantzipatu* eta *emantzipazio* sarreraren definizioa moldatzeko eskatu zuen P. Zabaletak, baina A. Urrutiak jakinarazi du lege berri bat badagoela eta horren arabera berrikusi beharko dela proposamena. Erabakia, beraz, irailerako utzi da.

Esku artekoak.

6.1. Hurrengo bilkurak. Hona hemen:

Uztailaren 15ean, “Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen 40. urtearen atarian” izenburua daraman mintegia/jardunaldia egingo da. Mintegia Sabino Arana Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren (Sustapen batzordea) arteko lankidetzaren emaitza da.

Uztailaren 23an, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean egingo da uztailako Osoko bilkura, 10:00etatik aurrera.

6.2. P. Zabaletak aurkeztutako erabaki proposamena.

Batzar-deian ez badator ere, P. Zabaletak Osoko bilkurak aztertzeko eta, ondo ikusiz gero, onartzeko erabaki proposamena aurkeztu du. Hauxe: “Euskaltzaindiak bere atxikimendua eta onespina ematen dio Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak eta, aldi berean, euskalgintzako 100 eragilek onartutako Batuz Aldatu agiriari”.

A. Urrutia euskaltzainburuak gogora ekarri du inoiz etorri izan direla horrelakoak Euskaltzaindiara eta, horrelakoetan, Akademiak bere bidea egin duela, testuak idazten parte hartu duenean edo lankidetzan egin direnean sinatuz eta aurkeztuz. Horrela, Zuzendaritzak Kontseiluari igorritako erantzuna irakurri du: “Euskaltzaindiaren ibilbidean ohiko jarraibidea da adierazpenak izenpetzen ez ibiltzea, ezpada, Euskaltzaindiak berak paraturiko adierazpenen edo bera partaiden ekimenetatik eratorritakoak direla. Beraz, orain arteko bideari lotuko zaio Euskaltzaindia. Nolanahi ere, Euskararen Akademiak begi onez ikusten du euskararen biziberritzearen alde antolatzen edo abian jartzen den ekimen oro, hizpide darabilguna ere bai”. Ondorioz, orain arteko bideari eustea proposatu du.

Ondoren, euskaltzainei iritzia eskatu zaie. Gehien-gehienek iritzia izan da Euskaltzaindiak orain arteko bideari, **hots, bere bide propioari eutsi behar diola**, aldi-aldi aurkeztu zaizkion manifestuak eta halakoak eztabaidatzen aritu gabe.

Hori ikusita, inor seinalatua eta deseroso senti ez dadin, euskaltzainburuak bozketarik ez egitea erabaki du.

7. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:45 direnean.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
idazkaria

Osoko bilkura

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

2021eko uztailaren 23an

Batzar-agiria.

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kintana, Xabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso, Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba, zegozkien gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia
Arkotxa; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”;
Jabier Kaltzakorta; Andoni Sagarna eta
Mikel Zalbide.

Ahalak: Adolfo Arejitak ahala Andres
Urrutiari (iritsi bitartean); Aurelia Ar-
kotxak ahala Miriam Urkiari; Jose Irazu
“Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urru-
tiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres

Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Mi-
riam Urkiari; Mikel Zalbidek ahala An-
dres Urrutiari.

Batzarra Donostian, Luis Villasante
Euskararen Ikergunean, egin da, 2021eko
uztailaren 23an, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain
guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda
eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela
egiaztatu ondoren, uztailleko Osoko bilku-
rari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2021-06-25) bile- ra-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, X. Vide-
gain eta P. Zabaleta euskaltzainen iruzki-
nak jaso dira. A. Urrutiak ahoz bestelako
oharrik egin nahi den galdetuta, ez da
egin.

X. Videgainek batzar-agiriaren bi
idatz-zatiren gaineko ohar bana egin du.
Bestetik, P. Zabaletak, 6.2. puntuaren
azken paragrafoa beste batez ordezkia da-
din proposatu du. X. Videgainen bigarren
oharrak “orain arteko bideari, hots, bere
bide propioari” gehitzeko eginiko irado-
kizuna Osoko bilkuraren behin-behineko

bilera-agiri proposamenari gehituta, bilera-agiria onartzeko bozketa egin da.

Emaiza haxe izan da: onartzearen alde 17 boto, kontra 1 eta 4 zuri. Ondorioz, 2021eko ekainaren 25eko bilera-agiria onetsi da.

2. XXI. Barne-jardunaldiak. Euskaltzaindiaren Barne-erregelak. Jasotako ohar- rrak aztertu eta erabakiak hartu.

Ekainean, iruzkinak egiteko irekitako aldian, P. Rekalde, M. L. Oñederra eta P. Zabaleta euskaltzainek oharra aurkeztu dituzte. Horrela, hiru dokumentu banatu dira Osoko bilkuran. Alde batetik, P. Rekalderen oharra jasotzen dituen. Iruzkina linguistikoak dira, beraz, Barne-jardunaldiak amaitzean, Barne-erregelak osorik orraztu behar direnez, orduan hartuko dira kontuan. Beste aldetik, Zuzendaritzak, M. Azkaratek eta M. L. Oñederrak aurkeztutako iruzkinak eta P. Zabaletaren zenbait ohar/proposamen barruratzen dituen. Azkenik, P. Zabaletaren zenbait iruzkin jasotzen dituen. Azken horrek ez dauka 2021eko ekainaren 25ean Barne-erregela buruz aurkeztutako iruzkinekin loturarik, beraz, aparte jaso dira. Horrela, bigarren dokumentuan jasotako oharra eta iruzkinak aztertu dira Osoko bilkuran.

1.6. xedapenari inork ez dio oharrik egin, beraz, onetsi da.

3. artikulua dela eta, Zuzendaritzak proposatutako “Emerituen kasuan ez da mugarik izango” bozkatu da. Emaiza haxe izan da: 19 boto alde, 2 kontra eta 1 zuri.

4.1. artikulua dela eta, bi proposamen izan dira, Zuzendaritzak eta P. Zabaletak aurkeztutakoak. Adostasunik egon ez denez, Zuzendaritzak proposatutakoa onartzen den bozkatu da. Emaiza haxe izan da: 18 boto alde, 2 kontra eta 2 zuri.

Zuzendaritzak 4.2. xedapenean proposatutako aldaketak oharrik ez duenez jaso, onetsi da. Beste horrenbeste gertatu da 4.3. xedapenarekin.

Xedapen berri bat (Barne-erregelatan 4.4. xedapena izango dena) gehitzeko Zuzendaritzak eginiko iruzkinari M. L. Oñederrak zuzenketa aurkeztu dio. Azkenean, Zuzendaritzak aurkeztutako testuari “sustatuko” hitza gehitzea onartu du. Xedapena gutxitxo dela iritzita, P. Zabaletak bozketa egin dadin eskatu du. Emaiza haxe izan da: xedapenaren alde 19 boto, 2 kontra eta 1 zuri.

5.3. artikulua dela eta, bi proposamen izan dira, Zuzendaritzarenak eta P. Zabalearenak. Adostasunik egon ez denez, Zuzendaritzak eginiko proposamena onartzen den bozketa egin da. Emaita haxe izan da: 16 boto alde, 2 kontra eta 4 zuri.

7.5. xedapenean, M. Azkaratek Akademiaren ezaugarri-txartela erabili ahal izateari buruz eginiko galderaren harira, Zuzendaritzak gaia aztertzeko eta proposamena egiteko engaiamendua hartu du.

13.2 xedapena dela eta, bi proposamen izan dira, Zuzendaritzak eta P. Zabaletak eginikoak. Adostasunik egon ez denez, 13.2. xedapenari Zuzendaritzak proposatutako “Berrautapena egin daiteke elkarren segidako beste bi agintalditan” esaldia gehitzeko bozketa egin da. Emaita haxe izan da: 19 boto alde, 2 kontra eta 1 zuri.

Karguak berritzea dela eta, 13.4. xedapenari M. Azkaratek eginiko iruzkina erretiratu du eta aditzera eman du Zuzendaritzak aurkeztutakoarekin bat egiten duela. P. Zabaletak Zuzendaritzak eginiko proposamena ezabatzea proposatu du. Adostasunik egon ez denez, bozketa egin da. Emaita haxe izan da: 18 boto alde eta 4 kontra.

14. artikulua dela eta, M. Azkaratek eginiko oharra erretiratu du egileak berak. Izan ere, 2013ko Barne-erregelen bertsioa kontuan hartuz egin zuen.

14.9. artikulua dela eta, bi ohar jaso dira, Zuzendaritzak eta M. L. Oñederrak eginikoak. M. L. Oñederrak berea erretiratzea erabaki du eta, egoerak hala eskatzen duenean, erabaki da gaurko bilera-agirian jasotzea Osoko bilkurak online ere egin daitezkeela.

17.1. eta 17.4. xedapenek oharrik jaso ez dutenez, onetsi dira.

33.4. xedapena dela eta, bi ohar egin dira, Zuzendaritzak eta M. L. Oñederrak aurkeztutakoak, baina M. L. Oñederrak berea erretiratu eta Zuzendaritzak aurkeztutakoa onesten duela aditzera eman du.

56. artikulua dela eta, bi proposamen izan dira, Zuzendaritzak eta P. Zabaletak aurkeztutakoak; adostasunik egon ez denez, Zuzendaritzak eginiko proposamena bozkatu da. Emaita haxe izan da: 19 boto alde eta 3 zuri.

59.2. artikulua dela eta (bateragilea), bi proposamen izan dira, Zuzendaritzak eta P. Zabaletak eginikoak. Adostasunik egon ez denez, Zuzendaritzaren proposamena onartzen den ebazteko bozketa egin da. Emaita haxe izan da: 19 boto alde eta 3 zuri.

64.1. artikulua dela eta, bi proposamen izan dira, Zuzendaritzak eta P. Zabaletak eginikoak. Adostasunik egon ez denez, Zuzendaritzaren proposamena onartzen den ebazteko bozketa egin da. Emaita haxe izan da: 17 boto alde, 2 kontra eta 3 zuri. M. Azkaratek 64.7. xedapenari eginiko iruzkina bere horretan onartu da, bozketa egin beharrik izan gabe.

66.1. xedapena dela eta, P. Zabaletak iruzkindu du Zuzendaritzak eginiko proposamena. Ondorioz, Zuzendaritzaren proposamena onartzen den ebazteko bozketa egin da. Emaita haxe izan da: 18 boto alde, 2 kontra eta 2 zuri.

67. artikulua dela eta, M. Azkaratek Osoko bilkuraren egitekoak zeintzuk diren zehatz daitezen proposatu du. Zuzendaritzak gaia aztertzeko eta Osoko bilkurara proposamen bat ekartzeko engaiamendua hartu du.

IV. atalaren izenburua egokitzea onartu da, bai eta Zuzendaritzak 69. artikuluari eginiko oharra ere.

72. artikulua, batzordeetako lanen ordainketari buruzkoak, Zuzendaritzaren eta P. Zabaletaren ohar bana izan ditu. Adostasunik egon ez denez, Zuzendaritzak eginiko proposamena onartzen den bozketa egin da. Emaita haxe izan da: 19 boto alde, 2 kontra eta 1 zuri.

Zuzendaritzak 105. xedapenari eginiko iruzkina bere horretan onartu da. Zuzendaritzak 110. artikuluari eginiko oharrari “aldi” tartekatuta, M. L. Oñederrak eginiko oharra onartu da. Azken xedapena dela eta, oharrik ez duenez jaso, bere horretan onestea erabaki da.

Bigarren dokumentua aztertu ondoren, hirugarrenari buruz hitz egiteko, euskaltzainburuak hitza eman dio P. Zabaletari. P. Zabaletak aditzera eman duenez, Barne-erregelatan bainoago Arautegian egin behar dira sakoneko aldaketak. Gai hori, ordea, maiatzeko Osoko bilkuran aztertu eta erabaki zen. Ondorioz, P. Zabaletak hirugarren txostenean jasotakoa erretiratzea erabaki du.

Horrela, Barne-erregelen aztergaia amaitutzat eman da. Orain, Barne-erregeleri orrazketa orokorra egingo die Hizkuntzaren Kalitatearen Behatokiak, Baionan, 2021eko ekainaren 25ean, Arautegiarekin egitea erabaki zen bezala.

3. Euskaltzaindiaren 2020ko kontuen itxiera eta 2021eko aurrekontuak.

R. G. de Viñasprek hitza hartu du. Azaldu duenez, kontuen itxieraren eta urteko

aurrekontuen berri lehenago ematen zen aurreko urteetan. Aurten zertxobait atzeratu da, XXI. Barne-jardunaldiak denboran luzatu beharraren ondorioz. Halaber, azpimarratu du 2020ko auditoretza-txostenak Euskaltzaindiaren kudeaketa indarrean dagoen araubidearen arabekoak direla.

Ondoren, J. Zabaleta kudeatzaileak 2020ko aurrekontuaren betearazpena azaldu du, bai diru-sarreretan, bai gastuetan. Ekitaldia orekatua izan dela azpimarratu du, nahiz eta emaitzan 1.219,38 euroko galera txikia izan, kudeatutako aurrekontu osoaren % 0,043. Beraz, Euskaltzaindiak eta herri-erakundeek ez dute kezkarik izan behar ikuspegi ekonomikotik. Era berean, 2021. urteari doakionez, 2021. urterako prestatutako aurrekontuak aurkeztu ditu, Osoko bilkurak onartu berri duen Plan Estrategikoa kontuan hartuz. Inguruabar horretan, azpimarratu duenez, begiz jotako sarrerak baieztatuta daude eta, beraz, ez da zailtasunik aurreikus-ten 2021eko plangintza begiz jotako eran bideratzeko.

Euskaltzainei iritzia eskatuta, orobat eskertu da emaniko informazioa eta Ekonomia zerbitzuak eginiko lana ere. Halaber, zenbait argibide txiki eskatu eta eman dira. Gaiarekin amaitzeko, A. Urrutia euskaltzainburuak gogorarazi du urteko kontuen emaitzak Euskaltzaindiaren webgunean argitaratzen direla, oroitidazk-arekin batera. Era berean, norbaitek argibide gehiago nahi izanez gero, kudeatzailearekin harremanetan jar dadin iradoki du. Halaber, gogorarazi du dokumentuak eskuratu nahi izanez gero konfidentzialtasun klausulari men egin behar diola, Barne-erregelen arabera.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Telelanaren Oinarrizko Lexikoa.

M. Urkia Iker sailburu eta Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldunduaren idazkariak hitza hartu du. Gogorarazi duenez, Euskaltzaindiaren eta UZEIren arteko elkarlanaren barnean, *Telelanaren oinarrizko lexikoa* landu du UZEIk; 23 forma guztira. Batzorde ahaldundutik iritsi diren ohar bakarrak P. Zabaletak eginikoak izan dira eta horiek aztertu dira Osoko bilkuran. Ez dira aintzat hartu, kasuren batean, araututako forma aldatzeko eskatzen delako eta beste batzuetan zuzen-zuzenean telelanari ez zegozkion proposamenak direlako. Bilkuran eztabaidatu ondoren, oharrak kontuan ez hartzea onartu da.

5. Exonomastika. Munduko artelanak: arkitektura. Jasotako oharrrak aztertu eta erabakiak hartu.

Otsaileko bilkuran aurkeztu zen arauaia, eta epe bat jarri zen oharrrak egiteko. T. Peillenek eta P. Rekaldek egindako oharrrak aztertu ditu Exonomastika batzordeak, eta erantzuna prestatu du. A. Mujika batzordeko idazkariak eman ditu azalpenak, eta erantzunen txostena ere banatu da.

T. Peillenen oharrei dagokienez, 1. oharrean batzordeak proposatu du arauaia-
ren “Generikorik gabeko erabilera” izeneko paragrafoaren hasieran esaldi hau
sartzea: <Arkitektura-lan oro, izendapen formalean, atal generiko batez eta atal espezifikoko
batez osatuta egon ohi bada ere>. 2. oharrean, batzordeak kolumnadi proposamenari
eusten dio, eta horretarako azalpenak eman ditu. 3. oharrean, T. Peillenek propo-
satutako Saint-Denisko basilika onartu du batzordeak. 4. oharrean, Montmartreko
izenlaguna sartzea onartu du batzordeak, eta, beraz, honela uztea: <Montmartreko
Jesusen Bihotzaren basilika edo Sacré-Coeur basilika>. 5. oharrean, batzordeak azaldu
du bere proposamenak bi aukerak jasotzen dituela: egokitzea, <Familia Santuaren
basilika>, hala erabiltzen delako gaur egun (datuak eman ditu) edo jatorrizkoan
uztea, katalanez: <Sagrada Família>. 6. oharrean, batzordeak ez du proposatu *erresi-*
dentzia hitza, nazioartekoa izan arren eta euskaraz (gehienbat, beste adiera batzuetan)
erabiltzen den arren, Euskaltzaindiaren Hiztegian ez dagoelako eta euskal hiztegi eta
entziklopedietan ere ez delako ageri. Bilkuraren esku utzi du erabakia.

P. Rekalderen oharrei dagokienez, Euskaltzaindiaren Hiztegian agertzen ez diren
hitzei dagokienez, hauek dira batzordearen erantzunak:

- *alkazar* / *gotorleku* kasuan, Osoko bilkuraren esku utzi du erabakia.
- *artxibasilika* besterik gabe onartu du, garbi baitago.
- *erresidentzia* hitzaren kasuan, batzordeak ez du proposatu, ohartarazi besterik
ez du egin. Osoko bilkurak hitz hori erabiltzea erabakitzen badu, arauan sar-
tuko da. Bestela, *jauregi* hitza erabiliko da.
- *kolomadi* hitza erabiltzea proposatzen du batzordeak, erabilera-datuak ikusita.
- *tenplete* hitza proposatu du batzordeak, entziklopedietan erabili delako, baina
ez da nazioartekoa. Osoko bilkuraren esku gelditzen da *tenplete* onartzea edo
ez, eta, ez onartzekotan, zer hitz proposatu: *tenplutxo*, *tenplutto*, *tempietto* eta
abar.

Bestalde, Eufrasio eta Vital pertsona-izenei dagokienez, batzordeak garbi ikusi du 66. araua aplikatuta horiek direla grafia egokiak, eta, zalantzarik sortzen ez dutenez eta euskaraz tradiziorik ez dutenez, ez zaio beharrezkoa iruditu Onomastika batzordeari bidaltzea. *Santa Maria in Cosmedin* basilika edo *Andre Maria Cosmedingoaren basilika* eta *San Pietro in Montorio* edo *Done Petri Montoriokoaren tenpletea* kasuetan, batzordeak adierazi du bi formak aukeran ematen direla lehentasunik ezarri gabe, eta araugaiaren irizpideen partean “in” duten izendapen konplexuetan hau zehazten dela: “badirudi jatorrizkoa erabiltzea izan daitekeela irtenbiderik erosoena”.

San Paulo/Done Paulo eta *San Joan/Done Joanes* kasuetan, batzordeak berariaz aztertu zituen bi kasuak eta erabilera- eta tradizio-datuak bildu zituen aldez aurretik. Hori guztia ikusita, batzordeak erabaki zuen bi forma horiek ematea, aurreko arauetikiko koherentzia zainduz, 125. araua betez eta, gainera, tradizio idatzia eta gaur egungo erabilera guztiz nagusiak kontuan izanik.

Azkenik, batzordeko idazkariak gogorarazi du frantseseko *Canal du Midi* arkitektura-lanaren kasuan, Osoko bilkuraren esku utzi zuela batzordeak erabakia, hiru aukerarekin: *Midiko kanala*, *Canal du Midi* edo *Midi kanala*.

Ez da astirik izan batzordearen erantzunak eztabaidatzeko. Bestalde, P. Zabaletak egindako oharra ere ez du eztabaidatu oraindik batzordeak. Iraileko bilkuran eztabaidatu eta ebazteko utzi dira.

6. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde ahaldunduen oharra (XXVII). Aurkeztu.

Azken hilabeteotan, Batzorde ahaldunduko bi kidek (A. Iñigok eta M. Azkaratek) aldiro-aldiro igorritako zerrendei egin dizkieten oharra aurkeztu ditu M. Urkia batzordeko idazkariak bilkuran. Barne-jardunaldiak direla eta, ezin izan dira hilero aztertutako zerrendak banaka landu ahal izan: forma baztertu/isildu berrikusiak, adibideen txukunketa eta aztergai berriak dira, nagusiki, hil hauetan landu direnak. Ohi bezala, ohargileen oharra eta proposamenaren ondoren, hiztegiko arduradunen erantzun arrazoitua ageri da.

Txostena banatu ostean, oharra egiteko epea zabaldu da, irailaren 10a artekoa.

7. Esku artekoak.

7.1. Ibon Sarasola euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da. 2021eko uztailaren 11n, 75 urte bete dituen gero, Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne-erregelen 5.1. xedapenaren arabera, Ibon Sarasola euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da. Horiek horrela, hutsarte iragarri da Arautegiaren 33. artikulua arabera.

Hutsarte “hornitzeko proposamenak hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izango dira” (Arautegiaren 33. artikulua eta Barne-erregelen 64.3. xedapena). Horrela, gogorarazi da Arautegiaren 34. artikulua dioena: “Euskaltzain osoa izateko proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar dute. Proposamenaz batera, zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz”.

7.2. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak esparru-hitzarmen berria izenpetu dute 2021eko uztailaren 7an. Hitzarmen berriak 2021-2024 aldia barruratzen du eta, besteak beste, herri-erakunde bakoitzak egingo dituen diruzko ekarpenak eta Euskaltzaindiak jasotako dirulaguntzak justifikatzeko egin beharrekoak jasotzen ditu. Berrikuntza gisa, esparru-hitzarmen berriak Euskaltzaindiaren egoitzan, ordezkarietzan eta ikergutegietan egiten diren inbertsioak herri-erakundeek finantzatzeko aukera zabalik uzten du.

7.3. Mintzola egitasmoa. Egitasmo honen inguruabarrean, ahozotasunaren proiektuaren inguruko gogoeta egin da azken hilabete luze hauetan, Mintzola Fundazioan eta, zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzaren eta Euskal Herriko Bertsotale Elkartearen arteko bilerak egin dira, aurrera begirako urratsak zeintzuk izan daitezkeen ikusteko.

Bertsolaritzaz haratago, ahozko gainerako diziplinetan gehiago sakondu eta eragiteko beharrak bultzatuta ekin zitzaion Mintzola proiektuaren berrazterketari. EMUNek bideratuta, ahozko zenbait generotako ordezkariekin egin zen parte-hartze saioaren ondoren etorri zen GFaren eta EHBERen arteko bilera sorta. Ahozko lantegia eta Bertsotale Elkartearen proiektua fisikoki banatu eta ahozko-tasunaren lanketa beste modura batera bideratzeko beharrarekin bat etorri dira bi erakundeak.

Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2021eko uztailaren 19an, 2022tik aurrera Mintzola arduraren har dezan proposatu dio Euskaltzaindiari. Zuzendaritzan proposamena onartzea eta horren altxoan egitasmo bat hezurmamitzea erabaki da, 2021eko uztailaren 23an eginiko bilkuran.

7.4. Euskaltzaindia BADALAB Partzuergoaren sortzaileen artean. BADALAB laborategi bat da, Hizkuntza eta Gizarte berrikuntzako esperimentazio gunea. Partzuergo horretan, herri-erakundeek (Gipuzkoako Foru Aldundia eta Errenteriako Udala), gizarte eragileak (besteak beste, Soziolinguistika Klusterra eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua) eta bestelako erakundeek parte hartzen dute (besteak beste, EITB eta EHU). Partzuergoa Gipuzkoako Foru Aldundian eratu da, 2021eko uztailaren 21ean.

7.5. Barne-erregelen 67.9. eta 67.10. artikuluek diotena gogorarazi da. A. Urrutia euskaltzainburuak Barne-erregelen 67.9. artikulua eta 67.10. artikulua irakurri ditu, hain zuzen ere euskaltzain osoek bileretako eztabaidei buruz isiltasuna gorde behar dutela (67.9.) eta euskaltzain batek zer egin behar duen Akademiak dituen iritziz linguistikoen aurka zerbait adierazi nahi badu (67.10.).

7.6. Hurrengo bilkurak. Ondokoak gogorarazi dira:

Nafarroa Oinez dela eta, Nafarroako Ikastolen Elkarteak Euskaltzaindia gonbidatu du irailaren 17an, ostiralarekin, Lizarra Ikastolan egingen den jardunean parte hartzera. Xehetasunak irailean emango dira.

Irailaren 24an, Osoko bilkura Bilbon egingo da, egoitzan.

7.7. XXI. Barne-jardunaldiak amaitu dira. A. Urrutiak aditzera eman duenez, gaurko Osoko bilkuran, XXI. Barne-jardunaldietako azken aztergaia jorratu da, Barne-erregelena, hain zuzen. Horrela, 2021eko Barne-jardunaldiak amaitu direla azpimarratu du. Orain, onartutako Plan Estrategikoa gauzatzeko urratsak egin behar dira, kontuan hartuta, aldian-aldian onartutakoaren jarraipena egin beharko dela, behar izanez gero, egokitzapenak egiteko eta begiz jotako helburuak betetzeko.

8. Azken ordukoak.

P. Zabaletak aditzera eman du Nafarroako Administrazio Auzitegiak baliorik gabe utzi duela Berriozarko Udalaren kiroldegirako lanpostu baten deialdian euskararen ezagutza eskatzea; diskriminatzailea omen da euskara lanpostu baterako eskatzea. Ondorioz, udalaren asmo hori ezerezean laga du.

A. Urrutiak eskatu du ahalik informaziorik osoena Sustapen batzordeari helarazteko eta, hartara, Sustapen batzordeak gaia aztertu eta aurrera begirakoaz gogoeta egingo du.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:30ean.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Egoitzan, 2021eko irailaren 24an

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Rekalde, Paskual,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso, Osa, Erramun,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa; Jean-Baptiste Coyos; Roberto González de Viñaspre; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”; Txomin Peillen; Andoni Sagarna; Patxi Salaberri; Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Jean-Baptiste Coyosek ahala Andres Urrutiari; Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi Salaberrik ahala An-

dres Urrutiari; Xarles Videgainek ahala Patxi Zabaletari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari. Zalbidek ahala Andres Urrutiari

Batzarra Bilbon, Egoitzan, egin da, 2021eko irailaren 24an, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, iraileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2021-07-23) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, P. Zabaleta euskaltzainaren iruzkina jaso da. A. Urrutiak ahoz bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin.

P. Zabaletak batzar-agiriaren 3. aztergaiari doakion testua beste batez ordeztu dadin proposatu du. A. Urrutia euskaltzainburuak, Zuzendaritzaren eskumenak gogorarazteko asmoz, E. Osa idazkariordeari hitza eman dio Barne-erregelen 14.3. eta 14.4. artikulua irakur ditzan. Ondoren, bilera-agiria onartzeko bozketa egin da.

Emaizta hauxe izan da: testua zegoenean uztearen alde 16 boto, kontra 2 eta zuri 1. Ondorioz, 2021eko uztailaren 23ko bilera-agiria onetsi da.

2. Exonomastika. *Munduko artelanak: arkitektura.* Erabaki gabe utzitako ohar- rak aztertu eta erabakiak hartu.

Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkariak hitza hartu du. Gogor-
rarazi duenez, uztailleko Osoko bilkuran, araugaiari Tx. Peillenek eta P. Rekaldek
egindako oharren erantzunak aurkeztu zituen Exonomastika batzordeak, baina,
denbora faltagatik, ez ziren erabaki. A. Mujika Exonomastika batzordeko idazka-
riak ohar eta erantzun bakoitzaren laburpena egin du, eta banan-banan aztertu eta
erabaki dira. Hauek dira erabakiak:

Tx. Peillen euskaltzainak aurkeztutako oharrei dagokienez:

Araugaiaren irizpideen ataleko *Generikorik gabeko erabilera* puntuan, esaldi hau
erantsiko da paragrafoaren hasieran: Arkitektura-lan oro, izendapen formalean,
atal generiko batez eta atal espezifiko batez osatuta egon ohi bada ere, (...).

kolomadi/kolumnadia aferan, M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* lantaldearen
arduradunak adierazi du *koloma* eta *kolomadi* sartuko direla hiztegiaren hurrengo
eguneratzean.

Oharra onartu da; beraz, *Saint-Denis basilika* agertuko da zerrendan.

Oharra onartu da: *Montmartreko Jesusen Bihotzaren basilika* edo *Sacré-Coeur basilika*
agertuko da zerrendan.

Araugaian proposatu bezala onartu da: *Familia Santuaren basilika* edo *Sagrada Familia*.

Erresidentzia hitzari dagokionez, M. Urkiak adierazi du *erresidentzia* hitza hiztegia-
ren hurrengo eguneratzean sartuko dela, baina adiera bat baino gehiago dituela
eta adierak zehaztu beharko direla. Artelanari dagokionez, araugaian proposatu
bezala jarriko da: *Würzburg-eko jauregia*.

P. Rekalde euskaltzainak aurkeztutako oharrei dagokienez:

M. Urkiak adierazi du *alkazar* eta *tenplete* hitzak sartuko direla hiztegiaren hu-
rrngo eguneratzean; *artxibasilika* ez da sartuko ez delako orain arte agertu, baina
nazioarteko hitza denez ez dago arazorik erabiltzeko.

Eufrazio eta *Vital* pertsona-izenei dagokienez, ez dago arazorik; onartu dira.

Santa Maria in Cosmedin basilika, *San Paulo Harresiz Kanpokoaren* basilika, *San Joan Laterangoaren* basilika, *Andre Maria Nagusiaren* basilika eta *San Joan bataiotegia* arte-lanei buruzko argibideak entzun ondoren, onartu dira.

Bestalde, frantsesezko *canal du Midi* delakoa euskaraz adierazteko moduari buruz batzordeak aurkeztu zituen aukerak aztertu eta eztabaidatu ondoren, bozkatu da ea *Midiko kanala* edo *Midi kanala* forma bikoitza utzi ala *Midiko kanala* bakarrik utzi behar den. Emaita hauxe izan da: *Midiko kanala* bakarrik jartzearen alde 12 boto eta forma bikoitza jartzearen alde 8 boto. Ondorioz, *Midiko kanala* bakarrik jartzea erabaki da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde ahaldundua-ren oharrak (XXVII). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

Uztailaren 23ko Osoko bilkuran aurkeztutako proposamenei oharrak egiteko irekitako aldian, ez da iruzkinik jaso. Ondorioz, onetsi dira.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde ahaldundua-ren oharrak (XXVIII). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkarate, A. Iñigo eta P. Zabaleta euskaltzainek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Txostena banatu ostean, oharrak egiteko epea zabaldu da, urriaren 18a artekoa.

Esku artekoak.

5.1. Bernardo Atxaga 2021eko Liber Saria. Idazle eta euskaltzain osoaren ibilbide literarioa saritu nahi izan du Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioak, eta 2021eko Liber Saria eman diote B. Atxagari. Zorionak eman zaizkio Osoko bilkura-aren izenean.

5.2. Miren Agur Meabe euskaltzain urgazleak Espainiako Poesia Sari Nazionala irabazi du. *Nola gorde errautsa kolkoan* lanagatik saritu dute idazle lekeitiarra. Idazle saritua da Meabe: hiru aldiz irabazi du Euskadi Saria eta birritan Espainiako Kritikarena. Zorionak eman zaizkio Osoko bilkuraren izenean.

5.3. 2021-2024 aldirako Plan Estrategikoa gogoan, batzorde ahaldunduen indarraldia. *Euskaltzaindiaren Hiztegia: adierak eta adibideak* eta *Morfosintaxiaren Estandarizazioa* batzorde ahaldunduen indarraldiak aurkeztu dira. Osoko bilkurak bi-biak onetsi ditu, Barne erregelen 52., 106.1. eta 106.2. xedapenen arabera. Hortaz, bi batzorde horien indarraldiak iraungo du 2024ko abenduaren 31 arte, egun hori ere barne.

5.4. Hurrengo bilkurak.

Urriaren 8tik 10era Sarako Idazleen Biltzarra egingo da. Bertan, Euskaltzaindiak bi argitalpen aurkeztuko ditu.

Urriaren 22an, Baionan, Herriko Etxean, “Hizkuntzen ondarea babesteari eta sustatzeari buruzko legea” dela eta, jardunaldia egingo da, Euskal Konfederazioaren eta Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen eskutik.

Urriaren 29an, Gasteizen, Etxezarran, Osoko bilkura egingo da. Egun horretan, Gasteizko ordezkaritza irekitzeko ekitaldia izango da.

6. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:10 direnean.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
idazkaria

Osoko bilkura

Gasteizen, Etxezarra erakinean, 2021eko urriaren 29an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina,
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Irazu “Bernardo Atxaga”, Jose,
Kintana, Xabier,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Uribarren, Patxi, eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso, Osa, Erramun, zegozkien gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa; Jabier Kaltzakorta; Andoni Sagarna; Patxi Salaberri; Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Xarles Videgainek aha-

la Patxi Zabaletari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Gasteizen, Etxezarra eraikinean, egin da, 2021eko urriaren 29an, ostiralean. Bilkurari hasiera eman aurretik, Arabako ordezkari-tza berriaren irekitze-ekitaldia egin da.

Bertan izan dira Gorka Urtaran Gasteizko alkatea, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua, Pedro Eloseggi Arabako Batzar Nagusietako presidentea, Joseba Lozano Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria, Lexuri Ugarte Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu irekiko zuzendaria eta Gasteizko Udalean ordezkari-tza duten alderdietako ordezkariak, Iñaki Gurtubai (EAJ), Felix González (EH-Bildu), Estibaliz Canto (PSE), Ainhoa Domaica (PP) eta Garbiñe Ruiz (Elkarrekin Podemos).

Ekitaldiaren ondoren, 11:00etan, A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urriko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2021-09-24) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, P. Zabaletaren iruzkina jaso da. A. Urrutiak ahoz bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin.

Zabaletak batzar-agiriaren lehenengo aztergaiaren azken paragrafoan, "...horietatik 5 2021-09-24ean egon gabeak" gehitzea proposatu du. Aditzera eman da, bilera-agirietan, bozketen emaitzak jaso direnean, ez dela inoiz egondakoen eta egon gabekoen arteko bereizketarik egin. P. Zabaletak aditzera eman du proposamen berria dela eta hala jaso dadin nahi duela.

Adostasunik egon ez denez, aurkeztutako bilera-agiriaren proposamena onartzeko bozketa egin da. Emaitza hauxe izan da: bilera-agiria bere horretan onartzearen alde 16 boto, kontra 1 eta 5 zuri. Ondorioz, 2021eko irailaren 24ko bilera-agiria onetsi da.

2. Exonomastika. *Hizkuntza hil eta klasikoen araua* (47. araua) eguneratzeko proposamena. Aurkeztu.

A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkariak hitza hartu du. Azpimarratu duenez, Euskaltzaindiaren Hiztegiko lantaldearen arduradunak egindako eskaera baten haritik Exonomastika batzordeak 47. araua azertu du, ea eguneratu behar ote zen proposatzeko. Izan ere, arau hori 1995ekoa da, ez da inoiz eguneratu eta hizkuntza-zerrenda bat besterik ez da, irizpideak zehazten ez dituen. Exonomastika batzordeak, gerrora, beste arau asko prestatu ditu, eta hizkuntza-izenak eta herriar-izenak emateko irizpideak ere zehaztu ditu.

Azterketa horren ondorioz, batzordeak uste du arau horretan ageri diren 35 hizkuntza-izenetako 4 eguneratu behar direla, 142. arauarekin (*Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak*) eta 147. arauarekin (*Antzinateko hirien euskarazko izenak*) bat etorritzeko. Hala, *akadera*, *hatiera*, *likiera* eta *sumeriera* izenen orde, *akadiera* (*Akad* eta *akadtar* arautuekiko koherentzia izateko), *hattiera* (*Hatti* eta *hattiar* arautuekiko koherentzia izateko), *liziera* (*Lizia* eta *liziarr* arautuekiko koherentzia izateko) eta *sumerrera* (*Sumer* eta *sumertar* arautuekiko koherentzia izateko) jartzea proposatu du batzordeak. Kasu horietako bakoitzaren deskribapen xehea ageri da banatu den dokumentazioan.

Txostena banatu ostean, oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 19a artekoa.

3. Exonomastika: *Munduko artelanak: pintura, argazkigintza eta eskultura araua.* Aurkeztu.

Exonomastika batzordeko idazkariak esan duenez, Artelanen izenak euskaraz idazteko irizpideak ezartzeko langintzaren barnean, jada arau bihurtuta eta argitaratuta dauden. *Historiaurreko eta Antzinaroko artelanen izenak* (191. araua) eta *Artelanen izenak. Arkitektura* (193. araua) arauen jarraipen gisa, pintura, argazkigintza eta eskulturako artelanak araugaia landu du Exonomastika batzordeak. Aurrekoetan bezala, lehen zatian artelan-motak izendatzeko irizpide xeheak deskribatzen dira, ortografikoak eta ortotipografikoak. Bigarren zatian, mundu osoko eskultura eta pintura ospetsu batzuen zerrenda eskaintzen da, irizpide horiek nola gauzatzen diren zehazteko.

Exonomastika batzordeak hiru puntu argitzeko eskatu dio Osoko bilkurari:

Ea *Kristo Erredentorea* (*erredentore* ez da sarrera EHn) edo *Kristo Berreroslea* (*berrerosle* sarrera da EHn) izendatu behar litzatekeen Brasilgo estatua ospetsua, eta *erredentore* hitzaren erabilera-datu zehatzak eman ditu.

Toledoren ikuspegia edo *Toledoko ikuspegia* izenburuari buruzko iritzia eskatu du.

Ea *Gurutzetik jaistea* edo *Gurutzetik eraistea* izendatu behar litzatekeen Van der Weydenen margolan ospetsua, eta bi aukeren erabilera-datu xeheak eman ditu.

Bestalde, Euskaltzaindiaren Hiztegia ageri ez diren baina beharrezkotzat jotzen diren *odaliska*, *diban* eta *anuntziazio* hitzak ere onartzea eskatu du.

Aurkezpenaren ondoren, euskaltzainek, araua onartzean, hedatzea garrantzitsua dela iritzi diote. Horrela, aurkezpenak museoetako ordezkariak-eta tartean direla edota argitalpena askotariko erakundeekin egitea iradoki dute. A. Urrutiak ideia ona dela iritzirik, norabide horretan urratsak eginen direla esan du. Horren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 19a artekoa.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde ahaldunduen oharrak (XXVIII). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak aditzera eman duenez, iraileko bileran aurkeztutako oharrei A. Urrutiak eta M. L. Oñederrak egin dizkiete iruzkinak.

A. Urrutiak *administrazio(-)kontseilu*, *administrazio(-)zuzenbide*, *enpresa*, *erregeorde* 2

eta *erreginaorde* 2 formen definizioei buruzko oharrak egin ditu, eta hala onartu ditu Osoko bilkurak: *administrazio(-)kontseilu* ('Merkataritza-sozietateetan, horien eguneroko jarduerari buruzko erabakiak hartzen dituen batzordea, batzar orokorrak izendatua.');

administrazio(-)zuzenbide ('Zuzenbide publikoaren adarra, administrazio publikoaren esparrua osatzen duten subjektuen jarduera arautzen duena.');

enpresa ('Ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituen antolakundea.');

erregorde 2 ('Adin txikikoa edo ezgaia den erregearen ordeztatuburu den agintaria.');

eta *erreginaorde* 2 ('Adin txikikoa edo ezgaia den erreginariaren ordeztatuburu den agintaria').

M. L. Oñederrak *itzal* 3 sarrerako adibidea zuzentzeko eskaera egin du, eta hala onartu da: *Hor dauzkagu Bonaparteren itzalean lanari ekin zioten langile apalak*.

Gainerako formei buruzko idatzizko oharrak ez da jaso. Ondorioz, bere horretan onartu dira.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde ahaldunduaren oharrak (XXIX). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkaratek eta A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoiak biltzen dituen.

Txostena banatu ostean, oharrak egiteko epea zabaltu da, azaroaren 19a artekoa.

6. Euskaltzaindiaren 2022ko egutegia. Aurkeztu.

E. Osa idazkariordeak Euskaltzaindiaren 2022ko behin-behineko egutegia aurkeztu du. Aurkeztutako idatzian ageri dira osoko eta ageriko bilkurak egiteko egunak eta tokiak, bai eta bestelako gaiak ere (jardunaldiak, erakusketak eta abar).

Txostena banatu ostean, oharrak egiteko epea zabaltu da, azaroaren 19a artekoa.

7. Esku artekoak.

7.1. Ibon Sarasola euskaltzaina emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, hutsartea betetzeko aurkezturiko hautagaiak. Arautegiaren 33. eta 34. artikulak betez, hutsartea betetzeko, M. Azkarate, R. González de Viñaspre, P. Rekalde eta A. Sa-

garna euskaltzain osoek Alfontso Mujika Etxeberria euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Gaiaren merezimenduak xeheki aipatu dira aurkezturiko idatzian.

Hautagaiaren aurkezpen laburra:

Alfontso Mujika (Donostia, 1959): Ingeniaritza Tekniko Industrialak ikasi zuen EHUn. 1982-1987 bitartean, Donostiako AEKn lan egin zuen, irakasle, hasieran, eta Donostialdeko AEK-ko eraketa-arduradun azken hiru urteetan. 1987-1990 bitartean, Udako Euskal Unibertsitateko kudeatzailea izan zen. 1990az geroztik, Elhuyarren dihardu hizkuntza-teknikari: *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoaren* erredaktorea izan zen eta Klaudio Harluxet Fundazioak argitaratutako *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa* 8 liburukiko entziklopediaren erredakzio-burua ere bai (1995); halaber, telebistako *Teknopolis* zientzia-dibulgazioko programaren erredaktorea (1999-2001) eta zuzendaria (2000-2002) izan da. Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordeko kidea da 2008tik eta Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako Tecnun Ingeniaritza Goi Eskolako irakaslea da 2017az geroztik. 2002tik, Euskaltzaindiaren Exonomastika batzordeko kidea da, eta 2007tik batzorde horretako idazkaria. 2006ko maiatzaren 26an izendatu zen euskaltzain urgazle, eta Onomastika batzordeko kidea da 2016tik, eta 2017tik idazkaria. 2016tik, *Euskara Batuaren Eskuliburua* egitasmoaren aholkulari eta ohargilea ere bada. Gainera, 2019an, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak argitaratutako *Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak* liburuaren idazle eta prestatzailea izan zen.

7.2. Xabier Kintana euskaltzain emeritu izatera igaro da. 2021eko urriaren 13an, 75 urte egin dituen gero, Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne-erregelen 5.1 xedapenaren arabera, X. Kintana euskaltzain emeritu izatera igaro da. Horiek horrela, hutsarte iragarri da, Arautegiaren 33. artikulua arabera.

Hutsarte “hornitzeko proposamenak hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izango dira” (Arautegiaren 33. artikulua eta Barne-erregelen 64.3 xedapena). Horrela, gogorarazi da Arautegiaren 34. artikulua dioena: “Euskaltzain osoa izateko proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar dute. Proposamenaz batera, zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz”.

7.3. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko euskaltzain urgazleak eta ohorezko euskaltzainak, atzerrikoak barne direla, izendatzeko prozesua ireki da. Horrela, gogorazten da, proposamenak idatziz eta, gutxienez, bi euskaltzain osoren sinadura dutela aurkeztu behar direla. Halaber, gaiak aurrera egin ahal izateko, Osoko bilkuraren bozen nagusitasuna erdietsi beharko du. Beraz, hautagaiak azaroan zehar aurkeztu ahal izango dira. Bozketak, azaroaren 26an, Iruñean, egingo

den Osoko bilkuran egingo dira.

A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman du Zuzendaritzaren asmoa dela zerrenda bat adostea eta, ahal den neurrian, bozketa ekiditea, inor kanpoan gelditzea eta mintzea ekidin ahal izateko.

7.4. Hurrengo bilkurak.

Azaroaren 3an, egoitzan, 11:00etan, Bonifazio Etxegarai euskaltzain oso zenaren 3 argitalpen aurkeztuko dira. Euskaltzainei gonbita egin zaie ekitaldian parte hartu ahal izateko.

Azaroaren 12an, Donostian, San Telmo museoa "Euskal sustraiko jende izenak erromatar epigrafian. Soriako Tierras Altas hila hila" izenburuaren ildoan egingo den erakusketaren berri eman du R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak. Euskaltzainak gonbidatu dira hainbat astez bisitatze moduan egongo den erakusketara hurreratzeko.

Azaroaren 19an, Iruñean, Kondestablearen Jauregian, XXVI. Jagon Jardunaldia egingo da. S. Aleman Jagon sailburuak egitaraua xeheki aletu du. Euskaltzainei egitaraua eskuratu eta joateko gonbita egin zaie.

Azaroaren 26an, Iruñeko udaletxean, Osoko bilkura egingo da. Deialdiaren xehetasunak aurrerago emango dira.

8. Azken ordukoak.

P. Goenagak Gasteizko Udalak *Etxezarra* eraikinaren goialdea Euskaltzaindiaren esku jartzeagatik udalari eskerrak emateko gutuna igortzea proposatu du. Era berean, *Etxezarra* izenaren erabilerari buruz iritzia eman dezala eskatu dio Onomastika batzordeari, bai eta emaitza Gasteizko Udalari jakinaraztea ere, aurrerantzean etengabe erabiliko den izen hau ondo erabilia izan dadin.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:30ean.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
idazkaria

Osoko bilkura

Iruñeko udaletxean, 2021eko azaroaren 26an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Coyos, Jean-Baptiste, euskaltzainburuordea,
Arejita, Adolfo, idazkaria,
Urkia, Miriam, Iker sailburua,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Rekalde, Paskual,
Salaberri, Patxi
Uribarren, Patxi, eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso Osa, Erramun,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”; Txomin Peillen; Andoni Sagarna; Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Xarles Videgainek ahala Patxi Zabaletari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Iruñean, udaletxean, egin da,

2021eko azaroaren 26an, ostiralean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, azaroko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2021-10-29) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osak aditzera eman duenez, idatziz ez da oharrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2021eko urriaren 29ko bilera-agiria onartu da, bere horretan.

Bilera-agiriaren onarpenari dagokionez, P. Zabaletak eskatu du agirian jasotzea, alde batetik, berak zuri bozkatu duela, eta, bestetik, X. Videgainek ez duela bozkatu.

2. Ibon Sarasola euskaltzain emeritu izatearen ondoriozko domina hutsartea.

Arautegiaren 33. eta 34. artikuluen arabera, hutsartea betetzeko, M. Azkarate, R. González de Viñaspre, P. Rekalde eta A. Sagarna euskaltzain osoek Alfontso Mujika Etxeberria euskaltzain urgazlea aurkeztu zuten Gasteizen, Etxezarra erakinean, 2021eko urriaren 29an eginiko Osoko bilkuran.

Horiek horrela, hautagaia izendatzeko bozketa egin da. Denera, zuzenean eta ordezkatuak, 20 euskaltzain egon dira. Emaiza ondokoa izan da:

- Alfontso Mujika hautagaiaren alde: 18 boto.
- Boto zuriak: 2.

Ondorioz, Arautegiak eta Barne-erregelek diotena betez, Alfontso Mujika Etxeberria euskaltzain oso izendatu da.

3. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko euskaltzain urgazleak eta ohorezko euskaltzainak, atzerrikoak barne direla, izendatu.

A. Urrutia, J.-B. Coyos, A. Arejita, R. González de Viñaspre, M. Urkia eta S. Aleman euskaltzain oso eta Zuzendaritzako kideek, Akademiaren Arautegiaren 3. eta 38. artikuluek eta Barne-erregelen 6. artikulua diotenari jarraikiz, ondoko pertsonak proposatu dituzte euskaltzain ohorezko izateko, euskaltzain oso batzuei kontsultak egin ondoren:

ARABA-BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA	IPAR EUSKAL HERRIA	EHTIK KANPOKOAK
Antton Aldekoa-Otalora Zamalloa	L. Alberto Aranberri Mendizabal	Manolo Arozena Mitxelena	Piarres Aintziart	Bernhard Hurch
Pilare Baraiazarra Txertudi	Itziar Idiazabal Gorrotxategi	Carlos Garaikoetxea Urriza	Luzien Etxezaharreta Galtzagorri	José Antonio Pascual Rodríguez
Jesus Eguzkitza Gorostiza	Anjel Lertxundi Esnal	Maria Pilar Lasarte Zubitur	Daniel Landart Urruti	José María Sánchez Carrión
Juan Luis Goikoetxea Arrieta	Xabier Mendiguren Bereziartu	Daniel López Moreno	Mixel Oronoz Tricot	
Lontzo Zugazaga Martikorena	Jose Antonio Mujika Casares	Rosa Miren Pagola Petrarena	Marikita Tambourin	
	Ramon Saizarbitoria Zabaleta	Pakita Zabaleta Zabaleta		
	Josu Zabaleta Kortaberria			

Aurkezpenaren ondoren, hautagaiak banan-banan bozkatu nahi diren galdetuta, inork ez du halakorik proposatu. Ondorioz, aurkezturiko zerrenda aho batez onartu da.

Ondoren, euskaltzain urgazleen txanda iritsi da. Aztergai honi buruz, gogorarazi da gaurkoan Bizkaikoak, Gipuzkoakoak, Ipar Euskal Herrikoak eta Euskal Herri-tik kanpokoak izendatuko direla, Arabakoak eta Nafarroakoak lehenago izendatu ziren eta. Horiek horrela, A. Urrutia, J.-B. Coyos, A. Arejita, R. G. de Viñaspre, M. Urkia eta S. Aleman euskaltzain oso eta Zuzendaritzako kideek, Akademiaren Arautegiaren 3. eta 38. artikuluek eta Barne-erregelen 6. artikulua diotenari jarraikiz, ondoko pertsonak proposatu dituzte euskaltzain urgazle izateko, euskaltzain oso batzuei kontsultak egin ondoren:

BIZKAIA	GIPUZKOA	IPAR EUSKAL HERRIA	EHTIK KANPOKOAK
Libe Agirre Llona	Kike Amonarriz Gorria	Mixel Aurnague Miguelgorry	Manuel González González
Eneko Barrutia Etxebarria	Nerea Azurmendi Zabaleta	Eneko Bidegain Aire	Mikel Morris Pagoeta
Eba Gaminde Egia	Asun Garikano Iruetagoiena	Itxaro Borda Xarriton	
Pedro Mari Goikoetxea Linaza	Aizpea Goenaga Mendiola	Pantxo Etxegoin	
Nerea Mujika Ulazia	Oroitz Jauregi Nazabal	Marie-Andrée Ouret	
Elixabete Piñol Olaeta	Jon Sarasua Maritxalar		

Aurkezpenaren ondoren, hautagaiak banan-banan bozkatu nahi diren galdetuta, inork ez du halakorik iradoki. Ondorioz, aurkezturiko zerrenda aho batez onetsi da.

4. Exonomastika. *Hizkuntza hil eta klasikoaren araua* (47. araua) eguneratzeko proposamena. Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

A. Mujika euskaltzain oso izendatu berria eta Exonomastika batzordeko idazkaria batzar aretora sartu da. Euskaltzain osoak zutitu eta txalo artean egin diote harrera euskaltzain oso izendatu berriari. A. Mujikak hitza hartu eta eskerrak eman dizkie. Segidan, aurreko Osoko bilkuran aurkeztutako 47. araua eguneratzeko proposamenari egin zaizkion iruzkinak aletu ditu.

M. L. Oñederrak hattiera sarreran ahoskerari buruzko ohar bat sartzea proposatu du, «tt» hori dela eta. Exonomastika batzordeari egokia iruditu zaio. Ondorioz, oin-ohar hau sartuko da: “hattiera1 1 "tt" /t/ da, eta ez grafema horrek euskal forma oinarritzkoetan hartuko lukeen /c/ ahoskera palatal edo sabaikaria. Hau da, ez da *Mattin* bezala ahoskatzen”.

P. Zabaletak eskatu du 47. araua eta 53. araua osorik berraztertzea eta 38. araua, hein batean, berraztertzea, batetik, hizkuntza-izenak erabakitzeke irizpideen arabera erdara eta euskara formak desegokiak liratekeelako, eta, bestetik, 53. araua, batzordeak berak zaharkitua eta fosildua dagoela aitortu arren, ez duelako ezer proposatu egoera hori konpontzeko.

Exonomastika batzordeak adierazi du 47. araua osorik berrikusi duela eta proposatu dituen lau aldaketak besterik ez direla aldatu behar. Alegia, 47. araua osorik berraztertuta eta eguneratuta geldituko litzatekeela horrela. Ondorioz:

- 47. arauan, proposatutako lau aldaketak egitea onartu da (*akadera*, *hattiera*, *liziera* eta *sumerrera*).
- 53. araua eta 38. araua berraztertzeari dagokionez, Exonomastika batzordeak adierazi du 38. araua eguneratuta dagoela eta ez duela, beraz, beste eguneratzerik behar oraingoz.
- 53. arauari dagokionez, bi aukera proposatu ditu batzordeak: webgunean 38. araura bidaltzea, Hiztegi Batuko arauekin gaur egun egiten den bezala, edo 53. araura ekartzea orain 38. arauan estatu-izenen datuen barnean dauden hizkuntza-izenak. Eztabaidatu ondoren, webgunean 53. arautik 38. araura bideratzea erabaki da.

Aztergai hau jorratu ostean, Enrique Maya Iruñeko alkatea batzar-aretoa sartu da eta euskaltzainak agurtu ditu. A. Urrutia euskaltzainburuak Utergan, urriaren 23an aurkeztutako Joan Beriainen 1621eko *Tratatzen da nola entzun behar den meza* liburuaren faksimilea oparitu dio.

5. Exonomastika: *Munduko artelanak: pintura, argazkigintza eta eskultura* araua. Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

Lehenik, euskaltzain osoen oharra aztertu eta ebatzi dira. P. Zabaletak ohar orokor bat egin du arauaren izenaz, eta *Munduko artelanen lehen zerrenda araua*

deitzea proposatu du. Exonomastika batzordeak erantzun du araugaiaren helburua ez dela artelanen zerrendei hasiera ematea, baizik eta artelanak izendatzeko irizpi-deak finkatzea eta ematen den artelan-zerrenda adibidetzat baino ez dela ematen. Eta, bestalde, 191. eta 193. arauen segida denez, bi haien moldera izendatuko dela. Honela: 194. Artelanen izenak. *Pintura, argazkigintza eta eskultura.*

Ondoren, artelanen zerrendari buruzko oharra eztabaidatu dira banan-banan. Batzordeak aurkeztutako araugaia zerbait aldatzen duten ohar hauek onartu dira:

P. Zabaletak aurkeztutako oharren ondorioz onartutako aldaketak:

PROPOSAMENA	ERABAKIA
<i>Inpresioa, egunsentia</i>	<i>Inpresioa, eguzkia sortzen</i>
<i>Zabua / Zabuaren zorioneko istripuak</i>	<i>Zabua / Zabuaren pozezko istripuak</i>
<i>Done Jurgi eta dragoia edo San Jurgi eta dragoia</i>	<i>Done Jurgi eta herensugea edo San Jurgi eta herensugea</i>
<i>Folies-Bergereko taberna bat</i>	<i>Folies-Bergereko taberna</i>
<i>Whistlerren ama edo Gris eta beltzezko moldaketa, 1 zenbakikoa</i>	<i>Whistlerren ama edo Gris eta beltzezko 1. moldaketa</i>
<i>Brisa harrotzen (Aldeko haizea)</i>	<i>Haize kirria harrotzen (Aldeko haizea)</i>
<i>Biluzia diban batean eserita</i>	<i>Biluzia dibanean eserita</i>

M. Azkaratek aurkeztutako oharren ondorioz onartutako aldaketa:

PROPOSAMENA	ERABAKIA
<i>Natura hila tipulekin</i>	<i>Tipuladun natura hila</i>

Gainerako iruzkinak baztertu edo erretiratu dira. Ondoren, Exonomastika batzordeak araugaia aurkeztean Osoko bilkurari egindako galderak ebatzi dira. Hasi aurretik, M. Urkiak adierazi du Euskaltzaindiaren Hiztegiko lantaldearen bilera egin dela eta *odaliska*, *diban*, *anuntziario* eta *deikunde* sarrerak onartu dituztela eta hiztegiaren hurrengo eguneratzean sartuko direla. Ondorioz, *odaliska* eta *diban* hitzei buruzko zalantzak argitutzat jo dira.

Batzordeak egindako gainerako galderei oharra egin dizkiete M. Azkaratek eta P. Zabaletak. Banan-banan eztabaidatu ondoren, erabaki hauek hartu dira:

BATZORDEAREN ZALANTZA	ERABAKIA
<i>Kristo Erredentorea edo Kristo Berreroslea</i>	<i>Kristo Erredentorea</i>
<i>Buhamea lotan edo Ijitoa lotan</i>	<i>Buhamea lotan</i>
<i>Toledoren ikuspegia edo Toledoko ikuspegia</i>	<i>Toledoko bista</i>
<i>Anuntziazioa</i>	<i>Deikundea</i>

Azkenik, *Gurutzetik jaistea* edo *Gurutzetik eraistea* kasuan, M. Azkaratek, bere oharrean, *Elizen arteko Bibliak* darabilen forma (*Gurutzetik eraistea*) onartzea proposatu du. Bibliaren euskarazko beste bertsio batzuk badirela aipatu du A. Arejitak, eta, badaezpada, haietan, besteak beste, Lontxo Zugazagak eta Marcel Etxehandik zer erabili duten jakitea komeni dela adierazi. Egiaztapen hori egitea eskatu du, eta hala egitea onartu da.

6. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde ahaldunduen oharra (XXIX). Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak aditzera eman duenez, urriko bileran aurkeztutako oharrei inork ez die idatzizko oharrik egin. Nolanahi ere, bileran ahoz aipatutakoei erantzuteko asmoz, argibideak prestatu ditu Batzorde Ahaldunduak.

*gizarte(-)segurantz*a forma proposatu berriak *Heg.* marka behar ote zuen aipatu zen urriko bilkuran, nazioartekoa ote zen, horiek argitzea komeni zela. Datuak biltzen dituen dokumentua aurkeztu da, bai kontzeptua bai terminoa nazioartekoa dela erakusten duena. Ontzat eman da markarik gabe jasotzea, Batzordeak proposatutakoa, hain zuzen.

uretan eragin azpisarrerako adibide batean *Madelein* izena ageri zen, EODAn ageri ez dena, A. Iñigok gogorarazi zuen moduan. I. Nemirovskiren *Suite frantsesa* liburukoa da eta obretako izenak ez dira ukitzen, baina hiztegiko erabiltzaileentzat nahasgarria izan daitekeenez, izenik gabe jaso da adibidea: *Arropa xabonatzeko eta bihurtzeko* izaten.

Urriko Osoko bilkuran aurkeztutako gainerakoa bere horretan onartu da.

7. Euskaltzaindiaren 2022ko egutegia. Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

Oharra egiteko irekitako aldia ez da oharrik jaso. Ondorioz, Euskaltzaindiaren 2022ko egutegia onetsi da. Edozein gisaz, izurriteari aurre egiteko asmoz, herri-erakundeek onesten dituzten mugak kontuan izanik aldaketak izan ditzakeela jakitera eman da.

8. Esku artekoak.

8.1. Ramuntxo Camblong euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. Makean (Lapurdi) jaio zen, 1940ko azaroaren 11n. Elektronikako ingeniaria zen Camblong, baina euskalgintzan nabarmendu zen urte askotan: *Herria* astekariko diruzaina izan zen, Euskal Kultur Elkartaren buru ere bai, Seaskako sortzaileetako bat, eta EAJren Ipar Buru Batzarreko presidentea. Euskaltzain urgazle izendatu zen 1975eko ekainaren 27an, eta, batez ere, Jagon sailean jardun zuen (1991-1997).

Familiari eta lagunei doluminak adieraztea erabaki da Osoko bilkuran.

8.2. Arabako eta Nafarroako ordezkarietzan jarduteko bi lanposturen deialdia eginen da, datorren astelehenean aurrera. S. Aleman Nafarroako ordezkariak eta R. G. de Viñaspre Arabako ordezkariak adierazi dutenez, Nafarroako ordezkarietan Gema Insaustik erretiroa hartzearen ondorioz sortutako hutsarte betetzeko eta Arabako ordezkarietza indartzeko, bi lanposturen deialdia egitea erabaki da Zuzendaritzan. Interesatuak abenduaren erdialdera arte izena eman ahalko dute. Ondoren, hauen artean egokienak aukeratu eta probak eta aurrez aurreko elkarrizketak egingo dira.

8.3. Hurrengo bilkurak.

Abenduaren 3an, egoitzan, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak paratutako *Euskararen gramatika* aurkeztuko da. Argitalpen hori abenduaren 8an aurkeztuko da Durangoko Azokan, 11:00etan.

56. DURANGOKO AZOKA (abenduaren 4tik 8ra). Abenduaren 6an, UPV/EHUrekin batera argitaratu den *Bertsolaritzaren historia soziala. Oihartzuna, eragiletza eta gakoak (1823-2018)* liburua aurkeztuko da azokan. Elkarrizketa erara izango da eta streaming bidez emango da (17:30ean). Bertan izango dira Jon Sarasua bertsolaria eta Antxoka Agirre liburuaren egilea.

Abenduaren 9an, Baionan, Biltxokon, 18:30ean, Literatura solasaldia antolatu du Euskaltzaindiak. Ekitaldiaren xehetasunak azaldu ditu J.-B. Coyos buruordeak.

Abenduaren 16an, 09:30-13:00 bitartean, *Bonifacio Etxegaray Corta (1878-1956). Euskaldun ikasia – Un intelectual vasco* izeneko jardunaldia egingo da SAFen egoitzan. Zuzenbidearen Euskal Akademiak, Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak jardun dute elkarlanean egitaraua atontzen. E. Osa idazkariordeak jardunaldiaren xehetasunak azaldu ditu.

Gaurko bilkuran onartutako egutegia kontuan hartuz, 2022ko urtarrilaren 28an, Osoko bilkura egingo da Bilbon, Egoitzan. Egun horretan, 2021. urtean hildako euskaltzainak gogorarazteko Ageriko bilkura ere egingo da.

9. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:00ean.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Adolfo Arejita,
idazkaria

Euskaltzaindiaren *Arauak*

Exonomastika batzordea

2021eko araugintza

2021ean argitaratutako exonomastikako arauak

1) Urriaren 5ean, 193. araua argitaratu zen (193. araua: **Artelanen izenak. Arkitektura**)

2020an, 191. arauan, Historiaurreko eta Antzinaroko artelanak euskaraz adierazteko irizpideak eta adibideak eman ziren. Haren jarraipena da arau hau. Munduko era guztietako monumentuak euskaraz adierazteko irizpide orokor eta xeheak zehazten ditu. Artelanaren izendapenaren egituraren arabera zer aukera eta zer arazo dauden zehaztu ondoren, zer idatzi behar den letra larriz hasita eta zer letra xehez adierazten da arauan, bai eta zer irizpideren arabera erabakitzen den arkitekturako kanpoko artelan baten izena euskaratzea edo jatorrizko forma erabiltzea ere. Halaber zehazten da noiz ezaba daitekeen artelanaren izen generikoa (*eliza*, *zubia*, *jauregia*, *dorrea*...) eta zergatik, eta kasu berezi batzuetarako irtenbideak ere ematen dira (erdal artikuluekin zer egin, eraikin erlijioso batzuen izenen kasu bereziak...).

Irizpide nagusiak emateaz gainera, mundu osoko artelan ezagunen zerrenda bat ere ematen da arauan, arkitekturako 100 obratik gora dituen, eta, euskarazko izendapenaz gainera, gaztelaniazkoa, frantsesezkoa eta ingelesezkoa ere ematen dira. Hona hemen adibide batzuk:

Done Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika, Louvreko kolomadia, Mekako Meskita Handia, San Joan Laterangoaren basilika, Notre-Dame katedrala; Kaperasistinoa...

2) Abenduaren 21ean, 47. arau eguneratua argitaratu zen (47. araua: **Hizkuntza hilak eta klasikoak**).

Hizkuntza hil eta klasikoen arauaren jatorrizko bertsioa 1995ekoa da, eta hogeita

hamabost hizkuntzaizen biltzen ditu. Lehenengo arauetakoa da, duela hogeita bost urte baino gehiago emana, eta gerora Euskaltzaindiak 142. arauan ([Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak](#)) eta 147. arauan ([Antzinateko hirien euskarazko izenak](#)) zehaztu dituen irizpideekin eta hartu dituen erabakiekin bat etorrazteko eguneratu da, lau hizkuntza-izenetan garai hartan hartu zen erabakia ez baitzeturren bat geroa hizkuntzaizen horien jatorrian dauden lekuizenetarako araututako formarekin.

Horregatik, hizkuntza horien izenaren eta hizkuntza horren lurraldeen izenaren eta lurralde horietako herritarren izenaren arteko koherentzia ziurtatzeko, lau hizkuntza izen hauek eguneratu dira:

akadera (lehen, *akadiera*), haren jatorrian dagoen **Akad** lekuizenarekin eta **akad-tar** izen/adjektibo arautuekin bateratzeko.

hattiera (lehen, *hatiera*), haren jatorrian dagoen **Hatti** lekuizen eta **hattiar** izen/adjektibo arautuekin bateratzeko.

liziera (lehen, *likiera*), haren jatorrian dagoen **Lizia** lekuizen eta **lizar** izen/adjektibo arautuekin bateratzeko.

sumerrera (lehen, *sumeriera*), haren jatorrian dagoen **Sumer** lekuizen eta **sumer-tar** izen/adjektibo arautuekin bateratzeko.

~~~~~  
Bestalde, 2021eko azaroaren 26an, Osoko Bilkurak 194. araua (***Artelanen izenak. Pintura, argazkigintza eta eskultura***) onartu zuen. Dena dela, arau hori ez zen argitaratu 2021ean, 2022an baizik.



# ***Irizpenak eta txostenak***

**IKER Saila**

**Onomastika**

## Notas sobre el topónimo *Artica* / *Artika* (Navarra)

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

Académico de número de Euskaltzaindia

Los testimonios documentales antiguos del topónimo son los siguientes:

*Artica* (1093, 1127, Goñi, 1997: 80, 153; 1268, Felones, 1982: 662; 1366, Carrasco, 1973: 556), *Artiga* (1172, 1177, 1189, 1220, Goñi, 1997: 294, 307, 335, 441; 1221, 1232, García Larragueta, 1957: 179, 181, 239; c. 1234, Goñi, 1997: 493; 1239, 1241, *ibid.*, pp. 512, 517; 1258, García Larragueta, 1976-77: 453; 1268, Felones, 1982: 682; 1322, García Larragueta, 1976-77: 50, 51; 1322, García Larragueta, 1976: 51, 52; 1350, Carrasco, 1973: 386), *Miguel d'Artiga* (1259, Ostolaza, 1978: 247), *Artigua* (1316, 1340, 1341, García Larragueta, 1976: 45, 64, 65, 70; 1316, García Larragueta, 1976-77: 658), *Artica* (1366, Carrasco, 1973: 521). Además, Euskaltzaindia (1990: 147) recoge *Artiga* entre 1275 y 1279.

Carrasco (1973: 555-556) cita *Artigua* y *Artica* en «la cuenca de Pomplona» y las trata como si fueran dos localidades diferentes.

Encontramos el topónimo como componente de un antropónimo eusquérico en 1249, año en el que se documenta G. *Articaco* (García Larragueta, 1957: 320), es decir, lo que hoy escribiríamos *Garzia Artikako* “García de Artica”.

Según Corominas y Pascual (1987: 366) *artiga* en aragonés quiere decir ‘roza, terreno roturado’ y es palabra de origen prerromano común con el catalán, la lengua de Oc y el valón. *Artica* es, según los mencionados autores, una variante fonética del término *artiga* normal en gran parte de los valles pirenaicos.

En Navarra se ha fijado *Artica*, no *Artiga*, probablemente por influjo del euskera (cf. *pértiga* / *pertika*, nombre de una medida agraria), y en Bizkaia *Artika* es el nombre oficial vasco de un barrio de Bermeo (vid. Irigoien, 1986: 42), denominado en castellano *Artigas*, con velar sonora intervocálica y falso pluralizante, habitual en

topónimos eusquéricos empleados en castellano (cf. *Meagas* por *Meaga*, en Geta-  
ria, Gipuzkoa). En Bizkaia, en la localidad de Ispaster, existe el barrio denominado  
*Gardata-Artika*.

El equivalente eusquérico es *berro*, presente en *Berroeta* y seguramente también en  
*Berrotza* que dio *Berrueza* en romance, con diptongación de la vocal tónica. Tanto  
*Berroeta* como *Artica* están situadas al pie de sendos montes, la localidad baztanesa  
en la llamada *Basaburua* “la cabecera del bosque”, y la localidad de la Cuenca al pie  
de Ezkaba, con toda probabilidad porque, después de rozarse los terrenos llanos, se  
roturaron los más próximos a las zonas montañosas. Existía también un pequeño  
monasterio en la Cuenca de Pamplona, en la Cendea de Iza al parecer, en la ribera  
del Arga, denominado *Berroeta*, como la localidad de Baztan: «*Concedimus monaste-  
riolum super ripam fluminis Arga nomine Verroeta*» (Lacarra, 1965: 5).

De todos modos, sabemos que *Artica* ha sido empleado en euskera, pues la mi-  
crotoponimia de la zona lo deja bien claro: *Artikabidea* “el camino de Artika” o “el  
camino de la(s) artiga(s)” (escrito *Articabidea* en 1605, en Ochovi, AGN, protocolo  
de Juan Labayen, Ihaben, legajo 3). *Artikagain* “el alto de Artika” «monte que com-  
parten Artica y Ansoáin, al NO de éste» (Jimeno, 1992: 73, 155), *Artikahea* (1927),  
con versión romance *Debajo de Artica* (ibíd., 155). En la localidad de Oricáin, en el  
valle de Ezkabarte, se documenta *Articalanda* en 1696, 1795 y 1798 (NTEM LIX,  
197), pero parece que el topónimo no tiene nada que ver con la localidad de la  
cendea de Ansoáin y que se puede traducir, por lo tanto, como “la vega de la roza”.  
Sin embargo, estos testimonios son importantes porque revelan que *artika* tenía  
cierto uso como apelativo en euskera.

En resumen, podemos afirmar que el nombre objeto de estudio es un topónimo  
vasco, en el sentido de que ha sido utilizado en esta lengua, aunque con grafía  
romance (*Artica*), si bien es de origen prerromano. La grafía correcta en euskera es  
*Artika*, forma propuesta por la Real Academia de la Lengua Vasca.

Pamplona/Iruñea, 16 de abril de 2010

## Bibliografía

Carrasco, J., 1973, *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona: Universidad de Navarra.

Corominas, J. & Pascual, J. A., 1987, *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Madrid: Gredos, vol. A-CA.

Euskaltzaindia, 1990, *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, Pamplona: Gobierno de Navarra - Euskaltzaindia.

Felones, R., 1982, “Contribución al estudio de la iglesia navarra del siglo XIII: el libro del diezmo de 1268 (II). Transcripción e índices”, *PV* 166/167, 623-713.

García Larragueta, S., 1957, *El Gran Priorado de la Orden de San Juan de Jerusalem. Siglos XII-XIII. Colección Diplomática*, *PV*, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana.

\_\_\_\_\_, 1976, *Archivo parroquial de San Cernin de Pamplona*, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana - CSIC.

\_\_\_\_\_, 1976-77, *Documentos navarros en lengua occitana (primera serie)*, in *Anuario de Derecho Foral-II*, Pamplona: Diputación Foral de Navarra.

Goñi, J., 1997, *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona 829-1243*, Pamplona: Gobierno de Navarra, Pamplona.

Irigoién, A., 1986, “Las lenguas de los vizcaínos: antroponimia y toponimia medievales”, *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Bilbao, autoedición, 1-140.

Jimeno, J. M<sup>a</sup>, 1992, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. cendea de Ansoáin*, Bilbao: Euskaltzaindia, *Onomasticon Vasconiae* 9.

Jimeno, J. M<sup>a</sup> (dir.), 1999, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra LIX. Ezcabarte - Juslapeña*, Pamplona: Gobierno de Navarra.

Lacarra, J. M<sup>a</sup>, 1965, *Colección Diplomática de Irache. Volumen I (958-1222)*, Zaragoza: CSIC.

Ostolaza, I., 1978, *Colección Diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana - CSIC.

## Sobre el topónimo *Azoz / Azotz*

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

Académico de número de Euskaltzaindia

Algunos de los testimonios que este topónimo presenta en la documentación son los siguientes, ordenados cronológicamente:

*Acotz* («*Maria de Acotz*», 1255, Pamplona, García Larragueta, 1976-77: 444).

*Açotz* (1268, Felones, 1982: 666).

*Açoiz* («en *Soraurren*», 1280, Zabalo, 1972: 76). Se incluye en *Excavart*, y viene listado tras *Eussa* y *Ezcava*.

*Açoz* («en *Val de Excavart*», 1280, Zabalo, 1972: 151).

*Açotz* («la villa d'*Açotz*», «el terminat d'*Açotz*», «la eglesia de *Açotz*», «la primicia de *Açotz*», «la vyla de *Açotz*», 1314, García Larragueta, 1976-77: 639, 642).

*Açotz* («*Martin Yeneguitz d'Açotz*», 1325, García Larragueta, 1976-77: 726).

*Açoz* (1350, 1366, Carrasco, 1973: 395, 535, 566).

*Açoz* (1513, AGN, Comptos, registros 2ª serie, nº1, 12 r.).

*Açoz* («*Jv[ane]s de açoz de la casa de Adamerena vezº del lug[al]r de açoz*», 1579, AGN, protocolos de Villava, M. San Martín, 6, 22).

*Azoz* («En el termino de *azoz una vina [...] afr[onta]da con viña de Beltrangorena*», 1640, AGN, protocolos de Uharte, J. de Larrasoña, 40).

*Azoz* («*Azoz, l[ugar] del valle de Excabarte*», 1802, Real Academia de la Historia, vol. I, p. 40).

Parece que existió otro topónimo similar en Tierra Estella: «las heredades que tiene el Monesterio de Sant Millan de la Cogolla en el lugar de *Atçoz*, baxo de Estella» (sin fecha, García Andreva, 2010: 1004).

En toponimia menor, en Eusa, tenemos *Azotzaldea*, documentado desde 1718 como *Azozaldea*, y pronunciado en la actualidad en castellano *Azozáldéa* (NTEM 59: 54).

En euskera recogimos de boca de Enrique Nazabal, vascohablante de Beuntza (Atetz), la pronunciación del topónimo con fricativa final en caso absoluto, sin duda por influencia de *Azoz*, forma oficial entonces y única en la administración durante los últimos siglos, ya que esta ha funcionado, como es conocido, sólo en castellano. Sin embargo dicho informante pronunciaba *Azotzen* 'en Azotz', *Azotza* 'a Azotz', en inesivo y adlativo respectivamente, testimonios que mantienen la forma original con africada final típica de las hablas de esta zona de Navarra, y que coinciden a ese respecto con la variante medieval *Açotz*.

En cuanto a la etimología del topónimo en Salaberri (2011: 48) decíamos así:

Semejante al de *Alkotz* es el caso de *Azotz* que se podría considerar descriptivo, sobre *aza* «berza» (este nombre no aparece, que yo sepa, en toponimia vasca) más *-otz* locativo, pero la variante *Açoiz* de 1280 nos lleva a pensar en un origen antroponímico, en *Attio* (KAJANTO 1982, p. 163), es decir, en *\*Atjonis*, o mejor en una forma ya asibilada *\*Atzonis*, de donde *\*Atzoitz* > *\*Atzotz*. El problema aquí es el carácter africado de la primera sibilante, no documentado, pero la localidad se encuentra en zona donde la lengua vasca se ha perdido, y es posible que *\*Atzotz* haya existido.

De todos modos, estimamos ahora que otra posibilidad es pensar en una variante *\*Azo* (*\*Atzo* tal vez) del antroponímico *Azu* (o *\*Atzu*), presente por ejemplo en *Azubele* de la documentación legerense (*Azubele Enecoz*, Otsagabia, 1072; Martín Duque, 1983: 147; véase Irigoien, 1995: 54) a la que se le añadió el sufijo *-(i)tz* que indicaba pertenencia, de origen latino pero que había ganado autonomía y podía unirse a cualquier base antroponímica. Así sucede en el topónimo vizcaíno *Fruiz*, de un anterior *Fruniz*, con base en el nombre femenino medieval *Fruna*, o en el bajonavarro *Armendaritze*, cuna del conocido apellido *Armendáriz*, basado en el antroponímico *Armentari*, bien documentado en la Edad Media, al que se le ha añadido el sufijo mencionado. Es decir, y volviendo al nombre que nos ocupa, *Azotz* sería en origen 'la propiedad del llamado *\*Azo*'.

A manera de resumen, podemos afirmar que Azotz es la forma eusquérica tradicional y antigua del nombre de la localidad de Ezkabarte, que se ha convertido en castellano en Azoz, con fricativa interdental sorda final, dado que en esta lengua no existe el sonido [tʂ] que representamos en euskera con tz. La Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia (1990) normativizó el topónimo en euskera como Azotz, en publicación realizada por el Gobierno de Navarra.

Pamplona / Iruñea, 28 de julio de 2015

## Referencias

Carrasco, J., 1973, *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona: Universidad de Navarra.

Euskaltzaindia - Real Academia de la Lengua Vasca, 1990, *Nafarroako Herri Izen-degia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, Pamplona: Gobierno de Navarra - Euskaltzaindia.

Felones, R., 1982, "Contribución al estudio de la iglesia navarra del siglo XIII: el libro del diezmo de 1268 (II), Transcripción e índices", PV 166/167: 623-713.

Eskualdeko Hizkuntzen Ondarea Babesteari eta Sustatzeari buruzko Legea 2021eko apirilaren 8an onartu du Frantziako Asanblea Nazionalek, Senatuak 2020ko abenduan onartu ondotik. Lege horrek eraberritu du orain dela hiruretan hogeita hamar urtetik hona indarrean egon den bidea.

Euskaltzaindiaren aburuz, onartutako legea urrats garrantzitsua da, besteak beste, hizkuntza gutxiagotuak biziberritzeko asmoz, hezkuntzan murgiltze ereduak legezatzat duelako; gizarteekimeneko eskola eta ikastolen finantzaketa sendotzen duelako; hizkuntza elebiduna eskaintzen ez duten udalerriek irakaskuntza elebidunaren finantzaketan parte hartu beharko dutelako; ele bietako seinaleztapen publikoa arautzen duelako; edo hizkuntza gutxiagotuen grafia partez aintzat hartzen duelako.

Izan ere, Euskaltzaindiak uste du Frantziak zor historikoa duela hiztunen elkarte gutxituekin, luzaroan baztertuak izan baitira, euskara, bretoiera, katalana, okzitania, korsikera eta bestelako hizkuntzak baliatzen dituzten herritarrak, Frantziako Errepublikak aitortutako pertsona guztien eskubideen berdintasuna urratuz. Ondorioz, Frantziako Legebiltzarrak onartutako legea urrats garrantzitsua da, baina ez da nahikoa hizkuntza gutxiagotuak normalizatzeko egin beharreko ahaleginean. Horrela, Euskaltzaindiak Frantziako agintariei dei egiten die hizkuntza gutxiagotuak babesteko eta biziberritzeko asmoz, nazioartean indarrean dauden arauak eta emaniko gomendioak bete edota berrets ditzaten, tartean, 1992ko Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna eta, 2013ko irailaren 11n, Euro-

---

<sup>3</sup> Adierazpen hau euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz kaleratu zen. Hemen euskarazkoa argitaratu dugu.

pako Parlamentuak onetsitako Desagertzeko arriskuan dauden Europako hizkuntzei eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena.

Inguruabar horretan, Euskaltzaindiak kezka ikusten du Frantziako Asanblea Nazionaleko hiruretan hogeia diputatuk, onartu berri den legearen irismena murrizteko asmoz, Frantziako Kontseilu Konstituzionalean aurkeztutako helegitea, kolokan jar eta muga baitezake, besteak beste, hizkuntza gutxiagotuak biziberritzeko ezinbestekoa den murgiltze eredia, Ipar Euskal Herrian, Okzitania, Korsikan, Britainian eta abarretan. Ondorioz, Euskaltzaindiak bat egiten du hizkuntza gutxiagotuen, kulturen eta aniztasunaren alde lanean ari diren guztiekin, bereziki elkarte eta erakundeen ahaleginarekin, garrantzitsua baita elkartzea, indarrak batzea eta ahaleginak bizkortzea, hizkuntza gutxiagotuak aitzinatu, biziberritu eta normalizatu ahal izan daitezen.

61.a  
EUSKARA DANTZARA, PLAZARA... MUNDURA!<sup>4</sup>

XXVI. Jagon Jardunaldia prestatzeari ekin zionean, Euskaltzaindiko Sustapen batzordeak ikusgarritasuna eman nahi izan zien Nafarroako hezkuntzan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko abian diren esperientzia batzuei, eskola barneko lanean, bai eta eskolaz kanpokoan ere, besteak beste, aitortza modura. Bistan denez, jardunaldiotan aztertutakoak ez dira dauden guztiak, Nafarroako hezkuntzako eragileak etenik gabe ari baitira berrikuntzan, euskara eta euskal kultura biziberritzeko ahalegin kolektibo saiatuan, beste hizkuntza batzuen ezagutza ere segurtatzen dutela.

Ezagunak dira euskara ardatz duen hezkuntza sistemaren alde Euskaltzaindiak hainbatetan egin dituen deiak eta, orobat, norabide horretan erakutsi duen engaiamendua. Hala berean, zenbaitetan aipatu da eskola ez dela nahikoa, hizkuntza biziberritzeko ahalegin hori ez baita bide bakarrekoa. Gaurkoan ikusi ahal izan dugu hori! Euskarak eremu ez-formalak (jostalekua, karrika, aisialdia, kultura, kirola, lan-mundua eta abar) behar baititu hitzunak ohikotasunez euskaraz bizi daitezen! Euskara biziberritzearen azken xedea euskaraz arrunki bizitzea baita!

Bi-biak behar ditu euskarak, eskola barneko eta eskolaz kanpoko jardun indartsua; ahalegin hori ez doa inoren kontra, denon mesederako da eta. Ezagutzak aberasten gaitu, aukera berriak irekitzen ditu, bizikidetzan eta gizartearen kohesioan ekarpena egiten du. Ezagutzen ez denak, aldiz, mugatzen gaitu eta ikuspegia eskasten!

Hartara, bizi garen mundu globalizatu honetan, hizkuntzak jakiteak aukera berriak ireki ohi dizkigu, betiere, geure-geurea denari uko egin eta bazterrean utzi gabe. Horrela, Euskaltzaindiak eskertu nahi du hezkuntzaren arloan euskara biziberritzeko egin den ahalegin berebizikoa, aspalditik datorrena eta iturri anitzetatik elikatu dena. Orobat, eskertu nahi du gurasoen eginahala eta dei egin nahi die euskara ardatz duten ereduaren aldeko apustu sendoa egiten segi dezaten. Nafarroako herri-erakunde guztiei ere dei egin nahi die Euskaltzaindiak, gurasoen nahiari baikortasunez erantzun diezaioten eta euskara biziberritzearen aldeko engaiamendua

---

<sup>4</sup> Adierazpen hau euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu zen. Hemen euskarazkoa argitaratu dugu.

berrets eta indar dezaten. Era berean, bat egin dezagun denok behinola euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez zekien Bernart Etxepare idazle nafarrak 1545ean egindako aldarrikapenarekin; eraman dezagun euskara dantzara, plazara eta mundu osora.

Iruñean, Kondestablearen Jauregian, 2021eko azaroaren 19an.

## ***Berriak eta Omenaldiak***

# 2021eko albisteen kronika

Atal honetan Euskaltzaindiak sortu dituen edo erakundea ardatz izan duten berri garrantzitsuenak bildu ditugu. Aurtengoa ere urtea oparoa izan da ekimenetan, eta aukeraketa egin behar izan dugu. Hautatzea ez da erraza, eta beti dakar zerbait alboan uztea. Hargatik, guri esanguratsuak iruditu zaizkigunak hona ekartzean, irizpide nagusia izan da agerkari honetako atalen batean jada argitaratu ez izana –Arauak, Adierazpenak, Hilberri-txostenak eta abar– edo argitalpenen batean jaso ez izana –Jardunaldiak, batez ere–.

## URTARRILA

### Euskarazko Tesien VIII. Koldo Mitxelena sariak

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak, euskarazko ikerketa bultzatzeko eta sustatzeko asmoz, euskarazko tesien zazpigarren Koldo Mitxelena sariak antolatatu dituzte. Sari-emate ekitaldia UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Carlos Santamaria zentroan izan da, Nekane Balluerka UPV/EHUko errektorea eta Andres Urrutia euskaltzainburua han izan direla.

Mitxelena sariak duela hamalau urte hasi zuten bidea, euskarazko doktorego tesiak sustatzeko helburuz. Sariak, euskarazko zientzia bultzatzeaz gain, ikertzaile gazteen lana aitortzen dute eta euskara prestigiatzen, maila goreneko aitortza eginez.

UPV/EHUUn euskaraz eginiko doktorego-tesien kopurua gaur egun zinez esanguratsua da: 2019-2020 ikasturtean, 62 izan dira euskaraz eginiko doktorego-tesiak, duela bost ikasturte baino 25 gehiago. Aurreko ideari jarraiki, zientzian, beste hainbat jakintza-arlotan bezala, kopurua bezain garrantzitsua da kalitatea. Kalitate horren adierazgarri dira nazioarteko kalifikazioa lortzen duten tesiak. 2019-2020 ikasturtean, euskaraz egin diren tesien erdia baino gehiago nazioartekoak izan dira (% 52), duela bost ikasturte baino % 9 gehiago.



Mitxelena sarien VII. edizioan, UPV/EHUn 2018ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra arteko aldian euskaraz idatzi eta defendaturiko doktorego-tesiak aurkeztu ahal izan dira. Guztira, 74 tesi-egile aurkeztu dira sari hauetara, inoizko kopururik handiena; honela banatu dira, arloka, aurkezturikoak:

Zientzien arloan: 12 tesi.

Ingeniaritza eta Arkitekturaren arloan: 13 tesi.

Osasun Zientzien arloan: 17 tesi.

Gizarte eta Lege Zientzien arloan: 16 tesi.

Artea eta Giza Zientzien arloan: 16 tesi.

## OTSAILA

**Kalitatezko euskara sustatu eta zabaltzeko lau urterako hitzarmena izenpetu dute EITBk eta Euskaltzaindiak**

Hitzarmenaren helburu nagusiak dira euskararen eredu estandarra zabaltzea eta gizarteratzea, euskararen lantze funtzionala indartzea eta euskalkien eta hizkeren aberastasuna zaintzen laguntzea.

Andoni Aldekoa Euskal Irrati Telebistako (EITB) zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak 2024ko abenduaren 31 arte indarrean egongo den bi erakundeen arteko lankidetza hitzarmena sinatu dute. EITBren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza 2003tik dator, eta ordutik kalitatezko euskara sustatu eta zabaltzearen alde egin dute bi erakundeek.

EITBren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenean jasotzen denez, EITBko he-  
dabideek kalitatezko euskara estandar eredugarria zabaltzen eta finkatzen lagun-  
duko dute ondoko lau urteetan, Akademiaren arau eta irizpenak betetzeko engai-  
mendua hartzen dutela. Aldi berean, euskalkien aberastasuna aintzat hartzen eta  
bistaratzen ahaleginduko dira, hizkuntza erregistro egokiak erabiliz, saio bakoitzari  
eta komunikazio egoera bakoitzari dagokion eran.

Hori guztia aurrera eramateko, EITBk Euskaltzaindiaren laguntza eta kolaborazioa izango du. Gainera, EITBren testu-masa erabiltzen jarraitzeko aukera emango zaio Euskaltzaindiari, UZEIrekin, Elhuyarrekin eta IXA taldearekin batera garatzen diharduen *Lexikoaren Behatokia* osatu ahal izateko.

## MARTXOA

### **Euskaltzaindiak 2021-2024 aldiko lurralde-ordezkariek izendatu ditu**

Honela, Miriam Urkiak jarraituko du Gipuzkoako ordezkariz izaten, Sagrario Aleman izango da Nafarroako ordezkariz berria (Andres Iñigoren lekua hartuz), Roberto González de Viñasprek jarraituko du Arabako ordezkariz bezala eta Ipar Euskal Herriko ordezkariz berria Jean-Baptiste Coyos izanen da (Xarles Videgainen lekua hartu du).

### **Euskaltzaindiak *Lurraren Zientzien Oinarrizko Lexikoa* argitaratu du**

*Lurraren Zientzien Oinarrizko Lexikoaren* dokumentuak bi atal ditu:

– Euskara-atala, 1.609 sarrera dituen. Sarrera guztiek arlo-informazioa dute, marken bidez adierazia: *Geogr.*, *Geol.*, *Meteorol.*, *Miner.*, *Ozean.* eta *Paleont.* Lantaldeak beharrezko iritzi izan dionean, informazio osagarriak gehitu dira, hala nola kategoria gramatikala, erabilera-oharrak, ohar semantikoak eta adibideak. Sarrera guztietan, ingelesezko (en), gaztelaniazko (es) eta frantsesezko (fr) ordainak argitaratu dira.

– Erdarak-euskara atala, hiru azpiatalez osatua (en-eu, es-eu, fr-eu).

## APIRILA

### **Euskaltzaindiak *Lexikoaren Behatokia* eguneratu du**

Euskaltzaindiak *Lexikoaren Behatokia* eguneratu du: guztira 98.060.414 testu-hitz dauzka orain. Egitasmoaren helburua da XXI. mendeko euskararen corpus zabala eta eguneratua osatzea. Horretarako, material ugari biltzen da: egunkarietako albisteak, aldizkari orokorretako testuak, herri-aldizkari batzuenak, literaturan eta saiakeran ondutako testuak, hezkuntzako materiala, eta administrazio materiala.

Corpus etiketatua eta automatikoki lematizatua da, eta horrek modua ematen du hizkuntzaren erabilera hurbiletik jarraitzeko.

Gainera, testu-hitzak bilatzeko hainbat aukera eskaintzen du *Lexikoaren Behatokiak*. Hiru dira nagusiak: bilaketa arrunta, bilaketa aurreratua eta konparazio-bilaketa (formen artekoa, urtez urtekoa). Horiez gain, bilaketa gidatuak egiteko laguntzailea dago.

## MAIATZA

**Euskaltzaindiak Europa mendebaldeko hizkuntza gutxituen egoera aztertzen duen liburua plazaratu du Jagon sailean**

*Jagon 21: Hizkuntza gutxiagotuak zaindu, euskara jagon liburua aurkeztu du Euskaltzaindiak Iruñean. Nafarroako Gobernuaren laguntzaz editatu du lan hau Euskararen Akademiak, eta mendeurrenaren kariaz antolatutako XXIII. Jagon Jardunaldiko hitzaldiak biltzen ditu.*

2019ko urtarrilean, Jagon Jardunaldi berezia antolatu zuen Euskaltzaindiak Iruñean. Jardunaldiaren helburuak garbiak ziren: hizkuntza gutxituei buruzko ikuspegia landu eta aurreratzea, beste lurralde batzuetan egiten den lana Euskal Herrikoarekin batera uztartzeko betiere, aukera zientifiko egokia bilatuz. Bide batez, azken ehun urteetan Euskaltzaindiak euskararen jagote lanean zer egin duen erakutsi nahi zen, eta, horrekin batera, etorkizunean egin dezakeenaren inguruan hausnartu.

Mintegian parte hartu zuten hizkuntzalarien hitzaldiak jasotzen ditu liburuak, gehien-gehienak Europako mendebaldeko hizkuntza gutxituen egoerari buruzkoak. Besteak beste, Mikel Zalbide euskaltzain osoaren hitzaldia («*Euskaltzaindiaren ehun urteko jagon-lana: zenbait mugarri*»), Joan A. Argenterrena («*Diversidad lingüística, diversidad lingüística en España y academias: ecologías, regímenes, instituciones*»), Elena Chiocchettirena («*Language rights and minority language development in Italy: examples from the central Alpine arc*»), Jeroen Darquennesena («*Reversing Language Shift in European language minority settings: a tentative general outline of contemporary challenges and strategies*»), Jean-Guy Talamonirena («*De la création d'un champ littéraire à une*

*politique de normalisation linguistique») edo Juan Carlos Moreno Cabrerarena («Análisis ideológico del concepto de 'lengua regional europea' y sus consecuencias glotopolíticas»).*

### **Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuan egin du maiatzeko Osoko bilkura**

Bilkuraren aurretik, Unai Hualde Parlamentuko lehendakariak bere bulegoan hartu ditu Andres Urrutia euskaltzainburua, Sagrario Aleman Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria, Adolfo Arejita idazkaria, Miriam Urkia Gipuzkoako ordezkaria eta Jean-Baptiste Coyos Iparraldeko ordezkaria.

Euskaltzaindiko kideei egindako harreran Unai Hualdek adierazi du euskara hizkuntza propio gisa tratatzeko desio hori Parlamentuaren domina 2019ko abenduan Euskaltzaindiari eman zitzaionean agertu zuela, baina zoritxarrez ez dela hala gertatu: “oraindik ere badago etxe honetan gure hizkuntza, euskara, errezeloz hartzen duenik”.

Euskarari buruzko Foru Legearen inguruan dagoen eztabaidari dagokionez, Parlamentuko lehendakariak adierazi du batzuen iritziz “legea gaindituta” dagoela eta beste askorentzat, berriz, “gainditu ezinezko muga bat” dela gaur egun indarrean dagoen lege hori. Hala, Nafarroan euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko deia egin du, esaterako, “funtzio publikoan sartzeko merezimendu gisa baloratz”. “Zeharo naturala izan beharko litzateke, sen oneko kontu hutsa da”, gehitu du Uhaldek.

Amaitzeko, Euskaltzaindiak “euskararen defentsan eta sustapenean” duen pape-ra azpimarratu du, eta Euskaltzaindiarekin eta arlo honetan diharduten gainerako eragileekin batera norabide horretan lanean jarraitzearen aldeko apustua egin du.

## **EKAINA**

### **Euskaltzaindiak euskara hirian sustatzen lagunduko dio Gasteizko Udalari**

Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak berriki berretsi duten lankidetzat-hitzarmena aurkeztu dute, bai eta Gasteizko udalerriko toponimia historikoaren saileko beste liburuki bat ere, *Gasteizko toponimia. Arratzua III* izenekoak, hain zuzen. Prentsaurrekoan, Iñaki Gurtubai Gasteizko alkateorde eta Euskarako zinegotziak, Roberto González de Viñaspre euskaltzain oso eta Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariak eta Elena Martínez de Madina ikertzaile eta euskaltzain urgazleak parte hartu dute.

Hitzarmen berriaren bidez, Udalak 63.000 euro emango dizkio Euskararen Akademiari, urte osoan kultur zabalkunderako jarduerak, ikastaroak eta hitzaldiak antola ditzan. Horrez gain, Euskaltzaindiak euskararekin lotutako gaietan aholku emango die Gasteizko Udalari eta udal-zerbitzuei. Gainera, hirian hizkuntza babes-ten, zaintzen eta sustatzen jarraituko du Akademiak.

### **Gazteek bizitzari eta itxaropenari idatzi diote 2020ko Azkue Literatura sarietan**

Resurrección María Azkue Literatura sariak banatu dira Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan. Sari-emate ekitaldian, besteak beste, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Koldo Bilbao BBKren Kultura arloko arduradunak parte hartu dute.

Akademiak berak eta BBK-k 1991. urtetik antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusi. Jakina denez, bi genero saritzen dira Azkue sarietan: narrazioa eta poesia. Genero bakoitzak bi maila ditu: A maila (10 eta 13 urte bitarteko gazteentzat) eta B maila (14 eta 17 urte bitartekoentzat).

Urtero bezala, aurten ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, Euskaltzaindiak izendatu dituenak. Hauexek izan dira aurtengo epaimahaikoak:

- A mailan: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria eta Manu Lopez Gaseni.

- B mailan: Yolanda Arrieta, Amaia Jauregizar eta Patxi Zubizarreta.

#### **A mailako sariak**

Narrazioaren alorra:

Lehen saria: *Argi izpiak*. Egilea: Maria Illarramendi (Urola Ikastola, Azpeitia - Gipuzkoa).

Bigarren saria: *Abandonatutako estazioaren kondaira*. Egilea: Elene Aizpurua (Iraurgi Ikastetxea, Azpeitia - Gipuzkoa).

Hirugarren saria: *Kolore dantza*. Egilea: Maren Herrera (Hautzaro Ikastola, Oiartzun - Gipuzkoa).

Aipamen berezia: *Ez naiz hiltzearen beldur*. Egilea: Irati Zuntzunegi (Seber Altube Ikastola, Gernika - Bizkaia).

Olerkiaren alorra:

Lehen saria: *Insomnio gauak*. Egilea: Irati Hierro (Urola Ikastola, Azpeitia - Gipuzkoa).

Bigarren saria: *Bidaian*. Egilea: Amaia Zabala (Seber Altube, Gernika - Bizkaia).

Hirugarren saria: *Bakardadea*. Egilea: Ane Mugica (Haurtzaro Ikastola, Oiartzun - Gipuzkoa).

### **B mailako sariak**

Narrazioaren alorra:

Lehen saria: *Talde-lanak ekarritako galdera*. Egilea: Iker Niño (Udarregi Ikastola, Usurbil - Gipuzkoa).

Bigarren saria: *Elena Barrutia*. Egilea: Lutxi Iribarren (Bernat Etxepare Lizeoa, Baiona - Lapurdi).

Hirugarren saria: *Zapatatxo zuriak*. Egilea: Irene Garcia (Lauro Ikastola, Loiu - Bizkaia).

Olerkiaren alorra:

Lehen saria: *Munduari azaleratu*. Egilea: Uxue Armental (Pasaia-Lezo Lizeoa, Pasaia Donibane - Gipuzkoa).

Bigarren saria: *Izanak*. Egilea: Uxue Perez (Beasain BHI, Beasain - Gipuzkoa).

Hirugarren saria: *Gefangen*. Egilea: Ander Segarra (Lauro Ikastola, Loiu - Bizkaia).

## **UZTAILA**

### ***Euskara Batuaren Eskuliburuaren laugarren edizioa kalean***

Harrera ezin hobia izan duen *Euskara Batuaren Eskuliburuak* laugarren argitaldia ikusi du paperezko bertsioan. 2018ko urrian izan zuen lehena, eta orain, aurreko argitaraldiarekin konparatuta, ukitu txiki batzuk izan ditu. EBE digitalak ere jaso ditu, noski, aldaketa xume horiek. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* izan diren eguneratze eta aldaketek eragin dituzte, alde batetik, ukitu txiki horiek (esaterako,

*husna* hitza onartu izanak), eta bestetik, formari dagozkion bestelako doitze-egokitze-hobetze puntual batzuk.

### **Ahazkotasunaren ikerkuntzan eta hedatzean Mintzolaaren lekukoa har dezan proposatu diote Euskaltzaindiari**

Bertsogintza harago, ahazko gainerako diziplinetan gehiago sakondu eta eragiteko beharrak bultzatuta, azken urtebete honetan bere helburuen eta egitekoaren inguruko gogoeta egin du Mintzola Fundazioak. Prozesu horren ondorioz, patronatuko kideek aho batez erabaki dute fundazioaren ibilbidea amaitutzat ematea eta ahazkotasunari buruzko ikerkuntza eta hedatze lanaren lekukoa Euskaltzaindiak har dezala proposatzea. Villabonako Subijana Etxeak, berriz, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren eta Euskal Herriko Bertsotale Elkartearen egoitza izaten jarraituko du aurrerantzean ere.

Hartutako erabakiak Ahazko Lantegiaren eta Bertsotale Elkartearen proiektuak fisikoki banatzea dakar, eta, Mintzola kide diren erakunde eta eragileek hala adostuta, ahazkotasunaren lanketa beste modu batera bideratzea ekarriko du. Euskal Herriko Bertsotale Elkartea, Gipuzkoako Foru Aldundia, Villabonako Udala, UPV/EHU eta Kutxa Fundazioa bat etorri dira Mintzola Fundazioak euskarari eta euskal kulturgintzari egindako ekarpena azpimarratzeko garaian, urte hauetan guztietan hamaika ikerlan eta proiektu sustatu baititu. Aldi berean, eragile guztiek bere esker ona adierazi nahi izan diete urte hauetan guztietan Ahazko Lantegian lanean jardun diren pertsona eta eragile guztiei, izan teknikari, aditu, ikertzaile, herritar nahiz erakunde.

Berriki egindako batzarrean patronatuko kideek, beraz, fundazioa desegin eta Ahazko Lantegiaren jarraipena Euskaltzaindiaren esku uzteko proposamena hobetsi dute. Azken honek baiezkota eman ostean, inplikaturako eragileek, euskarazko ahazkotasunaren ikerketari eta dibulgazioari jarraipena eman asmoz, prozesu bat abiaraziko dute irailetik aurrera, errelebo horren inguruko baldintzak modu egokian eta adostuan gauzatu ahal izateko.

Mintzola Ahazko Lantegia 2008an sortu zen. Bertsolaritzatik abiatuta, ahazko tradizioaren gaineko hausnarketari eta ahazkotasunari loturiko diziplinen arteko elkarreragina bultzatzea izan du helburu azken urte hauetan guztietan, gizartearen premia berriei uztartuz eta, era berean, diziplina hauek indartuz. Horretarako,

bertsolaritzaren ikerketan sakontzen eta, horietan landutako hausnarketak go-goan, euskaraz diharduten beste ahozko kultur sorkuntzetara eta nazioarteko beste kantu inprobisatuetara zubiak eraikitzen saiatu da azken hamarkada honetan.

## IRAILA

Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Euskaltzaindiak 2021-2024 epealdirako esparru-hitzarmena berritu dute

Erakunde hauek bosgarrenez sinatu dute hitzarmena, lehenengoa 2000-2004 epealdikoa izan zen. Helburua erakunde sinatzaileen lankidetzarako oinarri orokorrak ezartzea da. Euskara ikertzeko eta zabaltzeko jardueren ikuspuntu integratu baten barruan, epe ertain eta luzera erronka berriak planteatzea ahalbidetuko du hitzarmenak.

Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, egin den ekitaldian Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriak, Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendari Lexuri Ugartek, Xabier Arauzo Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusi Garbiñe Mendizabalek parte hartu dute, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera.

Euskaltzaindiak epe ertaineko finantzaketa egonkortzeko eta behar diren ebaluazio eta segimendu mekanismoak ezarri ahal izateko lankidetzan jarraitzeko beharra azpimarratu dute hitzarmenaren sinatzaileek. Horrela “Euskaltzaindiari finantzaketa bermatuko zaio, euskararen gainean dituen arau, kontsulta, ikerketa eta zabalkunde eginkizunak bete ditzan”. Eusko Jaurlaritzak 5.040.000 euroko urte anitzeko dirulaguntza emango dio Euskaltzaindiari, Arabako Foru Aldundiak 400.000 eurokoa, Bizkaikoak 1.420.000 eurokoa eta Gipuzkoakoak 900.800 eurokoa.

Honakoak dira hitzarmenaren helburu nagusiak:

Herri-erakunde sinatzaileen eta Euskaltzaindiaren arteko koordinazio-harremnak eta mekanismoak antolatzea, konpromisoak hartzean eta aldizka kontuak ematean oinarrituta.

Helburu horiek bermatzeko behar diren lerro estrategikoak, helburu orokorrak eta ebaluatzeko mekanismoak ezartzea, alderdi guztiak ados jarrita.



Bere helburuak betetzen jarrai dezan, baliabideak ematea Euskaltzaindiari, hitzarmen honetan hartutako konpromisoen arabera.

Ikerketa-programen finantzaketa egonkortzea, epe ertainean.

Euskaltzaindiaren proiektuen eta batzordeen ikerketa-jarduerak bultzatzea eta areagotzea.

Euskaltzaindiak euskara zabaltze eta sozializatzeko aldera egiten dituen jarduerak sustatzea.

Euskaltzaindian, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa eraginkorra antolatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera bultzatzea, eta komunikazioa bermatzea eta hobetzea erabiltzaileei eskaintzen zaizkien arretari eta zerbitzuei dagokienez.

Hitzarmena sinatzen duten bost erakundeetako ordezkariak Jarraipen Batzorde bat eta Batzorde Tekniko bat osatuko dute, eta hauen ardura izango da hitzarmenaren betetze mailaren jarraipena egitea.

## URRIA

### **Ander Gil García Espainiako Senatuko presidentek Euskaltzaindiaren egoitza bisitatu du**

Espainiako Senatuko presidente batek Euskaltzaindia bisitatzen duen lehen aldia izan da gaurkoa. Txema Oleaga senatariarekin batera izan da Euskaltzaindiaren egoitzan.

Plaza Barriko eraikinean, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin eta Adolfo Arejita idazkariarekin batzartu dira. Etorkizunean, bi erakundeen arteko elkarlana sustatzeko goaio erakutsi dute batzuek eta besteek.

Bilkuraren aurretik, egoitzako liburutegia eta batzar-aretoa ezagutzeko aukera izan dute Gil Garciak eta Oleagak. Horrez gain, Euskaltzaindiaren Ohorezko Liburuan sinatu du Senatuko presidentek eta, ondoren, euskaltzainburuak hainbat liburu oparitu dizkie bisitariari, besteak beste, Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren edizio bat hainbat hizkuntzatan, Axularren *Guero* lanaren faksimilea eta *Oinarriko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioaren* bi ale.

## **Euskaltzaindiak Davant eta Casenaveren lanak aurkeztu ditu Sarako Idazleen Biltzarrean**

Prentsaurrekoan, Jon Casenavek esan du bere liburuak bi helburu nagusi dituela: “Alde batetik dago helburu historikoa; eta bestetik historiografikoa, lan honetan gogoeta bat egiten delako aipatzen diren liburu horietan agertzen den egin-molde historikoari buruz”.

Davantek ere gogotsu hitz egin du agerpenean, bere azken lanaren ezaugarriak azpimarratu dituela. Batetik, Jean de Jaurgain (1842-1920) Zuberoako jauntxo txikiaren profila ezagutzeko aukera ematen du liburuak; bestetik, Jaurgainek idatzitako lan bitxi baten itzulpena dakar. 1899an, Jaurgainek zuberotar ahozko literaturaren sei kondaira poetiko idatzi zituen *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* liburuan, eta hain zuzen horiek dira Davantek euskarara ekarri dituenak.

### **Gasteizko Udalak 25 urterako laga dio Etxezarra eraikina Euskaltzaindiari**

Gasteizko Udalak 25 urterako laga dio Etxezarra eraikina Euskaltzaindiari, eta aurrerantzean Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariaren egoitza izanen da espazio hori.

Gaur, espazioa ezagutzeko aukera izan dute Arabako hainbat erakundetako ordezkariak. Gorka Urtaran alkatearekin eta Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera, bertan izan dira Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua, Pedro Elozegi Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria, Joseba Lozano Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria, eta Lexuri Ugarte Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendaria.

Gorka Urtaran Gasteizko alkateak lagapenak hiriari ekarriko dizkion onurak azaldu ditu hitzaldian eta, Euskaltzaindiarentzat ere, une garrantzitsua dela azpimarratu du Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Iaz Udalak lekuaren jabari-emakida onetsi zuen, eta aurrerantzean Euskaltzaindiak bere gain hartuko ditu horniduren gastuak, altzarien zuzkidura, garbiketa, prebentzio- eta konponketa-lanak eta higiezina zamatzen duten zergak eta bestelako gastuak.

Akademiak askotariko jarduerak lantzeko baliatuko du azpiegitura berria. Alde batetik, herritarrak eta elkarte publiko zein pribatuak artatu nahi ditu Akademiak, betiere arreta jarritz euskararen ikerkuntzaren eta zabalkundearen eremuetan. Bes-

te aldetik, azpiegitura horretan egun Akademiak Gasteizen barreiatuta dauzkan eta etorkizunean abian jarri nahi dituen ikerketa-egitasmoak kokatuko ditu.

Euskaltzaindiak eskuratu duen espazioak 340 metro karratu erabilgarri ditu goiko solairuan (behealdean jatetxea dago), baina jada egokituta dago. Honela, espazioak gunee bat izango du ikastaro, hitzaldi edo liburu-aurkezpenak egiteko; beste bat Osoko bilkurak edo bestelako batzarrak egiteko; Akademiaren proiektuak bideratzeko leku bat ere izango da; kontsultak egiteko mediateka txiki bat eta, azkenik, Arabako ordezkariaren bulegoa.

## AZAROA

Euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen egoera aztertu du XXVI. Jagon Jardunaldian

Euskaltzaindiak Iruñean, Kondestablearen jauregiko hitzaldi aretoan, egin du XXVI. Jagon Jardunaldia. Honela, bertan izan dira Eduardo Aldasoro (pedagogoa); Marisa Zubiri, Maite Gorospe eta Alberto Barandiaran (Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua); Imanol Janices (Jaso ikastola); Alfredo Dufur (Nafarroako Toki-entitateetako Euskara Teknikarien Sarea); Maider Etxaniz (Lizarra Ikastola); Mirentxu Oteiza eta Nora Iriarte (EIBZ); Esther Lakasta (Dindaia Fundazioa); eta Marta Diez (Sortzen).

Hezkuntzak berebiziko garrantzia du euskararen biziberritze prozesuan. Ildo horri eutsiz, estrategikoa da hezkuntzan egitasmo eraginkorrak bideratzea gero eta eleaniztunagoak diren ikasleen artean. Baina, zein da euskarak Nafarroako hezkuntzan duen egoera? Nola kudeatu eleaniztasuna ikastetxeetan orain eta etorkizunean? Zein erronka eta aukera berri ditu euskarak gela barnean eta gelatik kanpo? Zein egitasmo ari dira garatzen gela barnean eta gelatik kanpo?

**Alfontso Mujika ingeniari eta hizkuntzalari gipuzkoarra euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak**

Euskararen Akademiak euskaltzain berria izendatu du, Iruñeko udaletxean egin den Osoko bilkuran. Euskaltzain osoek bozketa egin dute Ibon Sarasola emeritu

izatearen ondorioz sortutako hutsunea betetzeko, eta Alfontso Mujikak erdietsi du Euskaltzaindiaren Arautegiak eskatzen duen gehiengoa.

Gogoratu behar da uztailaren 23an, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean egindako Osoko bilkuran, Akademiak euskaltzain emeritu izendatu zuela Ibon Sarasola euskaltzain osoa; jakina da emeritu izateko 75 urte beteak izan behar dituztela euskaltzain osoek. Ondoren, urriaren 29an amaitu zen hutsune hori betetzeko hautagaiak aurkezteko epea. Hautagai bakarra aurkeztu zuten euskaltzainek Gasteizko Osoko bilkuran (Alfontso Mujika Etxeberria) eta gaurko bilkuran hizkuntzalari gipuzkoarraren aldeko hautua egin dute euskaltzainek.

Orain, zortzi hilabeteko tarte izango du Mujikak sarrera-hitzaldia paratzeko, eta epe bera izanen du erantzunezko idazkia egin behar duen euskaltzainak berea prestatzeko. Horren buruan, harrera ekitaldia egingo da.

Ibon Sarasola euskaltzain emerituaren lekua beteko duen euskaltzain osoaren profil laburra:

**Alfontso Mujika Etxeberriak** (Donostia, 1959) Ingeniaritza Tekniko Industrial ikasi zuen EHUn. 1982-1987 bitartean, Donostiako AEKn lan egin zuen, irakasle hasieran, eta AEK-ko Donostialdeko eraketa-arduradun gisa azken hiru urteetan. 1987-1990 bitartean, Udako Euskal Unibertsitateko kudeatzailea izan zen.

### **Euskaltzaindiak 19 urgazle eta 26 ohorezko berri izendatu ditu**

Euskaltzaindiak urgazle eta ohorezko berriak izendatu ditu. Batzuen eta besteen zerrendak joan den ostiralean onetsi ziren aho batez, Iruñean eginiko azaroko Osoko bilkuran. Urgazleei dagokienez, oraingo honetan, Gipuzkoakoak, Ipar Euskal Herrikoak eta Bizkaikoak baino ez dira izendatu, Arabakoak 2015eko uztailaren 17an izendatu baitziren, eta Nafarroako azken urgazleak 2016ko apirilaren 29an. Azken ohorezkoak, berriz, 2018ko apirilaren 27an izendatu ziren.

Hona hemen ohorezko (26) eta urgazle (19) berrien izenak:

## OHOREZKOAK

**Araba/Bizkaia:** Antton Aldekoa-Otalora (Iurreta, 1951); Pilare Baraiazarra (Meñaka, 1938); Jesus Eguzkitza (Atxondo, 1946); Juan Luis Goikoetxea (Mungia, 1947); Lontzo Zugazaga (Gamiz, 1943).

**Gipuzkoa:** Luis Alberto Aranberri *Amatiño* (Eibar, 1945); Itziar Idiazabal (Gaintza, 1949); Anjel Lertxundi (Orio, 1948); Xabier Mendiguren Bereziartu (Ezkio-Itsaso, 1945); Jose Antonio Mujika (Donostia, 1943); Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944); Josu Zabaleta (Legazpi, 1948).

**Nafarroa:** Manolo Arozena (Goizueta, 1949); Carlos Garaikoetxea (Iruñea, 1938); Maria Pilar Lasarte (Leitza, 1937); Daniel Lopez (Ablitas, 1948); Rosa Miren Pagola (Iruñea, 1949); Pakita Zabaleta (Leitza, 1948).

**Ipar Euskal Herria:** Piarres Aintziart (Heleta, 1937); Luzien Etxezaharreta (Hazparne, 1946); Daniel Landart (Donostiri, 1946); Mixel Oronoz (Baigorri, 1935); Marikita Tambourin (Baigorri, 1946).

**Euskal Herritik kanpokoak:** Bernhard Hurch (Schärding/Inn, Austria, 1955); José Antonio Pascual (Salamanca, 1942); José María Sánchez *Txepetx* (Cartagena, 1952).

## URGAZLEAK

**Bizkaia:** Libe Agirre (Meñaka, 1961); Eneko Barrutia (Bilbo, 1966); Eba Gaminde (Mungia, 1968); Pedro Maria Goikoetxea (Lezama, 1959); Nerea Mujika (Durango, 1960); Elixabete Piñol (Bilbo, 1965).

**Gipuzkoa:** Kike Amonarriz (Tolosa, 1961); Nerea Azurmendi (Legazpi, 1961); Asun Garikano (Tolosa, 1962); Aizpea Goenaga (Donostia, 1959); Oroitz Jauregi (Legorreta, 1974); Jon Sarasua (Aretxabaleta, 1966).

**Ipar Euskal Herria:** Mixel Aurnague (Baigorri, 1963); Eneko Bidegain (Baiona, 1975); Itxaro Borda (Oragarre, 1959); Pantxoa Etxegoin (Jatsu, 1960); Marie-Andrée Ouret (Suhuskune, 1970).

**Euskal Herritik kanpokoak:** Manuel González (Beba -Mazaricos-, A Coruña, 1951); Mikel Morris (Denver, Colorado, AEB, 1957).

## ABENDUA

### XXI. mendeko *Euskararen Gramatika* argitaratu du Euskaltzaindiak

Azken hogeita bost urte hauetan argitaratu diren gramatikek baliatzen dituzten kontzeptuak aintzat hartu dira Gramatika berria egiterakoan. Honela, kontuan hartu dira azken urteetan egindako ikerketa teorikoak, baina deskribatzailea da gramatika hau, ez teorikoa.

#### Berritasunak:

‘deklinabide’ eta ‘kasu-sistema’ kontzeptuak bereizi dira, eta, Van Eysek XIX. mendearen amaieran egin bezala, euskaraz ‘kasu atzizkiak’ eta ‘postposizio atzizkiak’ ere bai.

‘argumentu egiturak’ eta ‘paper tematikoak’ kontuan hartu dira aditzen sailkapena egitean, baita hitz elkarketa eta eratorpena aztertzean ere.

‘hitz ordena’ kontzeptua ikuspegi zabalago batetik aztertu da, eta ‘sintaxi egitura’ eta ‘informazio egitura’ bereizi dira. Eta informazio egitura aztertzean EGLU-I Eranskineko kapitulua osatu da.

Morfologia lexikoari zazpi kapitulu eskaini zaizkio: Euskaltzaindiak hitz elkar-ketaz argitaraturiko lau liburukiak laburtu eta eratorpen atzizkiak banan-banan aztertu dira.

Izenari, adjektiboari, izenordainei, adberbioari, determinatzaileei eta aditzei eskainitako kapituluak sakonki berritu dira. Hau da, EGLU-I eta EGLU-II goitik behera berrikusi, aldatu, eta osatu dira.

Perpausetik goragoko ikuspegian sakondu eta diskurtso markatzaileei bi kapitulu mardul eskaintzea erabaki da, argitaratu zenean guztiz berria zen ‘lokailu’ en gaia (EGLU-III) osatu, ‘diskurtso-markatzaile’ en barruan kokatuz.

**Urtero lez, Euskaltzaindia Durangoko Azokan izan da, eta 2021eko argitalpenak eraman ditu bertara**

Aurten Azoka presentziala izan da (aurretik erreserba eginez), baina iazko ildoari jarraituz, denda digitala ere prestatu dute antolatzaileek.

Beraz, Euskaltzaindiak 2021ean argitaratu dituen liburuak eskuratzeko aukera

anitz izan dute irakurleek. Tartean, Gerediak sortu duen salmenta gune digitala eta, nola ez, Euskaltzaindiaren webgunean.

Euskaltzaindiak bi lan aurkeztu ditu Azokan: abenduaren 6an Antxoka Agirre-ren *Bertsolaritzaren historia soziala: oihartzuna, eragiletza eta gakoak (1823-2018)*, eta 8an Euskararen Gramatika.

Bestalde, Akademiak nobedade hauek aurkeztu ditu aurren:

- Gipuzkoa Antzinaroan: *Hizkuntzak eta eremu linguistikoak Onomastikaren argitan*
- *Euskal literatura itzuliaren egitura eta islak*
- Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak (1790-1807)
- *Euskararen Literaturaren Historia*
- *Hizkuntza gutxiagotuak zaindu, euskara jagon*

**Laurogei sarrera eta 103 azpisarrera berri gehitu dira *Orotariko Euskal Hiztegia*n**

OEH eguneratu du Euskaltzaindiak: 14.600 adibide egituratu dira TEI delako testu-kodeketaren arabera, adibidetegian kontsultak egiteko aukera zabalduz, eta 80 sarrera eta 103 azpisarrera berri gehitu dira.

Horrez gain, Santiago Onaindiaren *Santa Teresa Eliz-irakasle* liburua osorik hustu da, bertako adibideak aukeratu eta OEHn txeratu direla. *Lizarraga Elkanokoaren Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak* liburuko adibideak ere sartu dira.

*Orotariko Euskal Hiztegiak* euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzea du xede. 1987an argitaratu zen paperean lehen liburukia eta 2005ean hamaseigarrena eta azkena.

Euskaltzaindiak orain eskaintzen duena hiztegiaren oinarritzko bertsio elektronikoaren 9. argitaraldia da eta Creative Commons lizentziapean banatzen da.

Egituratzelanean jarraitzen du Euskaltzaindiak, hiztegiaren barne-egitura etengabe zuzenduz eta hobetuz. Lan horiei esker, hiztegiak azpisarrerak eta hainbat aldaera ere topatzeko gai da orain bilatzailea.

**2021ean Euskaltzaindiaren Hiztegia eguneratu da eta 921 forma berri jaso dira**

2021ean, guztira 2.202 forma landu dira: 1.281 moldatu eta 921 forma berri jaso (638 sarrera eta 283 azpisarrera).

Hitz ugari gehitu zaizkio hiztegiari. Gutxi batzuk aipatzearren: *apuratu*, *narko*, *hormatzar*, *efektibo*, *dietista*, *kafetxo*, *ponentzia*, *artefaktu*, *arpilatze*, *faktoria*, *light*, *literal*, *lurrarpi*, *joskintza*, *partzela*, *tik-tak*, *txikitero*, *pisukide*, *ibuprofeno*, *doktrinamendu*, *podcast*, *queer*, *nezeser*, *koronabirus*, *zaurgarritasun*, *nahasmendu bipolar*, *asanblada*, *trajeria*, *euste*, *birziklapen*, *dedio*, *aurri*, *txantxiku*, *ustiaketa*, *zupatu*, *telelaguntza*, *hitzemate*, *pirateatu*, *esanbidezko*, *gobernantza*, *telelaguntza* edo *heteropatriarkal*.

Azpisarrera berrien artean ere badira berrikuntzak. Esaterako, *arrisku(-)egoera*, *haur(-)eskola*, *orri(-)baxter*, *setio(-)egoera*, *sexu(-)abusu*; *sexu(-)eraso*, *hil ala biziko*, *lan(-)stripu*, *larrialdi(-)zerbitzu*, *off-eko ahots*, *berri(-)agentzia*, *klima(-)aldaketa*, *klima(-)larrialdi*, *esklusiban*, *foru(-)zuzenbide*, *arreta(-)zerbitzu*, *gibel gizen*, *malo-malo*, *nahasmendu bipolar*, *kirol(-)lege*, *ziztuan* edo *pubis(-)zorri* gehitu zaizkio hiztegiari.

Gaur egun, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* 49.596 forma ditu guztira (40.002 sarrera eta 9.594 azpisarrera) eta 68.695 adiera (horietatik 2.420 azpiadierak dira).

Miriam Urkia euskaltzain osoak adierazi duen bezala, hitz berrien artean badira lehendik baztertuak zeudenak eta orain onartuak izan direnak. Hona hemen hiru adibide:

**binario:** lehen *bitar* eta *biko* erabiltzeko esaten zen, baina orain adiera berria onartu da: "Sexu edo genero sistemez mintzatuz, bi kategoria —emakumea eta gizona— dituen".

**biluztu:** batez ere bizkaieraz eta gipuzkeraz erabilia. Hasiera batean, garbizaleago jokatu zen (*biluzi* jaso zen bakarrik) eta euskalkietako aldaera batzuk isildu edo baztertu egin ziren, baina orain, batzuk berreskuratu egin dira.

**eskumalde:** bizkaieraz erabiltzen da, batez ere (*eskuinalde* bakarrik zegoen lehen, baina bizkaieraz *eskuma* da, eta berreskuratu egin da Bizk. markarekin).

**2021ean 674.260 erabiltzaile izan ditu Euskaltzaindiaren webguneak**

674.260 erabiltzaile izan ditu Euskaltzaindiaren webguneak, saioak 1.447.235



izan dira, 5.928.613 orrialde bisitatu dituzte erabiltzaileek, eta saio bakoitzaren iraupena ia bost minutukoa izan da.

Hona hemen Euskaltzaindiaren webguneko tresna eta zerbitzu nagusien erabileradatuak:

Euskal Onomastikaren Datutegia: 136.454 erabiltzaile

Orotariko Euskal Hiztegia: 93.298

Euskaltzaindiaren Hiztegia 108.886

Bilatzailea: 65.865

Euskara Batuaren Eskuliburua 12.156

Jagonet: 3.245

Euskara Eskuz Esku 1.372

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa: 3.179

Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa: 1.220

Argitalpenak: 1.110

### **Euskaltzaindiak eta UZEIk 2021eko hitza aukeratu dute: «aldaera»**

Euskaltzaindiak eta UZEIk 2021eko hitza aukeratu dute, «aldaera» hain zuzen. Lehen aldia da Euskaltzaindiak eta UZEIk urteko hitza elkarrekin hautatzen dutela. Euskarazko lexikoaren jarraipena egiten du, egunez egun, Akademiaren erakunde atxikia den UZEIk. Horretarako, nagusiki, komunikabideak arakatzen ditu, lexikoa eguneratua izatea ezinbestekoa baitzaio hizkuntza naturalaren prozesamenduan oinarritutako tresnetarako. Eguneroko jarraipen horretan oinarrituta hautatu da 2021eko hitza.

Euskararentzat, «aldaera» ez da hitz berria. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* jasota dago lehendik ere, baina azken hilabete hauetan ohiz kanpoko erabilera izan du pandemiaren harira. Izan ere, aurtien ere COVID-19a izan da albiste nagusienetakoak, besteak beste, birusaren aldaera berriek pandemiaren beraren bilakaeran duten garrantzia dela eta.

## 2021ean omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

**Lourdes Oñederra irakasle eta euskaltzain osoak jaso du aurtengo Ortzadar saria**

Lourdes Oñederra irakasle eta euskaltzain osoak jaso du 2021 urteko Ortzadar saria. Golardoarekin, Noticias Taldeak "urteetan euskal literatura eta kulturaren alde eginiko lan eskerga" aitortu nahi izan dio hizkuntzalari donostiarrari.

**Miren Agur Meabek 2021eko Espainiako Poesia Saria irabazi du**

Espainiako Poesia Saria osatzen zuen epaimahaikoen artean, Euskaltzaindiak izendatutako Katixa Agirre idazlea zegoen, honako hauekin batera: Juan Gil Fernández, María del Vinyet, Francisco Javier Díez de Revenga, Eduardo Moga Baiona, Julia Barella Vigal, Luis Fermín Moreno Álvarez, Esther Sánchez-Pardo González, Elena Medel Navarro eta Olga Novo.

**Liber Saria eman diote Bernardo Atxagari.**

Bernardo Atxagak irabazi du Liber 2021 literatur saria. Espainiako editoreen gremioen federazioak (FGEE) ematen duen saria da eta aurtengoan Atxagarentzat izan da. Epaimahaiak idazlearen ibilbide literarioa nabarmendu nahi izan du, euskarari zein gaztelaniari ikusgarritasuna eman diona, kritikaren eta irakurleen harrera berearekin, eta genero literario guztiak sendotzeko ahalegina eginez.

# *Hilberri txostenak*

# Gorka Aulestiaren hilberri-txostena (1932-2021)

OTEGI, Karlos  
Euskaltzain urgazlea

Gorka AULESTIA TXAKARTEGIri, gure Gorkari, itsasoa gozabide paregabea zitzaion. Ondarroako Nasa kalean, Zubi Zaharraren ondoan jaioa (1932-12-11), ondarroar peto-petoa izanik, itsasoa izan zuen bizialdi osoan berezko elementu naturala, likido amniotikoa. Itsasoaren altzoan lehorrean baino erosoago moldatzen zela esaten zuen maiz. Hondartzak, bagak, bustialdiak, Donostiako badia igerian zeharkatzea, goizeko bainu arnasgarriak zituen gogoko. Bazterrik maiteenen artean, Ondarroa, Bakio, Donostia, Zarautz... Igerian egiteko beti prest; estropaden jarraitzaile sutsua. Gorkaren bizitza iraupen luzeko igerialdi bat, ziaboga ugariko arraunketa saio lehiatsu bat izan da.

Gorkak apaiz ikasketak, hau da, humanitateak, filosofia eta teologia, Saturrango (1946-1950), Gasteizko (1950-1956) eta Derioko (1956-1958) apaizgaitegi-etan egin zituen. Abade lanak Bakion, Otxarkoagan, Gernikan eta, baita ere, Paris ekialdeko Château-Thierry herrian bete zituen. Azken egonaldi honetan, “Alliance Française”n goi mailako diploma lortu zuen frantses hizkuntzan.

Garai hauetan, gizarte egoera soziopolitikoa eta elizako hierarkiarekiko harremanak gatazkatsuak ziren. Gorkak erreibindikazio ekintza zenbaitetan parte hartzeaz gainera, gai hauetan bere burua hobeto jantzi nahian, Gizarte Zientzietan graduatu zen, Deustuko Unibertsitatean. Azkenean, gogo berotasunak eta baztertuenei laguntzeko barne eskakizunak eraginik, Afrikara abiatu zen, euskal elizbarrutiko misiolari gisa jardutera. Ziaboga nabarmena bere bizi arraunketan.

1967tik 1970era Gorka misiolaritzan aritu zen Kongo Belgikarra izandako Zairen, hegoaldeko Katanga eskualde istilutsuan, Bunkeya herrian. Misiolari gehien eginkizuna laguntza humanitariora ematea zen, herritarren behar oinarritzkoetan eskua luzatzea, maiz etsai giroan, gerra ireki edo isilekoz inguratuta. Gorkak, behin baino gehiagotan, ekarri ohi zuen gogora heriotza pare bat aldiz sentitu zuela gertu bizitzan. Horietako bat Katangan.

1968ko ekainean, Mobuturen militarrek bera eta beste bi misiolari salatu zituzten, faltsuki. Akusazioa: soldaduei sendagaiak eta gasolina ukatu, soldaduetako bat jipoitu, eta Zaireren independentzia urteurrenean elizako ezkilak jo ez izana. Atxilotuta, kamioiez, 200 kilometro urrun zegoen Lubudiko kartzelara eraman zituzten. Bidaia deitoragarria, mehatxagarria. Soldaduak edaten, metraileta tiro sortak botatzen. Gorka eta lagunak beldurrak airean. Azkenik, Kinshasa hiriburuko artzapezpikuaren bitartekaritzaz, onik atera ziren. Baina Gorkak bizia galtzeko zorian sumatu zuen bere burua. Kezkaz oroitu ohi zuen larriune hura.

Bizialdiaren arraunketan Gorkak beste ziaboga erabakigarri bat 1975ean hartu zuen, 43 urterekin. Sekularizazioa eskatu, traineruaren brankaren norabidea aldatu, eta Ameriketako Estatu Batuetarako bidea hartu zuen. Renora, Nevadako Unibertsitatera iritsi eta bertan 80ko hamarkadaren bukaera arte aritu zen, 14 bat urtez. Unibertsitatean, Basque Studies Program-ean, Euskara Irakurle (*language assistant*) gisa jardun zuen (1976-1979), eta bi lizentzia (*master's degree*) lortu: frantses literaturan bata (1978) eta espainiar literaturan bestea (1979). 1979-1980 ikasturtean, Washington State University-n, Pullmanen, irakatsi zuen, eta ondoren, 1980tik 1988ra bitartean, ostera Renon, irakasle laguntzaile moduan lan egin zuen aipaturiko Basque Studies Program-ean.

Estatu Batuetako igerialdian zehar, Gorkak, irakasle eta aztertzaile lanetan, hiru esparru jorratu zituen.

Aurrenik, ahozkoztatuna, ahozko literatura, eta, batik bat, bat-bateko bertso sortzea, bertsolaritza. Jarduera honen emaitzarik aipagarriena, doktore tesia: *El bertsolarismo: literatura oral improvisada en el País Vasco*. Tesi honekin, 1987an, Gorkak doktoregoa (*PhD*) lortu zuen Basque Studies (Language and Literature) ikasketa-sailean. Epaimahaikideen artean: William A. Douglass eta Juan Mari Lekuona, ekitaldi akademikorako Renora propio joana. Tesia gaztelaniaz argitaratu zen 1990ean, *Bertsolarismo* izenburuaz (Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1990), eta, 1995ean, ingelesera itzuli, *Improvisational Poetry from Basque Country* tituluaz (Reno: University of Nevada Press, 1995). Lan honetan aztergai dira: ahozko literatura, bertsolaritzaren osagaiak eta jarduerak, bertsolaritza motak, bertsolaritzaren historiako une giltzarri eta alde sozial zenbait, eta lau bertsolari adierazgarri (Etxahun, Otaño, Xalbador eta Amuriza).

Bigarrenik, lexikografia. 1979an, Pullmanen irakasle zegoelarik, egun hotzetako eta gau ilunetako neguan, “klastrofobiko” gisa kalifikatzen zuen ingurunean murgildua, Gorkak arnasgarria aurkitu zuen hiztegi bat osatzeko lan nekagarrian. Or-

duan hasitako lanak hamar urte geroago, 1989an, ikusi zuen argia: *Basque-English Dictionary*. Hurrengo urtean, 1990ean, honen bikotekidea: *English-Basque Dictionary*, Linda Whiteren lankidetzaz (Reno: University of Nevada Press: 1989, 1990). Ez da hiztegi borobil hobeezina, baina bai aitzindaria, hutsune nabarmen bat behin-behinean betetzera bideratua.

Eta hirugarrenik, euskal literaturako autoreen azalpen biografiko-literarioak. Pullmanen, hiztegiari hasiera ematearekin batera, Gorkak euskal literaturan puntakoak diren idazle batzuei buruzko artikulua, monografia laburrak idazteari ekin zion. Lehenengo: “Bernat Etxepare”. Hurrengo urteetan, bizitzaren azken unera arte, azterketa eta idazketa mota horrekin jarraitu zuen, etenik gabe. Hori izan zuen jardun nagusia. Betiere, irakaskuntzarako materialak prestatzeko helburuz. Taxu honetako lehenengo artikulua eta idazlanen erreseina zenbait, Oklahomako Unibertsitateko (Norman) *World Literature Today* aldizkarian argitaratu zituen.

1987ko urrian, Ameriketako igerialdia amaitu baino urte bi lehenago, Gorka, Gasteizen egin zen II. Euskal Mundu Biltzarrera etorri zen. Literaturari buruzko sailean txosten bat azaldu zuen: “Two pioneer poets: Lauaxeta and Jon Mirande”. Urte dezente zeramatzan Euskal Herritik kanpo. Biltzarrean parte hartzen ari ginenongana gerturatzen saiatu zen. Bertatik agurtu eta ezagutu nahi gintuen; hemen, ikasketa literarioen arloan, landu berriak ziren gaiak eta arazoak gertutik jakiteko, bere burua egunean jartzeko asmoz. Norbaitek elkarri aurkeztu gintuen. Orduan ezagutu nuen Gorka. Aurrez aurreko gure arteko lehen harremana izan zen. Lehen inpresioan, gizaseme estatubatuar tipiko baten itxura hartu nion. Gorpuzkeraz handia, galanta, zabala, sasoikoa. Izaeraz, tratatu atsegin eta hurbilekoa. Irekia eta baikorra, irribarre zintzokoa. Adoretsua, bere buruaz ziur, pozik dagoen horietakoa. Lehen inpresio hori, denboraren eta harremanen poderioz, berretsi egingo zen.

1989ko martxoan, Ameriketako hamalau urte igaro ondoren, Gorkak beste zia-boga bat hartu zuen: Mertxe emaztearekin eta Iker semetxoarekin, Euskal Herrira itzuli zen. Behin betiko.

1987tik aurrera, 2000. urtean erretiroa hartu arte, Deustuko Unibertsitatean, Donostiako EUTGn, euskal literatura irakatsi zuen. Juan Mari Lekuona izan zuen lankide eta adiskide. Urteotan, Gorkak euskal literaturako autoreei buruzko monografiak osatzen jarraitu zuen, hautatuz, hasiera batean bederen, XIX. mendearen azken hamarkadetatik Espainiako gerra zibilaren ondoko urteetara luzatzen den

aldian kokatutako idazleak. Horrela, 1992an, *Erbesteko euskal literaturaren antologia* argitaratu zuen (Donostia: J. A. Ascunce editorea, 1992). Hor, erbestera jo behar izan zuten egile batzuen testu hautatuak biltzen dira. Egile horien artean: Orixe, Monzon, Jakakortajarena, Ibiñagabeitia, Ugalde, S. Mitxelena, Leizaola eta abar.

Antologia horrez gain, azalpen biografiko-literarioak osatzen jarraitu zuen. Jandani argitaratutako batzuk eta argitaratu gabe zituen beste batzuk bilduz, 2000. urtean, ingelesez, *The Basque Poetic Tradition* kaleratu zuen (Reno: University of Nevada Press, 2000). Liburuan euskal poesiaren inguruko hamalau monografia jasotzen dira. Poeten artean: Etxepare, Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Mirande, Aresti, J.M. Lekuona eta abar.

1996an, espezialista zenbaitek euskal literaturaren idazle klasiko batzuei buruzko azterketa monografikoen bilduma bat koordinatu eta editatu zuen: *Los escritores. Historia de la literatura clásica euskérica* (Gasteiz: Fundación “Sancho el Sabio”, 1996). Landutako autoreak, besteak beste: Axular, Larramendi, J.A. Mogel, Oiherart, Elizanburu...

EUTGko urte hauetan, Euskaltzaindiarekiko harremana sendotu zen. Juan Mari Lekuonak eta Jean Haritschelharrek literaturaren azterketaz, euskal literaturaren azterketaz nagusiki, arduratuko zen LIB Batzordea sustatu zuten (1989/1991). Gorka hasieratik izan zen Batzordean eta, beste zenbait jardueraz gain, *Literatura Terminoen Hiztegia*-ren taxutze lanean parte hartu zuen. Hiztegia 2008an argitaratu zen (Bilbo: Euskaltzaindia, 2008). Batzorde horretan egin genuen topo berrirori, beste lankide batzuekin batera, Gorkak eta biok. Elkarren arteko ezagutza, sostengua eta kidetasuna, talde horren itzalpean gorpuztu zen, azken bi hamarkadetan zehar.

Euskaltzaindiak, 1996an, euskaltzain urgazle izendatu zuen gure Gorka.

Unibertsitateko irakaskuntzan erretiroa hartzean, Gorkak derrigorrezko ziaboga berri bat eman behar izan zuen. Norabide aldaketak eragina izan zuen bere estatutik akademiko-administratiboan, baina ez eguneroko bizimodu eta lanean. Bizi arraunketaren azken txanpa luze eta emankorrean, ordura arteko jarduerari eutsi zion: irakasle izaten jarraitu zuen eta baita literatura aztertzen eta literaturaz idazten. Familia bizitzaz eta gizarte harremanez landa, Gorka, azken urteotan, hiru zereginetan aritu izan da gogoz eta adoretz.

1995etik 2011ra bitartean, euskal kulturari eta ikerketari eskainitako *Sancho el Sabio* aldizkariaren zuzendarikide izan da. Zuzendaritzan parte hartzeaz gain, artikulatu sorta argitaratu du Gasteizko agerkari horretan.

Euskaltzaindiari ere eskaini izan dio bere ahalegina. *Literatura Terminoen Hiztegia* argitaratu ondoren, parte hartu izan du zintzoki, prestatzen ari den *Euskal Literaturaren Antologia*-n. Gorkaren ekarpena benetan onuragarria izan da: iritziak, kritikak, testuen hautapenerako eta lanketarako proposamenak, eta, batez ere, bere presentzia hutsez, bilkuran egote hutsez, transmititu izan duen oreka eta sosegua; desadostasun edo eztabaida sutsuetan, beroaldietan, hedatu izan duen baretasuna. Haren falta nabaritzen dugu. Baita Jean Haritschelharrena ere.

Euskaltzaindiak, 2010ean, euskaltzain ohorezko izendatu zuen Gorka.

Baina, azken txanpa honetan, Gorkaren gogoia gehien asebate eta akuilatu duen jarduera, Euskal Herriko Unibertsitateak Gasteizen, “Esperientzia Gelak” programaren bidez, eskaintzen dituen ikasketetan bete duen irakasle lana izan da. 2002. urtean hasita, buru-belarri jardun izan du irakaskuntzako arlo honetan. Zinez eskertzen zuen eman zitzaion aukera. Aitortzen zuenez, ez zuen inoiz horrenbeste gozatu irakaskuntzan. Poz-pozik, zoratzten, zegoen, irakasleekin lortutako harreman giroarekin. Ezbairik gabe, hau izan da literaturaren azterketa lanean jarraitzeko kementa itsatsi dion eginkizuna. Ikasleentzat materialak prestatzeko beharrak, literaturari buruzko monografia sailarekin jarraitzeko zitzada eman dio.

Jarduera honen emaitza dira Gorkak argitaratutako azken bi liburuak. 2008an *Estigmatizados por la guerra* plazaratu zuen (Bilbo: Euskaltzaindia, 2008). Liburuan, XIX. eta XX. mendeetako gatazka politikoek eta gerrateek astindutako euskal kulturari aipagarriak diren 43 lagunen azalpen biografiko-literarioak jasotzen dira. Aginte zapaltzaileak isiltasunera, euskal kulturaren aldeko ekintzari uko egitera behartu zituen. Zokoratuak, makurraraziak, jazarpena, espetxea, erbestea, batzuek heriotza ere, jasan behar izan zuten. Behar bezala kontrastatutako datu, xehetasun, iruzkin eta lekukotasun franko biltzen dituen lana da; memoria historikoari eta iragan kulturalari egindako ekarpena. Landutako idazleen artean: Aitzol, Lauaxeta, Orixe, Zaitegi, Ugalde, S. Mitxelena, Barandiaran, Txillardeggi, Lartzabal, Ibiñagabeitia, L. Mitxelena, S. Onaindia eta abar. Eta 2011n, *Escritores euskéricos contemporáneos* (Bilbo: Euskaltzaindia, 2011) argitaratu zuen. Oraingoan, XX. mendeko beste 23 euskal idazleren azalpen biografiko-literarioak. Azkuerekin hasi eta B. Atxaga eta Saizarbitoriarekin amaitzen da, bidean, D. Agirre, Arrese Beitia, Kiriñño, J. Etxepare, Lizardi, Orixe, Mirande, Aresti, Zarate, Lete, Gandiaga eta abar landuz.



Azken bost edo hamar urteotan, Gorkak, ikuspuntua edo interesgunea zabalduz, literatura unibertsala hartu du aztergaitzat. *Historia y Literatura* izenburuaz, garai historiko eta garai bakoitzeko idazle bikain zenbait uztartzen dituzten artikulua opa-roak prestatzen aritu da, adorez, baikortasunez, argitasunean hutsik egin gabe. “Ad usum privatum”, “Esperientzia Gelak” programako ikasleentzat moldaturiko gaiak dira. Maila bikaineko idazle askoren irakurle saiaturia izanik, Gorkak, 35 kapitulu-tan, garai historiko edo literatura mugimendu bakoitzeko ezaugarri giltzarriak trebeki zirriboratu eta, bereziki, orduko idazle nagusien monografia biografiko-li-terarioak osatu ditu. Lan honetan, VIII. mendeko Islamaren aurrera egite hartatik abiatuta, *Chanson de Roland* poema epikoa azaltzen da, eta Dante, Montaigne, Sha-kespeare, Cervantes, Hugo, Dostoievski, Poe edo Baudelaire, besteak beste, aztertu ondoren, XX. mendera iritsi eta 27ko belaunaldia, existentzialismoa, Sartre, Ca-mus, Simone de Beauvoir, Isak Dinesen, Marguerite Duras, eta beste, jorratzen dira.

Lan handinahia, arnas zabalekoa, saiatzeko luzekoa, erabat zehaztu gabe, azken ukituen faltan, Gorkak utzi duen *Historia y Literatura* hau. Izan ere, Gorka ez da izan igerilekuko igerilaria, joan-etorri labur eta azkarrekoa, itsas zabaleko igerilaria baino. Iraupen luzeko arraunketa izan du gogoko, ez erlojuaren aurkako lasterketa urduria. Ez zuen abiadura bizian aurreratzen, erritmo baxu baina etengabea bai-zik. Gorkaren besakadak, arraunkadak, astitsuak ziren, baina irmoak, atergabeak. Jarraikitasunez eta kemenez aritu da euskal literatura eta literatura unibertsala ikasten, aztertzen eta azaltzen ibilbide luzeko proiektuetan.

Gorkaren azterketa lanak, gehienbat, ez dira nabarmendu originaltasunaz, ikus-puntu berezi eta ustekabez, ekarpen berritzailez, berealdiko aurkikuntzaz. Ez dira ikerkuntza zorrotzak, berebiziko sorkuntzak. Inoiz edo behin, bai. Badira, zenbai-tetan, datu, xehetasun, gertakari, lekukotasun ezezagun edo apenas ezagunak. Aski da *Estigmatizados por la guerra* arretaz irakurtzea. Baina, oro har, Gorkaren lanak, bildumak dira, sintesiak, eskuarearekin han-hemenka jasotako datuen, gertaka-rien, iritzien, ezaugarri giltzarrien, emaitza ezagunen birmoldaketa. Eta hori, egiaz-tatzez, bermez, egiten du; informazioak, materialak, irakurketak, kontrastatuz eta iaioki antolatuz. Jarduera honen bidez, goi mailako dibulgazioa bilatzen du, gaiaz nolabaiteko ezagutza duen baina ezagutza hori zabaldu eta sakondu nahi duen entzuleari edo irakurleari eduki kulturalak egokitzea eta transmititzea. Gorkak argi eta garbi adierazten du hartzen duen aukera. Honela dio *The Basque Poetic Tradition* liburuko “Preface”n:

I felt there were no problems with regard to the selection and order of the subject matter; since I was not attempting to write a sequential history of Basque literature, I could choose a poetic subject here, a prose subject there, and write about the authors whom I judged to be outstanding in Basque literature. I did have problems, however, with the form in which I was to deal with my topics. Should I delve deeply into each subject and run the risk of my readers getting lost in a foreign literary forest, or should I expound on each subject as simply and clearly as possible without losing sight of the fact that I was writing for an intelligent and fairly well-educated audience? I opted for the second choice, preferring to follow the wise counsel of the great bertsolari Ignacio Eizmendi, alias "Basarri", who stated, "I would prefer not to compose verses at all than create them in such a manner that they be incomprehensible to the common people".

Jarrera eta hautapen honen ildoari atxikiz, Gorkak gehien landu duen azterketan moldea, trebekien konfiguratu duen idatzizko egitura, erretratua edo azalpen biografiko-literarioa izan da. Ez du historia jarraitu, sekuentzial bat osatu. Apailatutako bildumetan suma daiteke monografien arteko nolabaiteko lotura hariak: poeta izatea, erbesteratua izatea, gerra nozitu izatea... Baina minihistoria horiek gizabanakoei dagozkienak dira, indibidualak. Erretratu bakoitza bere horretan hasi, garatu eta itxi egiten da. Kultura arloko ekintzaile bat, literatura esparruko sortzaile bat hautatu eta haren bizi ibilbidea, gorabeherak, nortasuna eta jarrerak, pentsaera nagusia, ingurunea eta idatzizko emaitzak jorratzen ditu. Gertutik, enpatiaz, ia-ia subjektuarekiko afektuz eta kidetasunez ere.

Erretratu hauetan kontaketa da nagusi. Izan ere, Gorka, batez ere, kontalaria izan da, ahozko eta idatzizko kontalaria. Azken unera arte iraun dion memoria harrigarritz hornitua, gertalekuak, elkarriketak eta pertsonen izaerak, baita aspal-dikoak ere, gogoan berreskuratu eta xehetasunez azaldu izan dizkigu. Oroitzeko gaitasunarekin batera, jardun luzerako trebetasuna: kontaketa hariari heldu, handik eta hemendik tiratu, garatu, hariz aldatu, hasierakoari berriro ekin... hari sare joria ehunduz. Oparoki hitz egin izan du bere bizitzaz: pasadizoak eta peripeziak, arriskugarriak ere tarteko; eliza eta gizarte agintariekin izandako gorabeherak; kultura munduko harremanak; gizarte konpromisoak; irakurketak, eztabaidak, bidaiak, kirol zaletasunak... Ezinbesteko errepika barkagarriak eta guzti, Gorkaren solasa gure arteko elkartzeko askoren suspergarria izan da maiz. Zergatik

ez zuen oroitzapenak idatziz biltzen iradoki izan zaionean, ez dio proposamenari jarraitu nahi izan. Tamalez, bizi artxibo hori, harekin joan da.

Ahozko trebezia hori idatzizko lanetara, monografia biografiko-literarioetara ere eramán du. Minihistoria horiek, funtsean, kontakizunak dira. Autorea hautatuta, honen bizialdian murgiltzen da, bizialdi hori gertaera adierazgarritz ziprztinduz: gorabeherak, erabakiak, desengainuak, lorpenak eta porrotak, harremanak, oztopoak eta atxikimenduak, barne bilakaerak..., molde narratiboa oparoki baliatuz.

Gorka pertsona irekia izan da: burura zetorkiona, bihotzak eragiten ziona, kanporatzen zuena. Jendekina, edozein harreman motari aise egokitzen zekiena. Agurtzera gerturatzen zen, galdetuz, interesa erakutsiz, hizketakidearen maila be-rean jardunez. Tankera guztietako jendearekin, errazki. Berdin goi mailako kargu-dunekin (ordezkari politikoa, eliza agintaria...) edo pertsona arrunta (zerbitzaria, kaletar xumea...) izan. Giza harremanetarako aparteko erraztasuna zuen.

Pertsona adeitsua izan da, gizabidetsua. Arretatsua besteeikiko. Puntuala, inor izatekotan, Gorka. Uste bazenu puntual baino puntualago iristen ari zinela hitzordura, ailegatzeko han zegoen jada Gorka zure zain. Hitza betetzen beste inor ez bezalakoa: agindu bat egin eta bai arduraz bete ere. Besteen arrakastaz poza hartze-ko, besteen dohainak, meritua eta jakinduria aitortzeko, oztoporik ez. Anbiziorik edo inbidiarik gabeko gizona. Konforme bere izaera, lana eta mailarekin.

Lagunei leiala, baita lagun hildakoei ere. “Goazen, Juan Mariren hilobiari bisita bat egin nahi nioke”. Eta Amaiurtik bueltan, Oiartzungo kanposantura, Lekuona bihotzean. Leiala ere herriarekin: Euskal Herria helburu; justizia aldarri; iruzurra, abusua eta bidegabekeria gaitzets. Askorentzat Gorka, maitagarria izan da.

Umore edo aldarre onekoa izaki, nekez galtzen zuen sosegua, baretasuna. Bizipoza zerion poro guztietatik. Bizitzaz gozatu du: familiaz, lagunez, lankideez, proiektuez, idazlanez, bidaiez... Baikorra izatez, kontent, gogobeterik bizi izan da. Baita azken hilabeteetan ere: “Zoriontsu naiz” errepikatu izan du maiz. Ez zirudien heriotzaren hurbiltasunak harengan eraginik, larriunerik sortzen zuenik. Azken unera arte proiektuak buruan. Etsipena, tristura, melankolia, arrotz izan zaizkio. Behin ere ez burumakur. “Aurrera! Beti aurrera!” izan du goiburua. Eta bilkuren ondoren, agur egitean, “Hurrengora arte! Eutsi goiari!”.

“Bidegileak” bildumarako Gotzon anaiaren erretratu maitekorra osatu zuen. Erretratu horren bukaeran, hein batean bederen, Gorkarentzat berarentzat, bere buruarentzat alegia, baliagarri diren hitzok jarri zituen:

Bere bizitzako ibilbidean poztasun ugari eta oztopo handi batzuk ere izan zituen. Baina une latz eta beheraldietan kristau sinesmenean eta musikarako zuen zaletasunean oinarriturik, ekaitzei brankaz aurre egiten ikasi zuen gaztarotik, arrantzale baten seme on bati dagokion bezala. Lan profesionalak ematen duen bizipoza izan zuen bere zutaberik sendoenetariko bat eta, horren ondorioz, sarritan umoretsu, itxaropentsu eta irribarretsu agertzen zen. Gaztaroan euskal kulturaren alde egin zuen apustuari tinko eutsi zion beti, hil arte.

Gorkak joan den urteko maiatzaren 10ean eman zuen azken ziaboga. Gure eta beste askoren gogoan eta bihotzean txoko bat izango du luzaroan.

# Kaxildo Alkortaren hilberri-txostena (1943-2021)

SARRIUGARTE IRIGOIEN, Iñaki  
Mendebalde Fundazioa

*Guruzne, Ekaitz, Maier Amor, Elene, Ibai, Iñazio, Amaia; omenduen senideok; euskaltzainok; euskaltzaleok... Egun on!*

*Ohore handi ere handia da niretzat, hemen, Euskaltzaindian, Kaxildoren omenezko berbak zuenganatzea. Izan ere, txera berezia nion Kaxildori, giza balio ugariren jabe baitzen.*

*Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet adiskide biri, Mikel Larunberi eta Manu Ormazabali, eskainitako laguntzagatik. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez.*

## Basurtuko frontoian

Kaxildoz gordetzen dudan lehen gomuta pilotaren ingurukoa da. Zuetariko baten batek gogoan izango du Bilboko Basurtu auzoan frontoi txiki bat zegoela, “Jardines Iparralde” garagardotegiko beheko solairuan, hain zuzen ere. Sei koadroko pilotaleku txikitxo. Hantxe ezagutu nuen nik Kaxildo, bertara joaten zen-eta pilotaka. 1967-1969. urteetan izango zen, urte horietan Bilboko jesuiten kolegioan eskolak ematen aritu zelako. Ni, orduan, nerabea nintzen, eta, pilotan egiten genuen arren, gurea gehiago izaten zen bertan egiten ziren txapelketetako partiduak-eta ikustea. Ordurako Kaxildo gizon egina zen, sendoa, gizandi bat. Nik, behintzat, holaxe gogoratzen dut gaurko nire talaiaitik. Urteak joan, urteak etorri, ereti asko izan genituen orduko eta gaurko pilota munduko gorabeheraz berba egiteko, gozatsu egin ere.

Pilotari izana eta pilotazale sutsua genuen Kaxildo, baina ahazteko ez dena pilota-taldeetan eginiko lana da: Portugaleteko “Izarra” pilota-taldeko kide eta

bultzatzaile ez ezik, zuzendari ere izan zen. Sestaoko “Lagun Artea” pilota-taldeketik deitu, eta bertara laguntzera... Era berean, Hegoaldeko “Pilotarien Batzarra” elkarteko kide eta zuzendaritza taldekoa izan zen. Horretan bazuen antza Jean Haritschelhar euskaltzainburu izandakoarekin: hura ere, pilotaria gaztetan; hura ere, Iparraldeko “Pilotarien Biltzarra” elkarteko kide eta zuzendaritza taldekoa; eta biak ala biak euskararen aldeko beharginak. Jean Haritschelhar euskaltzainburu zela hasi zen Kaxildo bere hondar alea jartzen Euskaltzaindian. Euskara eta pilota eskutik helduta.

### Getariatik Nerbioi-ertzetara Nafarroan barna

Kaxildo Alkorta Barrena Getarian jaio zen 1943ko apirilaren 3an. 10 urterekin, 1953an, batxilergoko ingreso-azterketa egin zuen Donostiako institutuan. Ama maistra zuenez, Kaxildo txikiak posible izan zuen sarrera-proba Getarian bertan prestatzea. Gero, Xabierrera joan zen, eta bertan egin zuen batxiler elementala zeritzona (10-14); errebalida, ostera, Iruñean gainditu zuen. Batxilergoaren bigarren etapa (14-16) ere Xabierren egin zuen, eta orduko Curso Preuniversitario (Preu) zeritzona Donostiako Ategorrieta auzoko kolegioan. 1959-1960 ikasturtean gaude.

Hamazazpi urterekin, Zaragozako Santa Maria de Veruela-ko kolegiara joan zen jesuita izateko nobiziotza egitera. Han, nobiziotzako bi urteak eta betirako botoak egin zituen, baita Humanitateetako lehenengo urtea ere. Humanitateetako bigarren urtea Salamancan burutu zuen. Izan ere, 1962. urtean jesuiten Loiolako Probintzia sortu zen eta horrek ahalbidetu egin zuen Hego Euskal Herriko nobizio guztiak ikastetxe bakar batera bildu ahal izatea. Filosofiako hiru urteak (1964-1967), ordea, Euskal Herrian, Loiolan, egin zituen. Filosofia-ikasketak amaitzean, 24 urte ditu. Oso ikasle ona, kultua, jendekina... Loiolan oso harreman ona izan zuen bertako hermanoekin, legoekin, eta sarri ere sarri joaten zen haien artera berriketan egitera, anaia xume haiengandik ere, zer ikasi handia zuelakoan. Beste aldetik, Loiolan, “Loiolatxo” izeneko esperientzia ere azpimarratu beharrekoa da. Basilikatik hurre zegoen txoko txiki bat zen, non inguruko gazteak ziren protagonista nagusiak: ibilaldiak, pilota-partiduak, euskal dantzak, herri-kirolak... Horretan guztian, Kaxildo izan zen animatzaile nagusia. Haren izaera gizatiar, xalo, euskaltzale eta eskuzabalak arlo askotan utzi zuen bere ukitu berezia.

1967-1969. urteetan Bilbora etorri zen Kaxildo, jesuiten Indautxuko kolegioan klaseak ematera. Irakasletza-urte horiek jesuiten ibilbidean ohikoak ziren eta “mai-

su txiki” (maestrillo) izena ematen zitzaien Filosofia-urteak amaituta, pare bat urtez, irakaskuntzan jardun behar izaten zutenei (Kaxildok Aita Zavala izan zuen maestrillo Xabierren). Aldi hori amaiturik, 69-70 ikasturtean, Teologia ikasten hasi zen Deustuko Unibertsitatean, eta konpainiak Bilboko Buenos Aires kalean zeukan pisu baten bizi izan zen beste ikasle batzuekin batera. Teologia-ikasketak hasita dituela, 1970ean, 27 urterekin, Kaxildo Alkortak Jesusen Konpainia uztea erabaki zuen.

Bizimodu berrira egokitu behar-eta lagun batzuen bitartez lana topatu ahal izan zuen; hasieran, bost bat hilabetez, Mungiako pertsiana-fabrika baten, Juan Gangoitirenean; eta, gero, Mensajero argitaletxean, Bilboko Deustu auzoan. Tarte horretan Barakaldoko Lutxanan izan zuen bere bizilekua, inguru horretan lanean zeuden ikaskide ohi batzuen pisuan, hain zuzen ere. Handik denbora laburrera baina, jesuita-ikasketak alde batera utzi izanak Espainiako armadaren deia ekarri zion Kaxildori, eta soldadu joan behar izan zuen (1972-1973). Hasieran, Leongo El Ferral de Bernesga kanpamentuan egon zen, eta, gero, Valladolideko artilleria-kaserna baten. Adina kontuan hartuta —28-29 urte inguru— beteranoa izan zen lehenengo egunetik soldaduskan. Edozelan ere, ez dago geldi Espainiako lautadetan, eta soldadu dagoela, *Giza zirriborroa* liburua idatzi zuen, 1972an argitaratu zena. Liburuko ilustrazioak ere Kaxildorenak dira. Kuartelean, etxera joateko baimena zuenetan, Lutxana industrialera, lagun zaharrengana, itzultzen zen beti.

Soldaduska amaitu eta handik lasterrera, 1973an, Kaxildo, Ezkerraldea utzi barik, Portugalete herrira aldatu zen, bertara ezkondu baitzen Guruzne emaztearekin. Handik urtebetera, 1974an, Ekaitz semearen jaiotzak pozez bete zuen Portugaleteko etxea. Han bizi izan zen 44 bat urtez eta 2017az geroztik Bilbon, bilobengandik hurrago. Ezkontza garaisu horretan hasi zen lanean Sestaoko Patronato ikastetxean. Urte haietan, ikastolen aldeko mugimendua borborka zegoen, eta, Ezkerraldean ere hainbat proiektu erne ziren, euren artean Sestaokoa. Bertan egon zen bost urtez (1973-1978), eta Portugaleteko ikastola berriko eraikinak prest egon zirenean, eskualdeko beste ikastola txiki batzuen bide beretik, haraxe aldatu zen Sestaoko Patronatoa ere, “Asti Leku” proiektuari hasiera emanez. Manu Ormazabal lagunak esan zidanez, aldaketa azkar ere azkarra izan zen, eta, kasualitatez, Kaxildoren urtegunean, 1978ko apirilaren 3an, hain zuzen ere. Portugaleten beste bost urte eman zituen irakasletzan, 1978tik 1983ra arte.

Bien bitartean, Filosofia tituluaren baliozkotzea zela eta, Kaxildok hainbat arlo prestatu behar izan zituen, jesuitekin egindako filosofia-ikasketak osotu eta horni-

tu ahal izateko. Madrileko Universidad Complutense delakoan azterketak egin eta gero, 1976. urtean bereganatu zuen Filosofia eta Letretako agiri akademikoa. Hala ere, berak zioenez, agiria Madrilén, baina titulua Loiolan eman zioten.

### Ataza berriak: betiko engaiamendua

Irakaskuntza utzirik, Kaxildok Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean (IVAP / HAEE) jardun zuen lanean, hogeita bost urtez, itzulpengintza arloan betiere. Hasieran Oñatin (1983-1985), eta, gero, itzultzaile-taldearen arduradun modura Gasteizen, 2008an jubilatzeke unea heldu zitzaion arte. Ohiko partaide izan genuen *Administrazioa euskaraz* aldizkarian, baita erretiroa hartu eta gero ere. Guztira, 60 artikuluko zenbata dizkiogu 1995etik 2021era luzatu zen kolaborazio-aldian. Testu batzuk teorikoak dira —hasierakoak, batez ere—, baina gehienak pasadizo edota kontakizun aberatsak, irakurterrazak eta umorez zipriztindutakoak. Memoria paregabea eta luma jori bezain umotuaren jabe genuen, eta bazekien egoki txirikordatzeko kultura klasikoa eta garaikidea, mundu zabala eta etxe ondoa, ahozko kultura eta idatzizkoa, ume-umetako bizikizunak eta bezperan hedabideek zekarrena. Gomendatzeko moduko piezak dira, batera txukun jarriak, edizio polit bat atontzeko modukoak, zalantza barik. Kolaborazio gehienek izen-abizenen ondoan *Laguna* gehigarritxo daramate. Jubilatzean, IVAPeke lankideek liburu bat opetsi zioten, *Kaxildoren omenex. Zure lankide izan garenok*, bihotzaren erditik opetsi ere: “Egon dadila liburuan, baina,/ batez ere, geure buruan./ Ezin da-eta esan bere bizitza/ bi hitzetan, izango da beti/ gure bihotzetan”.

*Administrazioa euskaraz* aldizkariak aurtengo lehenengo zenbakian (2022-urt, 115, 6-12), hilondoko omenaldia eskaini zion lagun zenduari: “Kaxildo Alkorta: IVAPeke adiskide eta laguna”. Lan ederra, zinez, Miel A. Elustondorena. Azpimarraztekoa da [samurtasunez beratuta eta adiskidetasunez blaituta baitago] Getariako kanposantuan gertatzen den balizko hizketaldia. Bertara joan zaizkio IVAPeke lagunak bisitan. Honako hau diotso Elustondok: “Manu Arrasate, Antton Burgoa, Edorta España, Maite Imaz, Asier Madariaga... Hamaika lagun ere bazenituen zuk IVAPen. Getariako hilerriera etorri gaituzu...”. Eta Kaxildok: “Nik, Getariako kanposantuan ere, gogoan ditut garai haiek, zer polit, zer eder... Ahal duzuela, eutsi horri!”.

Itzulpengintzan zeukan esperientzia baliaturik, hainbat libururen itzulpenak atondu zituen Kaxildok: *Moby Dick* (1977), *Gurutzatuen garaiko gotorleku bat: Zal-*



*dunen Krac-a* (1988), *Herriska bat Erdi Aroan*, *Luttrell* (1988), *Burdin aroko babes hiri bat*, *Biskupin* (1988)... Kirol eta euskal kulturaren alorrekoak ere aipagarriak dira: *Ehun urte baino gehiago arraunean* (Zierbena, 2002), *Euskaldunen pilota jokoa...* (Bilboko Euskal Museoa, 2009), *Elai Alai 2012 / 50. urteurrena* (Portugalete, 2012)... Itzulpengintzaz dihardugunez, Mikel lagunak esanda dakit Kaxildok udaldi asko aprobetxatu izan zituela Frantziara [batez ere, Bordele aldera] frantsesa lantzerako joateko, eta han ere lagun ugari ere ugari egin zituela.

EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkarteko partaide izan zen gure omendua, elkartearen sorreratik bertatik (1987), baita zuzendaritzako kide ere, 1988tik 1993ra bitartean. Itzulpen alorreko Euskadi Literatura sariaren epaimahaikide ere izan zen 1989. urtean. Hona, taldekideen berba sentituak: “Berria jakin orduko irakurri ahal izan ditugu haren lagunen hitz goxo eta esker onekoak. Izan ere, gizon apal eta aditsua bera, jende askorekin lan egiteko abagunea izan zuen, eta oso estimatua zen guztien artean”. Horri guztiari loturik, hiztegigintzan eginiko lana ere aipatu daiteke, kasuon lantalde biren baitan: 1) UZEIrekin: *Nekazaritza Hiztegia*, *Txirindularitza Hiztegia* eta *Arrantza Hiztegia*; eta 2) Adorez taldearekin: *Eskola Hiztegia*, *3000 Hiztegi Praktikoa* eta *5000 Hiztegia*.

Gorago aipatu dugu Kaxildok soldadutza garaian idatzitako liburu bat: *Giza-zirriborrea*. Tamalez, bere buruari, hartaz eta honetaz galde eta galde ari zitzaiona, sormen-lan luzeei zegokienez behintzat, mututu egin zen. Edozelan ere, pozgarria izan da Alvaro Ravellik iaz defendatutako doktorego-tesian [Euskal ipuingintza garaikidearen *Historia* (1970etik 2010era)] Kaxildoren gaztetako liburuari zenbait orrialde eta aipamen eskaini izana.

### **Etxe maitatu bi: Mendebalde, Euskaltzaindia**

Mendebalde Kultura Alkartea beste geltoki bat da Kaxildoren bizitzan. Elkartea 1993. urtean eratu zen Alfontso Irigoien euskaltzainaren gidaritzapean, helburu nagusi batekin, hots, mendebaldeko euskara aztertzea, lantzea eta behar duen thornuia ematea, betiere euskara orokor-batuaren mesedetan. Bizkaiko Aulesti herria eta hango berbaera barneraturik zeuzkan getariarra, handik hiru urtera, 1996an, Mendebaldeko kide egin zen, eta jubilatutako ostean, 2010etik aurrera, elkarteko zuzendari izan zen. 2012an Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Liburu Azokari, Mendebalde Kultura Alkarteari opetsitako Urrezko *Luma* saria Kaxildok berak hartu zuen, elkarteko zuzendari zen aldetik. Honela gogoratzen zuen Men-

debalde elkarte, iazko otsailean bere jaioterriko aldizkarian (Artzape) egindako elkarrizketan: “Arlo ezberdinetako jendea zegoen elkartean: ezagunak, unibertsitateetako zein institutuetao irakasleak... Gipuzkoar bakarra ni nintzen, eta azken hiru edo lau urteetan, presidente. Mendebaldeko Obama nintzela esaten nuen”.

Etxe honetan ere, Euskaltzaindian, lan mardula eginik joan zitzaigun Kaxildo. Euskalkien lantaldeko kide 2001etik, euskaltzain urgazle izendatu zenuten 2013an. Hizkuntzarekiko kezka bizia zeukan eta berak oso euskara osasuntsua eta eredu-garria erabiltzen zuen arren, bazekien zelako odolustea nozitu izan duen euskal hizkuntzak azken hamarkadotan. Hori dela-eta ahaleginak egin ohi zituen Hiztegi Batuak han-hor-hemengo berezitasunak jaso zitzaiz, haien testigantza idatzia ez egonagatik. Hona, Patxi Uribarren euskaltzain emeritu eta Euskalkien lantaldeko arduradun eta lankideak dioskuna: “Herritarren ahotik entzundakoak jaso eta aurreko gizaldietatik gugana heldutako altxorra maitasun handiz gordetzeko benetako ardura zuena” genuela Getariako semea. Mikel lagunak esan zidan, Kaxildo, Xabierren, artean mutil bardingoa zela, antza, konturatu zen erdaraz pentsatzen hasita zegoela. Horrek, jakina, inarrosi egin zion barrua, eta erabakia hartu zuen gogo-bihotzetan zuen gar bizia iraungi ez zekion. Ez dago dudarik errotik lortu zuena bere guraria.

### Adiorik ez, Laguna

Kaxildo lagunak, gaixotasun azkar baten ostean, iazko urriaren 10ean eman zuen azken hotsa. Ezuste handi ere handia getariarra maite genuenontzat. Izan ere, 2021ean, zendu aurreko hilabeteetan hiru artikulua argitaratu zituen Administrazioa euskaraz aldizkarian. Azkenak, “Lehen azterketa” izenburu duenak, uztailako zenbakian ikusi zuen argia, bera hil baino hiru hilabete lehenago. Artikulu horretan, hamar urterekin, aitaren kamioian, Getariatik Donostiara *ingreso*-azterketa egitera doan mutikoaren gorabehera hunkigarriak kontatzen dizkigu, xehetasun harrigarriak kontatu ere. Gomendagarria, zinez. Apirileko zenbakiko artikuluan, “Martxoaren 8a”, Txekhov idazle errusiarraren ipuin baten bitartez, egun seinalatu horren sinbolismora garoaz; eta 2021eko urtarrileko zenbakian, “Egun handira arte?” izenekoan, kontatzen digu denbora laburrean pertsona biren, abade baten eta etxeakoandre baten, hileta-elizkizunetan egona zela. Sermoiak baina, diferentziak izan zirela: lehenengoa apur bat hanpatua; bigarrena, oster, apaingarri askorik gabea; eta gure Kaxildori —apal ere apala izaki— bigarrena gehiago gustatu:

Hitzaldiak, biak, ildo berekoak. Bietan hildakoaren bizitzakoak laburtuta azaldu zizkiguten. Erlijioso apaizarenean, ez ziren falta izan laudoriozko hitz zehatz batzuk —ez asko—. Normala, eta, ziur asko, zeruratuak mereziak. Amama etxeoandrearenean, ez nuen laudoriozko hitz edo esaldi berezirik sumatu. Zenbait zertzeladaz ekarri zigun gogora emakumearen bizitza, samur baina apaindurarik gabe, bere hartan. Ba al da, bada, laudorio horberik bizitza zintzo bete duen inorentzat, bere egin zuen bizimodu xumea, xalo-xalo azaltzea baino?

Kaxildo, zure iradokizun eder hori betetzen ahalegindu gara, apaindura juxtuak erabiltzen saiatu gatzaizkizu, lantegi erraza ez izanagatik. Barka iezaguzu ez badugu lortu. Edozelan ere, samurtasuna, zintzotasuna, xumetasuna, xalotasuna... zer berba apalak, zeinen hitz egokiak zure bizitzaren kronika egiteko, Laguna!

# Ramuntxo Camblongen hilberri-txostena (1939-2021)

ALFARO, Gexan  
Euskaltzain urgazlea

Ramuntxo Makean sortu zen, 1939ko azaroaren 11n. «Afrikar erran zuhurak» dioena aplikatu du bere bizitza osoan zehar; hona zer dioen zuhur hitz horrek: «Bakarrik fiteago goaz, baina elkarrekin urrunago!». Bere bizitzan, egitasmo anitzetako sustatzaile eta parte hartzaile izan da Ramuntxo, bertze hainbat eta hainbat herritarrekin batera.

Ramuntxok ingeniari-tza ikasketak egin zituen Parisen eta Angersen, eta Hazparneko San Josepe lizeoko irakaslea izan zen 1966tik 1975era. Lan hori utzirik, Milafrangako Copelec kooperatibako sortzaile-etarik bat izan zen 1975ean, eta 1998ra arte kooperatibako zuzendari aritu zen. Eta gero, Sokoa enpresako kanpo harremanez arduratu zen, 2002an erretreta hartu zuen arte.

Garai horretan guzian, lan profesionalarekin batera uztartu zuen bere lan militantea, euskalgintzan eta kulturgintzan: 1969an Seaska Ipar Euskal Herriko ikas-tolen elkarteko sortzaile-etarik bat izan zen, eta 1972an Elkar argitaletxearen sustatzaile-etarik bat ere bai. Horrez gain, Euskal Herriko Kultur Zentroko lehen-dakari gisa aritu zen 1984tik 1988ra, eta EKE Euskal Kultur Erakundeko buru egon zen beste lau urtez: 1990etik 1994ra bitartean. Bestalde, kristau gisa, Fededunak deitu elkarteko kide ere zen.

Horiez gain, Ramuntxo euskal idazle bat ere bazen: *Herria* Baionako astekarian eta *Jakin* Arantzazuko aldizkarian artikuluak idazten zituen, baita *Euskaldunon Egunkarian* ere. Eta bururatzeko, hona ene agur gisa, moldatu dizkiodan hiru bertso:

Ramuntxo Camblong, adiskidea,  
Lur honetako bidea  
Bururatua duk berrikitan...  
Eta ongi duk betea...  
Bai herrigintzan, bai kulturgintzan,  
Egin duk hire partea...  
Hainbat elkartetan erabiliz,  
Oi, hire jakitatea.

Afrikar zuhur-hitz batek zio:  
«Bakarrik bai fiteago  
Joaiten dela, baina elkartuz  
Gero aise urrunago...»  
Hire bizitzan hori bete duk  
Lagunduz elkarte frango:  
Copelec, Elkar, Seaska, Sokoia,  
Kultur Erakundea gero...

Hilabeteak Mari Etxean  
Iragan dituk Angelun.  
Bisitaldietan solastatzen  
Gintian nola bi lagun...  
Kantu xaharrak errepikatuz  
Ibiltzen gintian edonun...  
Ikus arte bero bat baizik ez  
Daiat erranen gaur egun!

# Allande Socarrosen hilberri-txostena (1957-2021)

DAVANT, Jean-Louis  
Euskaltzain emeritua

Allande Socarros euskaltzain urgazlea joan zaigu, hirurogeita lau urteak zituela. Abenduaren bederatzai arratsaldean, osteguna, ohean hilotz aurkitu du bere lagun batek. Zer gertatu zaio? Abenduaren zazpiko arratsaldean, astearte, Allanderekin mintzatua nintzen telefonoz. Aitzineko egunetan, telefonoan ezin aurkituz, mezu hau posta elektronikoz utzia nion: «Ostegun arrastiri apalean Baionara lagüntüko naika, Euskaltzaindiaren gomendioan eginen düdan libürü aurkezpeneala, hor *Ozaze Jaurgainean* idazlana presentatzen beität?» Beraz astearte arratsaldean telefonoz deitu ninduen erantzunez ezin zela etorri osasun arazo batzuegatik, nahiz larritasunik gabe. Behar ziren botikak hartzen zituela, egonkortasun bat bederen lortuz, eta poliki-poliki hobekitzeko esperantza zuela. Gainera Sü Azia elkartearen xedeak aipatu zizkidan. Beraz etsidurarik ez zidan agertu, eta ez nuen inondik ere asmatzen ahal bi egunen buruan hedatu beharra zen berri latzaren menturarik. Itxura guztien arabera, bihotzak huts egin dio, beharbada nekaduraz.

Allande Socarros Etxebarre udalerriko seme zen, Etxeberria baserrikoa. Etxebarre Zuberoa Basabürüko herri txiki bat dugu, ehun bizilagunez petikoa, Bosmendieta mendi kate ertainaren maldan kokatua, Larraineko bortu goratik hurbil, Ühaitza ibaiaren ezker aldetik. Horko etxe baten izena ezaguna zaigu Bereterretxen Kantoreari esker, altitudez apalena, Ezpeldoia, gaur Ezpeldoipea, Bereterretxen lauburu sonatua kasik atean duena. Haatik Allande Maule-Lexarren plantatua zen goizik, eta hor zendu zaigu.

Ama Mendibilekoa zuen, Mitikile udalerriko auzune batekoa. Beraz Allandek ez du sekulan eduki basaburutar batzuek pettarren, hots pettarren aurka duten aiherkunderik, ezen zuberotarron artean ere badugu normalki «manexei» buruz baliatzen dugun erran zahar bat, Montori Berorizeko paper zahar batetik berriki agertu zaidana: «Pettarretik – hots Beterritik – ez da horra – hots ez dator - aize

honik, ez jente honik». Haatik Allanderi ama Pettarretik etorri zitzaion, niri aldiz Basabürütik, Altxaiko menditik. Beraz urguilu poxi batekin erran dezaket Allande eta biak zuberotar osoak garela. Ez dakit hortako ginen ote hain ongi konpontzen, bestalde politikan bereziki genituen diferentzia batzuen gainetik? Baina beste arrazoinik ere ukan dukegu elkarlanerako.

Allande Socarros euskal politikan goizik sartu zen, hogeit bat urteetan, Mixel Labéguerieren inguruko zentristekin. Laster gogortu zen, bereziki hirurogeita hamazortzian Iruñeko San Ferminetan biziriko istilu bortitzen ondotik. Laster Iparretarrak edo IK erakunde armatuko atal politikoan sartu zen, Zuberoa eta Baxenabarre artean anitz korrituz. Laurogeita bederatzian, autoz bazabilela, bide kontrol batean paper baten ezin irentsiz gendarmeez atxilotu zuten. Auzi baten ondorioz sei hilabetez presoner egon zen Paris aldean, La Santéko presondegi famatuan. Laurogeita hamahiruan berriz atxiloturik, Parisera eraman zuten, baina epaileek han libre utzi. Azkenean Lizarra-Garaziko hitzarmenaren kariara, IK erakunde armatua gelditu zen deus erran gabe, eta gero ez zen berriz hasi.

Azken hamarkadetan Allande Socarros Etxebarre udalerriko zinegotzi egon da franko luzaz, ber denboran horko delegatu Zuberoako Herri Elkargoan, baita lehendakari orde, kultura saileko arduraduna. Azkenik Euskal Hirigune Elkargoan parte hartu du, haatik ez luzaz, azken udal hauteskundeetara ez baita berriz aurkeztu.

Bizi politiko aberatsa ukan du beraz, haatik aberatsagoa du kulturakoa, bai idazle bezala, bai animatzaile urratsetan. Harrigarri da zenbat lan egin duen eta eginarazi, nagusiki Zuberoan, baina Zuberoatik at ere ikusiko dugun bezala. Sü Azia elkarreko ekintzaile nagusia genuen. Ber denboran Euskararen Erakunde Publikoan itzultzaile lanetan ari zen, eta horren idazki ugariak ere kontutan edukiz, Euskaltzaindiak urgazle hautatu zuen 2018ko uztaillean. Kargu hori oso funski hartu zuen, lan akademikoetan parte hartuz gartsuki, bereziki lau batzordetan. Jadanik ari zen Euskalkien lan taldean (2013tik), eta Euskara Batuaren Eskuliburuan (2017tik). Izendapenaren ondotik sartu zen gainera Euskara Eskuz Esku egitasmoan (2018) eta Onomastika batzordean (2019).

Auzolan eta elkarlan horrek guztiak ez du ezkutuan utzi behar Allandek bere lumaz egin duena, idazle zinez emankorra eta ona izan baita berrogei bat urtez, bai zubereraz, bai euskara batuan, erakutsiz gainera praktikan euskara batua eta euskalkiak ez direla elkarren etsaiak, alderantziz elkar laguntzen dutela eta osatzen

Lehenbiziko lanbidea fotografian zuen: gaitzeko argazki sortak baditu bilduak, eta ofizio horretarik kazetaritzara iragan zen. *Zeruko Argian* idazten hasi zen, eta gero komunikabide askotan parte hartu zuen, nagusiki *Euskaldunon Egunkarian*, *Argian*, *Jakinen*, *Berrian*, *Herrian*, eta Xiberoko Botza irratan. *Herria* astekarian Zuberokoak berriak usu ematen zituen zubereraz, bereziki maskaradenak eta pastoralenak, bere argazkiak lagun. Beraz kazetetan asko idatzi du Allandek, eta balio luke artikulua hoberenen sorta bat bil dezagun argitaratzeko. Hain zuzen Euskaltzaindiak xede hori badu, eta Sū Aziarekin elkarlanean egingo du ahal bezain sarri.

Xiberoko Botza irratan ere lan asko egin du, bereziki hiztegigintzan, hala nola «Egün bat, hitz bat» sailean. Hitz galduen bila zebilen, lexikografian gaitzeko altxorra bilduz, hiztegilari sena eta jakintza idatziz ere agertuz *Hiztegi Ttipia Euskara Batua – Züberera / Züberera – Euskara Batua* liburuxkan (2019).

Beste libururik ere agertu du Allandek:

*Ziberouko Egünaria*, XIX. mende bukaerako almanak bat (*Ziberoko Egünaria*, Sū Aziak 2017an argitaratua).

*Xiberoko xendak. 36 ebilaldi Eüskal Herrian* (Xiberoa Herri Alkargoa, 2005). Bortukari eta mendizale handia zen Allande, mendiko ibilaldiak antolatzen zituen eta gidatzen, beraz bere esperientziaren berri ematen digu liburuxka horretan.

*Zübero Herria* (euskaraz eta frantsesez, baita euskaraz eta gaztelaniaz), Elkarlaren, 2013. Bien izenean eman zuen, baina berak hamarretarik zortzia eginez: nik Zuberoko historia laburra baizik ez dut hor idatzi

Idazteaz besterik egin du Allandek Xiberoko Botza irratan eta Sū Azian: berriak, itzulpenak, zuzenketak, aholkuak, komunikazioa... gainera batzuen eta besteen arteko loturak eta sustapena, neurtzen ahal ez den lana, etengabea, eta hori guztia musutruk. Zer izan da mutil hori? Euskaraz ez dut hitzik. Frantsesez deitu nezake «*militant multicartes*» eta «*multipermanent gratuit*». Euskaraz halere erran dezaket Euskal Herriaren eta euskararen zerbitzuko jarri zela apez bat Elizaren zerbitzura joaten den bezala, eginbide horri emanez osoki, eta nahiz ez zen kristau fededuna, santu laikoa bezalako norbait izan dela. Berak ez zuen holako kanonizazio laiko ez eta laudioririk onartuko, baina maluruski ezin dit erantzun.

Irudi hori ezin dut baztertu, azeta bat bezala bizi baitzen, oso apalki, xuhurki, ene iduriko pobreaki, bai jan-edanetan, bai jantzian (gorbata ez ttattarrik ez diot behinere ikusi). Ez zuen jaun baten itxurarik, ezta nahi ere. Bere buruari kasu eskasa



egiten zion, ez dakit noiz debru lo egiten zuen, eta ni beldur bere lan erraldoiak leherturik joan zaigula.

Alta bada, ez zen pertsona triste haietarik, alderantziz, mutil alaia zen, zirtolaria, ihakin eta imintzio egile trebea, maiz arrailerian eta txantxetan; ixtorio barregarri-rik bazuen ausarki zaku barnoi bezain kokillot batean, eta edonoiz bat ateratzen zizun harrigarriki. Maskaradetako beltzerian ikus nezake trajeriako urdinetan baino seguruago. Eta bizkitartean erraten zidan pastoral errejent edo taula zuzendari lanetan hasteko gogoia zuela, holako guti baitugu, idazleak hogeia bat garelarik, Etxahun-Iruri mende laurden batez bakarrik egon ondoren. Gainera pastoralak Zuberoatik at hedatzen ari zaigu, Baionan eta Nafarroa Garaian, zergatik ez Gipuzkoan? Noizko arren Txillardegi pastoralak Donostian?

Allande Socarros langilea bezain lagunkina zen, maitagarria eta maitatua. Beraz horren bat-bateko heriotzak jende asko txunditurik utzi du, bereziki Zuberoan eta Euskaltzaindian. Galtze handia dugu, eta ez bakarrik Zuberoan: batetik euskaldun guztien arteko zubi egile arraroa genuen, bestetik Iparraldeak orokorki parte gutxi hartzen du orain Euskaltzaindian, langile mentsez, eta hor ere hutsune larria uzten digu Allanderen joaiteak.

Denak ezin erranez bukatzera noa. Gorago aipatu dut Allande Socarros ez zela kristau fededuna. Haatik obretan bide horretarik zebilen, ber denboran besteen sinestea gain-gainetik errespetatuz. Aita Junes Casenaveri atxikimendu handia zion, eta pentsu dut orain harekin dagoela Parnasoan. Hor ez dut zalantza ez dudarik, ezen azken epai eta jujamenduko arauak, San Mateoren Ebanjelioan agertzen direnak, ongi bete ditu, jende asko lagunduz, eman dezagun samariar onak bezala, oroitzuz samariarra heretikoa zela, gutienik zismatikoa. Guhauk edonori ber laguntzak eginez, erran dezakegu: ikus arte Allande, betiereko bortu goran.